

SAMSUNG

ERABILERA-GIDA

SM-A165F/DSB
SM-A166B/DS

Basque. 07/2025. Rev.1.0

www.samsung.com

Edukien taula

Lehenengo urratsak

5	Sarrera
6	Gailuaren diseinua eta funtzioak
8	Bateria kargatzea
11	NanoSIM txartela
13	mikroSD txartela
15	Gailua piztea eta itzaltzea
15	Hasierako sistema
16	Sareak erabili
16	Samsung kontua
17	Aurreko gailutik datuak transferitzea (Smart Switch)
17	Pantaila ulertzea
26	Jakinarazpen-panela
27	Ezarpen azkarren panela
28	Testua gehitzea

Aplikazioak eta funtzioak

30	Sarrera
31	Aplikazioak instalatzea eta desinstalatzea
32	Telefonoa
34	Kontaktuak
37	Mezuak
38	Kamera
50	Galeria

55	Leiho anizkuna (Hainbat aplikazio batera erabiltzea)
56	Samsung Internet
57	Samsung Wallet
59	Samsung Osasuna
59	Samsung Oharrak
60	Samsung Bazkideak
60	Samsung Haurrak
61	Samsung Xede Globalak
61	Samsung TV Plus
61	Samsung Bilatu
61	Samsung Denda
62	Galaxy Denda
62	Galaxy Jargarriak
63	Egutegia
63	Gogorazpenak
64	Ahots-grabagailua
65	Nire fitxategiak (Fitxategiak kontsultatzea eta kudeatzea)
65	Erlojua
65	Kalkulagailua
66	Jokogunea
66	Game Booster (SM-A165F) (Jokoaren ingurunea konfiguratzeko)
68	SmartThings

- 69 Edukiak partekatzea
- 70 Musika partekatzea (SM-A165F)
- 71 Smart View (telebista-pantaila batean erakustea)
- 72 Google aplikazioak

Ezarpenak

- 73 Sarrera
- 74 Hasi saioa Galaxy gailuan
- 74 Konexioak
 - 75 Wifia
 - 77 Bluetooth
 - 78 Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa
 - 79 Datuak aurrezte
 - 79 Aplikazioetarako sare baimenduak
 - 80 Sarbide-puntu mugikorra
 - 80 Konexio-ezarpen gehiago
- 82 Konektatutako gailuak
- 83 Moduak eta errutinak
 - 83 Moduak erabiltzea
 - 83 Errutinak erabiltzea
- 84 Soinuak eta bibrazioa
 - 85 Soinuaren kalitatea eta efektuak
 - 86 Aplikazioetako soinua bereiz erreproduzitzea
- 86 Jakinarazpenak
- 87 Pantaila
 - 88 Mugimendu-leuntasuna
 - 89 Pantaila-modua aldatzea edo bistaratzeko kolorea egokitzea

- 90 Bateria
- 90 Horma-papera eta estiloa
- 91 Gaiak
- 91 Hasierako pantaila
- 91 Blokeatutako pantaila
 - 92 Desblokeoa luzatzea
- 92 Segurtasuna eta pribatutasuna
 - 93 Aurpegia ezagutzea
 - 95 Hatz-marka ezagutzea
 - 97 Wifi segurua
 - 98 Karpeta segurua
 - 101 Samsung Pass
- 102 Kokapena
- 103 Segurtasuna eta larrialdiak
- 104 Kontuak eta babeskopiak
 - 104 Samsung Cloud
- 105 Google
- 106 Funtzio aurreratuak
 - 107 Mugimendu eta keinuak
 - 108 Galaxy Abatar
 - 108 Mezularitza duala
- 109 Ongizate digitala eta guraso-kontrola
- 109 Gailua zaintzea
- 110 Aplikazioak
- 111 Kudeaketa orokorra
- 112 Irisgarritasuna
- 113 Softwarea eguneratzea
- 113 Urruneko kudeaketa
- 114 Telefonoari buruz

Erabilera-oharrak

- 116 Kontuan hartu beharrekoak gailua erabiltzeko
- 118 Oharrak paketeen edukietan eta osagarrietan
- 119 Gailuaren gehiegizko berotze egoerak eta irtenbideak
- 122 Produktu honen itxarote-egoeraren energia-kontsumoaren inguruko informazioa aurkitu

Eranskina

- 124 Arazoak detektatu eta konpondu
- 129 Bateria kendu

Lehenengo urratsak

Sarrera


Gailuaren oinarrizko informazioa ezagutu.

Atal hau Samsung gailuak erabiltzen ikasteko gida komuna da.

Modeloa zein den, edukia desberdina izan daiteke, edo baliteke gailuan ez dauden aukera eta funtzioen deskribapenak jasotzea hemen.



Gailuaren diseinua eta funtzioak





- Bozgorailuak erabiltzerakoan ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko edo deitzeko, gailua zure belarrietara gehiegi ez gerturatu.
- Kontuz, ez jarri kameraren lentea argi-iturri indartsu baten eraginpean, adibidez eguzki-argi zuzenean. Kameraren lentea zuzeneko eguzki-argia bezalako argi-iturri indartsu baten eraginpean badago, kameraren irudi-sentsorea kaltetu daiteke. Kaltetutako irudi-sentsorea ezin da konpondu eta argazkietan puntu edo orbanak islatuko ditu.
- Gailua erabiltzen baduzu kristalezko pantaila edo atzealde akrilikoa apurtuta izanda, zauritzeko arriskua izango duzu. Samsungen zerbitzu tekniko batek edo zerbitzu tekniko baimendu batek konpondu ondoren bakarrik erabili gailua.
- Hautsa edo antzekoak barneratzen badira mikrofono, bozgorailu edo entzungailuan, edo zati hauek estalita badaude, gailuaren soinua baxuagoa izan daiteke eta aukera batzuk funtzionatzeari utz diezaioke. Hauts edo antzeko material horiek objektu zorrotz batekin kentzen saiatzen bazara, gailua eta haren itxura kalte daitezke.



- Konektibitate-arazoak eta bateriaren drainaketa honako egoera hauetan gerta daitezke:
 - Eranskailu metalikoak gailuko antena-eremuan itsasten badira
 - Material metalikoekin egindako zorroa jartzen bazaio gailuari
 - Gailuko antena-eremua zure eskuekin edo bestelako objektuekin estaltzen baduzu zenbait funtzio erabiltzerakoan, hala nola deiak edo datu mugikorrak
- Ez estali argi-sentsorearen eremua osagarriekin, adibidez eranskailu edo zorroekin. Hori egiten bada, sentsoreak huts egin dezake.

Botoi gogorrak

Botoia	Funtzioa
Alboko botoia	• Sakatu eta heldu gailua piztu edo itzaltzeko. • Sakatu pantaila piztu edo blokeatzeko. • Sakatu birritan aukeratutako aplikazio edo aukera irekitzeko.
Alboko botoia+bolumena jaisteko botoia	• Aldi berean sakatu pantaila-argazki bat ateratzeko. • Sakatu eta heldu aldi berean gailua itzaltzeko.

Alboko botoiaren funtzioak

Martxan jarri beharreko aplikazio edo funtzio bat aukeratu alboko botoia birritan sakatuz.

Ireki **Ezarpenak**, sakatu **Funtzio aurreratuak** → **Alboko botoia**, eta hautatu nahi duzun aukera.

Ukipen-botoiak

Pantaila pizterakoan ukipen-botoiak beheko aldean agertuko dira. Informazio gehiagorako, joan


Nabigazio-barra (ukipen-botoiak) atalera.

Bateria kargatzea

Bateria kargatu lehenengo aldiz erabili baino lehen edo gailua aldi luze batez erabili ez denean.

Hari bidez kargatzea

USB kablea USB egokigailura konektatu eta kablea gailuaren erabilera anitzeko konektorean sartu batera kargatzeko. Osoki kargatu ostean, deskonektatu kargaqailua qailutik.



Karga azkarra

Kargagailu bizkorra edo oso bizkorra erabili.

Kargagailuaren konexioaren estatusa ikusteko, ireki **Ezarpenak** eta sartu **Bateria** atalean.



- Karga bizkorrak funtzionatzen ez badu, ireki **Ezarpenak**, **Bateria** → **Karga-ezarpenak**, eta ziurtatu aktibatu dela. Halaber, ziurtatu USB kablea eta USB egokigailua ongi konektatuta daudela.
- Bateria azkarrago karga daiteke gailua edo pantaila itzalita badaude.

Beste gailu batzuk kargatu

Erabili USB kablea beste gailu mugikor bat zure telefonoaren bateriarekin kargatzeko.

Konektatu zure telefona eta beste gailua zure telefonoaren USB kablearekin. USB konektorea beharrezkoa izan daiteke segun eta nolakoa den beste gailua.

Kargatzen hasterakoan, bateria-karga ikonoa beste gailuko pantailan agertuko da.



Zure telefonon agertuko den aplikazioa aukeratzeko laster-leihoa datuak transferitzeko da. Ez hautatu laster-leihoko aplikaziorik.

Bateriaren kontsumoa murriztu

Gailuak bateria kontserbatzeko aukera desberdinak eskaintzen ditu.

- Gailua optimizatu gailuaren zainketa-modua erabiliz.
- Gailua erabiltzen ari ez zarenean, pantaila itzali alboko botoia estutuz.
- Bateria aurrezteko modua aktibatu.
- Beharrezkoak ez diren aplikazioak itxi.
- Bluetootha desaktibatu hura erabiltzen ez duzunean.
- Sinkronizazioa behar duten aplikazioen auto-sinkronizazioa desaktibatu.
- Atzeko argiaren denbora murriztu.
- Pantailaren argitasuna jaitsi.

Bateria kargatzeko aholkuak eta kontuan hartu beharreko neurriak



- Gailurako espresuki diseinatu diren eta Samsungek onartzen dituen bateriak bakarrik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek kalte larriak eragin ditzakete gailuan.
- Gailurako espresuki diseinatu diren eta Samsungek onartzen dituen kargagailu eta kableak erabiltzea gomendatzen da. Bateragarriak ez diren kargagailu edo kableek kalteak eragin ditzakete gailuan.



- Kargagailua gaizki konektatzeak kalte larriak eragin ditzake gailuan. Erabilera okerrengatik sortutako kalteak ez ditu bermeak aseguratzen.
- Gailuarekin datorren C motako USB kablea erabiltzea gomendatzen da. MikroUSB kable bat erabiltzea gailuarentzat kaltegarria izan daiteke.
- Gailua kargatzen baduzu erabilera anitzeko konektorea bustita dagoenean, gailua kaltetu daiteke. Arretaz lehortu erabilera anitzeko konektorea gailua kargatu baino lehen.



- Energia aurrezteko, kargagailua deskonektatu erabiltzen ari ez zarenean. Kargagailuak ez dauka piztu eta itzaltzeko botoirik, horregatik erabiltzen ari ez zarenean energiari ez xahutzeko konektore elektrikotik deskonektatu behar duzu. Kargagailua konektore elektrikotik gertu eta eskuragarri egon behar da kargatzen den bitartean.
- Karga-errendimendua bermatzen duen Samsungek onartutako kargagailu bat erabiltzea hobesten da.
- Bateria erabat deskargatuta badago, gailua ezingo da piztu kargagailua konektatu bezain azkar. Agortutako bateria minutu gutxi batzuez kargatzen utzi gailua piztu baino lehen.
- Sareko aplikazioak, beste gailu baten konexioa eskatzen duten aplikazioak edo aplikazio ugari aldi berean erabiltzen badituzu, bateria azkar agortuko da. Bateria agortzea saihesteko datuak transferitzean, aplikazio horiek erabili bateria osoki kargatu ostean.
- Kargagailua ez den elikatze-iturri bat erabiltzeak, adibidez ordenagailu bat, kargatze-prozesua motel dezake korrante elektrikoa apalagoa delako.
- Gailua erabil daiteke kargatzen den bitartean, baina horrek kargatze-prozesua motelduko du.
- Gailuak energia korrante ezegonkorra jasotzen badu kargatzen den bitartean, baliteke pantaila ez ibiltzea. Hori gertatzen bada, deskonektatu kargagailua gailutik.
- Kargatzerakoan gailua eta kargagailua berotu daitezke. Normala da hori eta ez lioke gailuaren balio-bizitza edo errendimenduari eragin beharko. Bateria ohi baino gehiago berotzen bada, kargagailuak kargatzeari utz diezaioke.
- Gailua ez badago behar bezala kargatzen, eraman gailua eta haren kargagailua Samsungen zerbitzu teknikora edo zerbitzu tekniko baimendu batera.

NanoSIM txartela


Sartu zure konpainiak emandako SIM edo USIM txartela.

SIM bikoitza duten modeloetan, bi SIM edo USIM txartel sar ditzakezu gailu bakar batean bi telefono zenbaki edo konpainia izateko.



- Konpainiaren arabera baliteke sare-konexioa behar duten zenbait zerbitzu eskuragarri ez egotea.
- Eremu batzuetan datuak transferitzeko abiadura motel daiteke SIM txartel bakarra izan ordez, gailuan bi SIM txartel badaude.

SIM edo USIM txartela sartu




- 1 Erretilua irekitzeko sar ezazu kanporatze-orratza zuloan.
- 2 Erretilua leunki atera ezazu erretilu-zirrikikutik.
- 3 Ipini SIM edo USIM txartela erretiluan urre koloreko zatia behera begira jarritz eta leunki estutu SIM edo USIM txartela erretiluan hura finkatzeko.
- 4 Erretilua berriz erretilu-zirrikitura sartu.



- Erabili soilik nanoSIM txartel bat.
- Erne ibili SIM edo USIM txartela ez galtzeko edo beste norbaitek ez erabiltzeko. Samsung ez da arduratzen galdutako edo lapurtutako txartelek sortutako kalte edo eragozpenaz.
- Ziurtatu kanporatze-orratza zuloarekiko perpendikular dagoela. Bestela, gailua honda daiteke.
- Txartela ez bada erretiluan irmoki sartzen, SIM txartela erretilutik atera edo eror daiteke.
- Erretilua bustita dagoenean gailuan sartzen baduzu, gailua honda daiteke. Ziurtatu beti erretilua lehor dagoela.
- Gailura likidoa sartzea ekiditeko, sartu erretilua osoki erretilu-zirrikituan.

Txartela zuzen sartu



SIM kudeatzailea

Ireki **Ezarpenak** eta hautatu **Konexioak** → **SIM kudeatzailea**.

- **SIM txartelak:** Aktibatu zure SIM txartela SIM txartelaren ezarpenak erabili eta pertsonalizatzeko.
- **Hobetsitako SIM txartelak:** Hautatu SIM txartel espezifiko baten erabilera funtzio batzuetarako bi txartel aktibatuta daudenean, adibidez deietarako.
- **Datu-trukaketa:** Gailuan datu-zerbitzuetarako beste SIM txartel bat erabiltzea hautatu hobetsitako SIM txartela ezin bada sarera konektatu.




Funtzio hori erabiltzeak kargu gehigarriak sor ditzake.

- **SIMaren ezarpen gehiago:** Ezarpen gehigarriak pertsonalizatu.

mikroSD txartela

SD txartel bat sartu

Gailuaren SD txartelaren edukiera beste modelo batzuekin alderatuta alda daiteke eta baliteke gailuarekin bateragarriak ez diren SD txartelak egotea, fabrikatzaile eta moten arabera. Gailuaren SD txartelaren gehieneko edukiera ezagutzeko, jo Samsungeko webgunera.



- 1 Erretilua irekitzeko sar ezazu kanporatze-orratza zuloan.
- 2 Erretilua leunki atera ezazu erretilu-zirrikutik.
- 3 Ipini SD txartela erretiluan urre koloreko zatia behera begira jarriz eta hura erretiluan finkatzeko leunki estutuz.
- 4 Erretilua berriz erretilu-zirrikitura sartu.



- Erabili soilik mikroSD txartel bat.
- Baliteke zenbait SD txartel ez izatea bateragarriak gailuarekin. Bateragarria ez den txartel bat erabiltzeak gailuan, SD txartelean edo bertan gordetako datuetan kalteak eragin ditzake.
- Arduraz sartu SD txartela gorantz.
- Ziurtatu kanporatze-orratza zuloarekiko perpendikular dagoela. Bestela, gailua honda daiteke.
- Erretilua gailutik ateratzerakoan, datu mugikorren konexioa ez da erabilgarri egongo.
- Txartela ez bada erretiluan irmoki sartzen, SD txartela erretilutik atera edo eror daiteke.
- Erretilua bustita dagoenean gailuan sartzen baduzu, gailua honda daiteke. Ziurtatu beti erretilua lehor dagoela.
- Gailura likidoa sartzea ekiditeko, sartu erretilua osoki erretilu-zirrikituan.



- SD txarteletarako FAT eta exFAT fitxategi-sistemak erabil daitezke gailuan. Beste fitxategi-sistema batean formateatutako txartelak sartzerakoan, gailuak euskarria aldatzeko eskatuko du edo zuzenean ez du txartela antzemango. SD txartela erabiltzeko, formateatu beharko duzu. Gailuak ezin badu SD txartela formateatu edo antzeman, harremanetan jar zaitez SD txartelaren fabrikatzailearekin, Samsungen zerbitzu tekniko batarekin edo zerbitzu tekniko baimendu batekin.
- Sarri datuak idatzi eta ezabatzen badira SD txartelen balio-bizitza labur daiteke.
- SD txartel bat gailura sartzerakoan, SD txartelean fitxategi-direktoria agertzen da **Nire fitxategiak** → **SD txartela** karpetan.

SD txartela atera

SD txartela atera baino lehen desmunta ezazu, segurtasunez ateratzeko.

1 Ireki **Ezarpenak** eta hautatu **Gailuaren zainketa** → **Biltegitratzea**.

2 Ezkerrera jo **SD txartela** orrira sartzeko.

3 Sakatu Aukera gehiago ikurra (⋮) → **Desmuntatu**.



Ez kendu kanpoko biltegitratze-osagarriak, adibidez SD txartel edo USB biltegitratzeak, gailua informazioa transferitzen edo atzitzen ari denean edota justuki datuak transferitu ostean. Hori egiten bada datuak kalte edo gal daitezke eta kanpoko biltegitratze edo telefonoan kalteak sor daitezke. Samsungek ez ditu bere gain hartzen galerak, kanpoko biltegitratze-gailuen erabilera okerrengatik sortutako datu-galerak barne.

SD txartela formateatu

Ordenagailuan formateatutako SD txartela izan daiteke ez-bateragarria gailuarekin. Formateatu SD txartela gailuan.

1 Ireki **Ezarpenak** eta hautatu **Gailuaren zainketa** → **Biltegitratzea**.

2 Ezkerrera jo **SD txartela** orrira sartzeko.

3 Sakatu Aukera gehiago ikurra (⋮) → **Formatua**.



SD txartela formateatu baino lehen, gogoratu, egin SD txartelean bildutako datu guztien babeskopia. Fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen erabiltzaileen ekintzek eragindako datu-galerak.

Gailua piztea eta itzaltzea



Jarraitu baimendutako pertsonalak emandako abisu eta jarraibide guztiei haririk gabeko gailuen erabilera murriztua dagoen eremuetan, adibidez hegazkin eta ospitaletan.

Gailua piztu

Gailua pizteko alboko botoia segundo batzuez sakatuta mantendu.

Gailua itzali

- 1 Gailua itzaltzeko, sakatuta mantendu alboko botoia. Bestela, ireki ezarpen azkarren menua eta sakatu itzaltzeko ikurra (🔌).
- 2 Sakatu **Itzali** → **Itzali**.
Gailua berriz abiarazteko, sakatu **Berriz abiarazi** → **Berriz abiarazi**.

Berriz abiaraztea behartu

Gailua izoztuta gelditzen bada eta erantzuten ez badu, alboko botoia eta bolumena jaisteko botoia sakatuta mantendu aldi berean 7 segundo baino gehiagoz hura berriz abiarazteko.

Larrialdi-deiak eta informazio medikoa

Larrialdi-dei bat egin edo zehaztutako informazio medikoa ikus dezakezu.

Sakatuta mantendu alboko botoia eta ondotik aukeratu **Larrialdi-deia** edo **Informazio medikoa**. Bestela, ireki ezarpen azkarren panela eta sakatu itzaltzeko botoia (🔌) → **Larrialdi-deia** edo **Informazio medikoa**.



Zure informazio medikoa eta larrialdietarako kontaktuak kudeatzeko, ireki **Ezarpenak** eta aukeratu **Segurtasuna eta larrialdiak**.

Hasierako sistema

Gailua lehenengo aldiz pizterakoan edo datu-berrezarpena egin ondoren, jarraitu pantailako argibideei gailua martxan jartzeko.



Wifi-sare batera konektatzen ez bazara, agian hasieran ezingo dituzu gailuko funtzio batzuk martxan jarri.

Sareak erabili

Sareak erabil ditzakezu, adibidez wifia, Bluetooth, eremu hurbileko komunikazioa eta sare mugikorrak.

Ireki **Ezarpenak**, sakatu **Konexioak**, eta ondoren aktibatu nahi den sarea hura pizteko.

Sare mugikorra erabiltzeko, sakatu **Datuen erabilera** eta **Datu mugikorrak** horiek aktibatzeko.

Sarea erabiltzen ari ez zarenean, itzal ezazu aukeraren gainean sakatuz.



Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Samsung kontua

Samsung kontuarekin gailu mugikor, telebista eta Samsungeko webgunearen bidez eskuragarri dauden Samsung zerbitzu ugariak erabil ditzakezu.

Zure Samsung kontuarekin erabil ditzakezun zerbitzuen zerrenda ikusteko, jo hurrengo helbidera: account.samsung.com.

1 Ireki **Ezarpenak** eta sakatu **Hasi saioa Galaxy gailuan**.

Bestela, ireki **Ezarpenak** eta hautatu **Kontuak eta babeskopiak** → **Kontuak kudeatu** → **Kontua gehitu** → **Samsung kontua**.

2 Hasi saioa zure Samsung kontuan. Samsung konturik ez baduzu, sakatu **Pasahitza ahaztu duzu edo ez duzu konturik?** → **Kontu berria sortu**.

Zure identifikatzailea aurkitu eta zure pasahitza berrezarri

Zure Samsung kontuko erabiltzailea edo pasahitza ahazten badituzu, sakatu **Pasahitza ahaztu duzu edo ez duzu konturik?** → **Erabiltzailea ahaztu dut** edo **Pasahitza ahaztu dut** Samsungeko kontuan izena emateko pantailan. Zure erabiltzailea jaso edo pasahitza berrezarri ahalko dituzu eskatutako informazioa bete ondoren.

Saioa itxi zure Samsung kontuan

Zure Samsung kontuan saioa ixterakoan, zure datuak ere gailutik ezabatuko dira, hala nola kontaktuak edo gertakizunak.

1 Ireki **Ezarpenak** eta sakatu **Kontuak eta babeskopiak** → **Kontuak kudeatu**.

2 Sakatu **Samsung kontua** → **Nire profila** eta sakatu **Saioa itxi** beheko aldean.

3 Sakatu **Saioa itxi**, sartu zure Samsung kontuko pasahitza eta sakatu **Ados**.

Aurreko gailutik datuak transferitzea (Smart Switch)

Zure aurreko gailutik datuak transferitu USB kable batekin edo haririk gabe. Kanpoko biltegitratze-sistema edo ordenagailuetatik ere transferi ditzakezu datuak.

Ireki **Ezarpenak**, sakatu **Kontuak eta babeskopiak** → **Datuak transferitu gailua abiarazteko**, eta ondoren jarraitu pantailako jarraibideak datuak transferitzeko.

Bisitatu www.samsung.com/smartswitch xehetasunak eta mugak ezagutzeko.

- Kanpoko biltegitratze-sistemak erabiliz datuak transferitzeko, sakatu Kanpoko biltegitratzea ikurra (📶).
- Datuak transferitu direla ziurtatzeko, sakatu Aukera gehiago ikurra (⋮) → **Transferitzearen emaitza**.



- Baliteke aukera hau ez egotea eskuragarri zenbait gailu edo ordenagailutan.
- Samsungek serio hartzen ditu egile-eskubideak. Transferitu soilik zurea den edukia edo transferitzeko baimenduta zaudena.

Pantaila ulertzea

Pantaila kontrolatu

- Sakatu: Pantailan sakatu.
- Ukitu eta mantendu: Pantaila ukitu eta mantendu gutxi gorabehera 2 segundoz.
- Arrastatu: Item bat ukitu eta mantendu eta nahi duzun tokira arrastatu.
- Birritan sakatu: Birritan sakatu pantaila.
- Irristatu: Hatza pasatu gorantz, beherantz, ezkerrerantz, eskuinerantz.
- Zabaldtu eta atximur egin: Zabaldtu bi hatz bereizita edo atximur egin pantailan.



- Ez egin kontakturik pantaila eta beste gailu elektrikoen artean. Deskarga elektrostatikoeak pantailaren funtzionamendu okerra eragin dezakete.
- Pantaila kaltetzea ekiditeko, ez ukitu zorrotzak diren gauzekin edo ez egin presio handiegirik gainean zure hatzekin edo bestelako objektuekin.
- Ez da gomendagarria grafiko finkoak pantailaren zati batean edo pantaila osoan denbora luzez erabiltzea. Horrek eragin ditzake irudiondokoak (pantaila erretzea) edo mamu-irudiak.



Baliteke gailuak iskinetatik gertu egindako ukipenak ez antzematea, ukipen-eremuaren kanpo daudelako.

Nabigazio-barra (ukipen-botoiak)

Pantaila pizterakoan ukipen-botoiak nabigazio-barran agertuko dira, pantailaren beheko aldean. Hobespenez, ukipen-botoiak berriki irekitako aplikazioen botoia, orri nagusiaren botoia eta atzera egiteko botoia dira. Botoi hauen funtzioak alda daitezke erabiltzen ari den aplikazioaren edo erabilera-giroaren arabera.

Botoia	Funtzioa
Berriki irekitako aplikazioak ()	Sakatu azkenik erabilitako aplikazioen zerrenda ikusteko.
Hasiera (○)	• Sakatu hasierako pantailara bueltatzeko. • Ukitu eta mantendu Bilaketa-zirkulua abiarazteko. Aukeratu edo marraztu zirkulu bat irudi edo testu baten inguruan.
Atzera (<)	Sakatu aurreko pantailara bueltatzeko.

Nabigazio-barra ezkutatu

Fitxategiak ikusi edo aplikazioak pantaila zabalagoan erabili nabigazio-barra ezkutatuz.

Ireki **Aukerak** eta sakatu **Pantaila** → **Nabigazio-barra** → **Hatza pasatzeko keinuak**.

Hasierako pantaila eta Aplikazioen pantaila


Hasierako pantaila abiapuntua da gailuaren funtzio guztietara sartzeko. Widgetak, aplikazioetarako lasterbideak eta gehiago bistaratzen ditu.

Instalatutako aplikazioen pantailak bistaratzen ditu aplikazio guztien ikonoak, berriki instalatutako aplikazioak barne.

Hasierako pantaila eta aplikazioen pantailaren artean aldatu

Hasierako pantailan hatza pasatu gorantz Aplikazioen pantaila irekitzeko.

Hasierako pantailara bueltatzeko, hatza pasatu gorantz edo beherantz aplikazioen pantailan. Bestela, sakatu orri nagusiaren botoia (○) edo atzera egiteko botoia (<).



Aplikazioen botoia gehitzen baduzu hasierako pantailan, Aplikazioen pantaila hura sakatuz ireki ahalko duzu. Hasierako pantailan, ukitu eta mantendu eremu huts bat, sakatu **Ezarpenak**, eta ondoren **Bistaratu aplikazioen pantailaren botoia hasierako pantailan** hura aktibatzeko. Aplikazioen botoia (⋮) gehituko da hasierako pantailaren beheko aldean.

Hasierako pantaila editatu

Hasierako pantailan, ukitu eta mantendu eremu huts bat edo atximur egin zure hatzak elkartuz edizio-aukeretara sartzeko. Horma-papera zehatz dezakezu, widgetak gehi ditzakezu eta askoz gehiago.

- **Horma-papera eta estiloa:** Aldatu horma-paperaren ezarpenak hasierako pantailarako eta blokeatutako pantailarako.
- **Gaiak:** Aldatu gailuaren gaia. Interfazeko elementu bisualak, koloreak, ikonoak eta irudi-hormak, besteak beste, aukeratutako gaiaren arabera aldatuko dira.
- **Widgetak:** Widgetak aplikazio txikiak dira, hasierako pantailan informazioa eta sarbide eroso emateko aplikazioen funtzio espezifikoak abiarazten dituztenak. Widget bat aukeratu eta sakatu **Gehitu**. Widgeta hasierako pantailan gehituko da.
- **Ezarpenak:** Konfiguratu hasierako pantailako ezarpenak, hala nola pantailaren diseinua.

Halaber, gehitu, ezabatu edo antolatu ditzakezu panelak hasierako pantailan.

- Panelak gehitu: Hatza pasatu ezkerredera eta, ondoren, sakatu Orria gehitu ikonoa (+).
- Panelak mugitu: Arrastatu panelaren aurrebista kokapen berri batera.
- Panelak ezabatu: Sakatu Ezabatu ikonoa (🗑️) panelean.

Hasierako pantailako aplikazio guztiak ikusi

Aplikazioen pantaila bereizirik erabili gabe, gailuak hasierako pantailan aplikazio guztiak ikusaraztea lor dezakezu. Hasierako pantailan ukitu eta mantendu eremu huts bat eta ondoren sakatu **Ezarpenak** → **Hasierako pantailako diseinua** → **Hasierako pantaila bakarrik** → **Aplikatu**.

Bilatzailea abiarazi

Gailuan edukiak bilatu.

- 1 Aplikazioen pantailan, sakatu **Bilatu**.
- 2 Sartu gako-hitz bat.
Gailuan aplikazioak eta edukiak bilatuko dira.
Bilatu ikonoa (🔍) teklatuan sakatuz gero, eduki gehiago bilatuko ahalko dituzu.

Itemak mugitzea

Arrastatu item bat kokapen berri batera. Itema beste pantaila batera mugitzeko arrastatu pantailako alde batera. Ukitu eta mantentzen baduzu item bat eta **Aukeratu** sakatzen baduzu, item gehiago aukeratu eta elkarrekin mugitu ahalko dituzu.


Hasierako pantailan aplikazio bati lasterbide bat gehitzeko, ukitu eta mantendu item bat Aplikazioen pantailan eta sakatu **Hasierako pantailara gehitu**. Aplikaziorako lasterbidea hasierako pantailan gehituko da.

Sarri erabilitako aplikazioak ere bai hasierako pantailako beheko aldean dagoen lasterbideen eremura mugi ditzakezu.

Karpetak sortu

Hasierako pantailan edo Aplikazioen pantailan, arrastatu aplikazio bat beste baten gainera.

Aukeratutako aplikazioak bilduko dituen karpeta sortuko da. Sakatu **Karpetaren izena** eta sartu izen bat karpetarako.



- **Aplikazio gehiago gehitu**

Sakatu Aplikazioak gehitu ikonoa (+) karpetan. Markatu gehitu nahi dituzun aplikazioak eta sakatu **Prest**. Halaber, aplikazio bat gehi dezakezu karpetara arrastatuz.

- **Aplikazioak karpeta batetik mugitu**

Arrastatu Aplikazio bat kokapen berri batera.

- **Karpeta bat ezabatu**


Ukitu eta mantendu karpeta bat eta ondoren sakatu **Ezabatu**. Karpeta da ezabatuko den bakarra. Karpetako aplikazioak Aplikazioen pantailan birkokatuko dira.

Albo-panela

Zure aplikazio eta funtzio gogokoenetara sar zaitezke albo-panelen bidez.

Arrastatu albo-panelaren heldulekua pantailako erdialdera.

Albo-panelaren helduleku ikusgai ez badago, ireki **Ezarpenak**, sakatu **Pantaila** eta, ondoren, aktibatu **albo-panelak**.



Blokeatutako pantaila

Aldeko botoia sakatzen bada pantaila itzali eta blokeatzen da. Halaber, pantaila automatikoki itzali eta blokeatzen da gailua ez bada zehaztutako tarte batez erabiltzen.

Pantaila desblokeatzeko, hatza pasatu edozein norabidean pantaila pizterakoan.

Pantaila itzalita badago, sakatu Aldeko botoia pantaila pizteko. Bestela, birritan ukitu pantailaren gainean.

Lasterbideak editatu

Nahi duzun aplikazio edo funtzioetarako lasterbideak blokeatutako pantailaren beheko aldean alda ditzakezu.

Ukitu eta mantendu blokeatutako pantaila, klik egin lasterbideen ikonoan, aukeratu aplikazio edo funtzioa eta aukeratu **Prest**.

Aldatu pantaila blokeatzeko metodoa

Pantaila blokeatzeko metodoa aldatzeko, ireki **Ezarpenak**, aukeratu **Blokeatutako pantaila** → **Pantailaren blokeoa eta biometria**, eta metodo bat aukeratu.

Pantaila blokeatzeko patroia, PIN kodea, pasahitza edo zure biometria-datuak, informazio pertsonala babes dezakezu gainerakoak gailura sar ez daitezen. Pantaila blokeatzeko metodoa ezarri ostean, gailuak desblokeatze-kodea eskatuko du beti desblokeatzeko.



Gailua konfigura dezakezu fabrika-datuak berrezartzeko hainbat aldiz jarraian desblokeatze-kodea gaizki jartzen bada eta saiakera-mugara iristen bada. Ireki **Ezarpenak**, aukeratu **Blokeatutako pantaila** → **Blokeo seguruaren ezarpenak**, desblokeatu pantaila aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoarekin eta, ondoren, aktibatu **Fabrika-datuak automatikoki berrezarri** funtzioa.

Adierazleen ikonoak

Adierazleen ikonoak pantailaren goiko aldeko egoera-barran agertzen dira. Taulan zerrendatuko ikonoak arruntenak dira.

Ikonoa	Esanahia
•	Jakinarazpen berriak
⊘	Seinalerik gabe
	Seinalearen indarra
R	Roaming (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo)
G ↕	GPRS sarea konektatuta
E ↕	EDGE sarea konektatuta
3G ↕	UMTS sarea konektatuta
H ↕	HSDPA sarea konektatuta
H+ ↕	HSPA+ sarea konektatuta
4G / LTE ↕ / ↕	LTE sarea konektatuta
5G ↕	5G sarea konektatuta
5G ↕	LTE sarea konektatuta 5G sarea barne biltzen duen LTE sarean
📶	Wifia konektatuta
📶	Bluetooth aukera aktibatuta
📍	Kokapen-zerbitzuak erabileran daude
📞	Deia martxan
📞	Galdutako deia
💬	Testu- edo multimedia-mezu berria

Ikonoa	Esanahia
	Alarma aktibatuta
	Modu isila / Bibrazio modua
	Hegaldi modua aktibatuta
	Errore edo abisua
	Bateriaren karga / Bateriaren karga-maila



- Baliteke aplikazio batzuetan egoera-barra pantailako goiko aldean ez agertzea. Egoera-barra azal dadin, arrastatu pantailako goiko aldetik beherantz.
- Adierazleen ikono batzuk soilik jakinarazpen-panela irekitzerakoan agertzen dira.
- Jakinarazpen batzuk puntu batekin ager daitezke.
- Adierazleen ikonoak konpainia edo modeloaren arabera era desberdinetan ager daitezke.

Pantaila-argazkia

Pantaila-argazki bat egin gailua erabiltzen duzun bitartean eta ondoren gainean idatzi, marraztu, hura moztu edo parteka ezazu. Erabiltzen ari zaren pantaila eta korritze-eremua har ditzakezu pantaila-argazkian.

Nola hartu pantaila-argazki bat

Erabili hurrengo metodoak pantaila-argazkia hartzeko. Ateratako pantaila-argazkiak **Galeria** aplikazioan kontsulta ditzakezu.

- Botoiekin atera pantaila-argazkia
Sakatu Aldeko botoia eta Bolumena jaisteko botoia aldi berean.
- Pantaila-argazkia eskuarekin atera
Argazki-pantaila ateratzeko, eskuaren alde bat pantailatik ezkerrera edo eskuinera pasatu.
Eskua mugitzen pantaila-argazkia egitea aktibatuta ez badago, ireki **Ezarpenak**, aukeratu **Funtzio aurreratuak** → **Mugimendu eta keinuak**, eta ondoren aukeratu **Eskua mugituz pantaila-argazkia atera** aktibatu.



Zenbait aplikazio edo funtzio erabiltzean ezin da pantaila-argazkirik atera.

Pantaila-argazkia egin ostean, erabili pantailaren beheko aldean dagoen tresna-barrako aukerak:

-  : Argazkia atera ikusten den eta ezkutatuta dagoen edukiari orri luze batean, adibidez webgune batean. Pantaila-argazkia korritzeko ikonoa sakatzen baduzu () , pantaila automatikoki korrituko da behera eta eduki gehiago agertuko da pantaila-argazkian.
-  : Idatzi edo marraztu gainean edo moztu pantaila-argazkiko zati bat. Moztutako zatia **Galeria** aplikazioan ikusgai izango duzu.
- **#** : Pantaila-argazkiak etiketatu. Pantaila-argazkiak etiketen arabera bilatzeko, ireki **Galeria** aplikazioa eta sakatu Bilatu botoia (). Etiketen zerrenda ikusi eta nahi duzun pantaila-argazkia bilatu ahalko duzu. Etiketen zerrenda agertzen ez bada, sakatu Aukera gehiago-ren ikonoa () → **Bilaketa-ezarpenak** → **Bilaketa-kategoriak** eta aktibatu **Nire etiketak**.
-  : Pantaila-argazkiak besteekin partekatu.




Aukerak pantaila-argazkian ikusgai ez badaude, ireki **Ezarpenak**, hautatu **Funtzio aurreratuak** → **Pantaila-argazkiak**, eta ondotik aktibatu **Tresna-barra erakutsi pantaila-argazkia atera ondoren**.

Jakinarazpen-panela

Jakinarazpen berriak jasotzerakoan, adierazleen ikonoak agertuko dira egoera-barran. Ireki jakinarazpen-panela xehetasunak ikusteko.

Jakinarazpen-panela irekitzeko, hatza pasatu pantailaren goiko aldetik behera, eskuineko aldea salbu.

Jakinarazpen-panela ixteko, pantailan hatza pasatu gorantz.



Inguruko gailuak kontrolatu

Kontrolatu konektatutako inguruko gailuak edo konexio berriak egin ezarpen azkarren panelari esker.

- 1 Ezarpen azkarren panela ireki eta aukeratu **Inguruko gailuak**.
Konektatutako inguruko gailuak irudikatuko dira zure telefonoaren zirkuluarekin konektatzen dituen marra batekin.
- 2 Hautatu inguruko gailu bat hura kontrolatzeko.
 - Inguruko beste gailu batzuk konektatzeko, arrastatu pantailaren beheko aldean agertuko den gailu bat zirkulura.
 - Konexioa burutzeko arrastatu gailua pantailaren beheko aldeko panelera.

Sarri erabiltzen diren gailuak kontrolatu


Gailuak kontrolatzeko aplikazioen bidez kontrolatu, adibidez SmartThings edo ezarpen azkarren paneleko esku-prozedurarekin.

- 1 Ezarpen azkarren panela ireki eta aukeratu **SmartThings**.
- 2 Sakatu etengailua aktibatu nahi duzun aplikazioaren ondoan eta hautatu **Aktibatu**.
Konektatutako gailuak eta esku-prozedurak agertuko dira.
- 3 Hautatu gailu bat hura kontrolatzeko edo hautatu esku-prozedura bat abiarazteko.

Testua gehitzea

Teklatuaren diseinua

Testua gehitzerakoan teklatu bat automatikoki agertzen da.



Hizkuntza batzuetan ezin da testua gehitu. Testua gehitzeko sarrerako hizkuntza onartutako hizkuntza batera aldatu behar duzu.

Sarrera-hizkuntza aldatu

Sakatu Ezarpenak ikonoa (⚙️) → **Hizkuntzak eta aldaerak** → **Sarrera-hizkuntzak kudeatu** eta aukeratu erabili beharreko hizkuntzak. Bi hizkuntza baino gehiago aukeratzen baduzu, sarrera-hizkuntzak aldatu ahalko dituzu ukituz Hizkuntza aldatu ikonoa (🌐).

Teklatu-mota aldatzeko, ukitu Ezarpenak ikonoa (⚙️) → **Hizkuntzak eta aldaerak**, hizkuntza bat hautatu, eta ondotik, teklatu-mota hautatu.



3 x 4 teklatu batean, tekla bakoitzak 3 edo 4 karaktere ditu. Karaktere bat sartzeko, sakatu dagokion tekla karakterea agertu arte.

Erabili teklatuko botoia

Testua gehitzeko metodoa alda dezakezu nabigazio-barran dagoen teklatu-botoia ukituz.

Teklatu-botoia nabigazio-barran aldatzeko, ukitu eta mantendu teklatuko botoia eta nahiago duzun aukera hautatu.

-  : Testua ahots bidez gehitu.
-  : Teklatua aldatu.



Teklatuko botoia ez bada nabigazio-barran agertzen, ireki **Ezarpenak**, aukeratu **Kudeaketa orokorra** → **Teklatu-zerrenda teklatu lehenetsia**, eta ondoren aktibatu **Teklatu-botoia nabigazio-barran**.

Kopiatu eta itsatsi

- 1 Ukitu eta mantendu testuan.
- 2 Arrastatu Ezkerreko testua hautatzeko ikonoa (🔍) edo Eskuineko testua hautatzeko ikonoa (🔍) nahi duzun testuaren zatia hautatzeko edo sakatu **Dena hautatu** testu osoa hautatzeko.
- 3 Sakatu **Kopiatu** edo **Moztu**.
Hautatutako testua arbelera kopiatuko da.
- 4 Ukitu eta mantendu testua txertatu nahi duzun tokian eta sakatu **Itsatsi**.

Aplikazioak eta funtzioak

Sarrera

Erabili gailuko aplikazioak eta askotariko funtzioak.

Kapitulu hau Samsung gailuek dakartzaten aplikazio eta funtzioen gida komuna da.

Modeloaren arabera, baliteke edukia aldatzea edo zure gailuan erabilgarri ez dauden aplikazio edo funtzioen deskribapenak edukitzea.



Aplikazioak instalatzea eta desinstalatzea

Galaxy Store

Erosi eta deskargatu aplikazioak. Bereziki Samsung Galaxy gailuetarako egindako aplikazioak deskargatu ditzakezu.

Ireki **Store** aplikazioa. Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera edo ukitu Bilatu ikonoa (Q) gako-hitzak bilatzeko.



- Baliteke funtzio hau ez egotea erabilgarri, modeloaren eta operadorearen arabera.
- Automatikoki eguneratzeko ezarpenak aldatzeko, ukitu **Menua** → Ezarpenak ikonoa (⚙️) → **Eguneratu aplikazioak automatikoki** eta, gero, hautatu aukera bat.

Play Store

Erosi eta deskargatu aplikazioak.

Ireki **Play Store** aplikazioa. Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera, edo gako-hitzen arabera.



- Automatikoki eguneratzeko ezarpena aldatzeko, ukitu zure kontuaren ikonoa, ukitu **Ezarpenak** → **Sarearen hobespenak** → **Eguneratu aplikazioak automatikoki** eta, gero, hautatu aukera bat.

Aplikazioak kudeatzea

Aplikazioak desinstalatzea edo desaktibatzea

Ukitu eta mantendu aplikazio bat, eta, gero, hautatu aukera bat.

- **Desinstalatu**: Desinstalatu deskargatutako aplikazioak.
- **Desaktibatu**: Desaktibatu gailuan desinstalatu ezin diren hautatutako zenbait aplikazio lehenetsi.



- Baliteke aplikazio batzuk funtzio honekin bateragarriak ez izatea.

Aplikazioak aktibatzea

Ireki **Ezarpenak**, ukitu **Aplikazioak** → Ordenatu ikonoa (≡) → **Desgaitutakoak** → **Ados**, hautatu aplikazio bat eta, ondoren, ukitu **Gaitu**.

Aplikazioen baimenak konfiguratzeko

Aplikazio batzuek ondo funtziona dezaten, baliteke baimenak behar izatea zure gailuko informazioa erabiltzeko edo ikusteko.

Aplikazioek dituzten baimenen ezarpenak ikusteko, ireki **Ezarpenak** eta ukitu **Aplikazioak**. Ondoren, hautatu aplikazio bat, eta ukitu **Baimenak**. Aplikazioen baimenen zerrenda ikus dezakezu, eta baimenak aldatu.

Aplikazioen baimenen ezarpenak ikusteko edo aldatzeko, baimen-mailaren arabera, ireki **Ezarpenak** eta ukitu **Aplikazioak** → Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Baimenen kudeatzailea**. Aukeratu elementu bat eta aplikazio bat.



Aplikazioei baimenak ematen ez badizkiezu, baliteke aplikazioen oinarrizko funtzioak behar bezala ez ibiltzea.

Telefonia

Sarrera

Deitu edo erantzun ahots-deiei edo bideodeiei.

Deitzea

- 1 Ireki **Telefonia** aplikazioa eta ukitu **Teklatua**.
- 2 Sartu telefono zenbaki bat.
- 3 Ukitu Ahots-deiak ikonoa (📞) ahots-deiak egiteko, edo ukitu Bideodeiak ikonoa (📹) edo Meet bideodeien ikonoa (👤) bideodeiak egiteko.

Erregistro- edo kontaktu-zerrenda erabiliz deitzea

Ireki **Telefonia** aplikazioa, ukitu **Berriki irekitako aplikazioak** edo **Kontaktuak**, eta, ondoren, hatza pasatu eskuinerantz kontaktu edo telefono-zenbaki baten gainean, dei bat egiteko.

Funtzio hau desgaituta badago, ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak** → **Bestelako dei-ezarpenak**, eta, ondoren, ukitu **Hatza pasatu deitzeko eta mezu bat idazteko** etengailua, gaitzeko.

Markatze laburra erabiltzea

Zenbaki bat markatze labur gisa konfiguratzeko, ireki **Telefonoa** aplikazioa, ukitu **Teklatua** → Aukera gehiago ikonoa (☰) → **Markatze laburra**, aukeratu markatze laburrerako zenbaki bat, eta, gero, hautatu telefono-zenbaki bat.

Dei bat egiteko, ukitu eta mantendu markatze laburreko zenbakietako bat zenbakizko teklaturan. 10etik aurreragoko zenbakiak sartu nahi badituzu markatze laburrean, ukitu zenbakiaren lehenengo digitua(k), eta, gero, ukitu eta mantendu azken digitua.

Adibidez, 123 zenbakia konfiguratzeko baduzu markatze laburrerako, ukitu 1, ukitu 2 eta, ondoren, ukitu eta mantendu 3.

Nazioarteko dei bat egitea

- 1 Ireki **Telefonoa** aplikazioa eta ukitu **Teklatua**.
- 2 Ukitu eta mantendu 0, + ikurra bistaratu arte.
- 3 Idatzi herrialdeko kodea, area-kodea eta telefono-zenbakia; eta, ondoren, ukitu Deitu ikonoa (☎).

Deiak jasotzea

Dei bati erantzutea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu Erantzun ikonoa (☎) zirkulu handitik kanpora.

Dei bat ez onartzea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu Uko egin ikonoa (📞) zirkulu handitik kanpora.

Jasotako dei bat ez onartzean mezu bat bidali nahi baduzu, arrastatu **Bidali mezua** barra gorantz, eta hautatu zer mezu bidali nahi duzun.

Uko egiteko mezuak sortzeko, ireki **Telefonoa** aplikazioa, ukitu Aukera gehiago ikonoa (☰) → **Ezarpenak** → **Ukatu azkar mezuak**, idatzi mezu bat, eta, ondoren, ukitu Gehitu ikonoa (+).

Telefono-zenbakiak blokeatzea

Blokea itzazu blokeatuen zerrendan dauden zenbakien deiak.

Ireki **Telefonoa** aplikazioa, ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak** → **Blokeatu zenbakiak**, eta, ondoren, hautatu blokeatutako zenbakien zerrendan sartu nahi dituzun kontaktuak eta zenbakiak.

Blokeatutako zenbakiak zurekin harremanetan jartzen saiatzen direnean, ez duzu jakinarazpenik jasoko. Deiak deien erregistroan agertzen dira.



Halaber, solaskidearen IDa erakusten ez duten pertsonen sarrerako deiak blokeatu ditzakezu. Ukitu **Blokeatu zenbaki ezezagunetako deiak** etengailua funtzioa aktibatzeke.

Kontaktuak

Sarrera

Sortu kontaktu berriak, edo kudea itzazu gailuan daudenak.

Kontaktuak gehitzea

Kontaktu berria sortzea

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu Sortu ikonoa (+).
- 2 Non gorde nahi duzun hautatzea.
- 3 Idatzi kontaktuaren xehetasunak, eta ukitu **Gorde**.

Kontaktuak inportatzea

Zure gailuko beste toki batzuetatik inportatu ditzakezu kontaktuak.

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak** → **Inportatu kontaktuak**.
- 2 Jarraitu pantailan agertuko diren argibideei kontaktuak inportatzeko.

Kontaktuak web-kontuetakoekin sinkronizatzea

Sinkronizatu gailuko kontaktuak web-kontuetan (adibidez, Samsung kontuan) gordeta dituzun kontaktuekin.

- 1 Ireki **Ezarpenak**, ukitu **Kontuak eta babeskopia** → **Kudeatu kontuak**, eta hautatu sinkronizatu nahi duzun kontua.
- 2 Ukitu **Sinkronizatu kontua** eta ukitu **Kontaktuak** etengailua, aktibatzeke.

Kontaktuak bilatzea

Ireki **Kontaktuak** aplikazioa. Ukitu Bilatu ikonoa (Q) kontaktu-zerrendaren goiko aldean, eta sartu bilaketa-irizpideak.

Ukitu kontaktuak. Gero, egin hauetako bat:

-  : ahots-dei bat egin.
-  : mezu bat idatzi.
-  /  : bideodei bat egin.
-  : mezu elektroniko bat idatzi.

Kontaktuak ezabatzea

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Hautatu**.
- 2 Hautatu kontaktuak, eta ukitu **Ezabatu**.

Banan-banan ezabatzeko, ukitu kontaktu-zerrendako kontaktu bat, eta ukitu **Gehiago** → **Ezabatu**.

Kontaktuak partekatzea

Kontaktuak beste pertsona batzuekin partekatzeko aukera ugari dituzu.

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Hautatu**.
- 2 Hautatu kontaktuak, eta ukitu **Partekatu**.
- 3 Hautatu zer informazio partekatu nahi duzun, eta ukitu **Eginda**.
- 4 Hautatu partekatzeko metodo bat.

Taldeak sortzea

Taldeak sor ditzakezu (adibidez, familia edo lagunak), eta kontaktuak taldeka kudeatu.

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu **Taldeak** → Sortu ikonoa (+).
- 2 Jarraitu pantailan agertuko diren argibideei taldea sortzeko.

Kontaktu bikoiztuak bateratzea

Kontaktu-zerrendan kontaktu errepikatuak badituzu, bateratu bakar batean, zerrenda arintzeko.

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak** → **Bateratu kontaktu bikoiztuak**.
- 2 Hautatu kontaktuak, eta ukitu **Bateratu**.

Zure profila konfiguratzeko

Zure profil-irudia eta profil-txartela konfiguratu ditzakezu.

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu zure profila.
- 2 Ukitu **Sortu profil-txartela**.
- 3 Jarraitu pantailan agertuko diren argibideei zure profil-txartela konfiguratzeko. Profil-txartelerako hautatzen duzun irudia profil-irudi gisa ere ezarriko da.
- 4 Profil-irudia aldatzeko, ukitu profila-irudia edo txartela, eta ukitu Profil-irudia ikonoa (✎).
- 5 Jarraitu pantailan agertuko diren argibideei profil-irudia konfiguratzeko.

Profila partekatzea

Jendeak zure profila ikus dezake deitzen diezunean edo zure kontaktuaren informazioa begiratzen dutenean.

- 1 Ireki **Kontaktuak** aplikazioa eta ukitu zure profila.
- 2 Ukitu **Profil-txartela eta -irudia** eta ukitu **Partekatu profila-txartela eta -irudia** etengailua, aktibatzeko.

Mezuak

Sarrera

Bidali eta ikusi mezuak elkarrizketetan.

Baliteke atzerrian zaudenean mezuak bidali edo jasotzeagatik kargu osagarriak izatea.

Mezuak bidaltzea

- 1 Ireki **Mezuak** aplikazioa and ukitu Idatzi mezu berria ikonoa ()
- 2 Gehitu hartzaileak, eta idatzi mezu bat.
Ahots-mezu bat grabatzeko edo bidaltzeko, ukitu eta mantendu Ahots-mezua ikonoa () eta esan mezua. Grabazioaren ikonoa mezuak idazteko eremua hutsik dagoenean bakarrik bistaratuko da.
- 3 Ukitu Bidali ikonoa () mezua bidaltzeko.

Mezuak kontsultatzea

- 1 Ireki **Mezuak** aplikazioa eta ukitu **Elkarrizketak**.
- 2 Hautatu mezuen zerrendako kontaktu bat edo telefono-zenbaki bat.
 - Mezuari erantzuteko, ukitu mezua idazteko eremua, idatzi mezu bat, eta, ondoren, ukitu Bidali ikonoa ()
 - Letra-tamaina doitzeko, urrundu bi hatz edo atximur egin pantailan.

Mezuak ordenatzea

Mezuak kategoriaka ordenatu ditzakezu.

Ireki **Mezuak** aplikazioa eta ukitu **Elkarrizketak** → Gehitu kategoria ikonoa ()

Kategoriaren aukera agertzen ez bada, ukitu Aukera gehiago ikonoa () → **Ezarpenak**, eta hautatu **Elkarrizketen kategoriak** etengailua, aktibatzeko.

Mezuak ezabatzea

Ukitu eta mantendu ezabatu nahi duzun mezua, eta, gero, ukitu **Ezabatu**.

Mezuen ezarpenak aldatzea

Ireki **Mezuak** aplikazioa eta ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak**. Jaso nahi ez dituzun mezuak blokea ditzakezu, jakinarazpenen ezarpenak aldatu ditzakezu eta askoz gehiago.

Kamera

Sarrera

Atera argazkiak eta grabatu bideoak hainbat modu eta ezarpen erabiliz.

Kamera erabiltzeko arauak

- Ez egin inori argazkirik edo ez grabatu bideorik baimenik gabe.
- Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik legez debekatuta dagoen lekuetan.
- Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik norbaiten pribatutasuna urra dezakezun lekuetan.



Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Argazkiak ateratzea

1 Ireki **Kamera** aplikazioa.

Alboko botoia bi aldiz sakatuz edo blokeo-pantailan Kamera ikonoa (📷) ezkerrera arrastatuz ere ireki dezakezu aplikazioa.



- Kameraren funtzio batzuk ez dira egoten erabilgarri **Kamera** aplikazioa blokeo-pantailatik abiaraztean edo pantaila itzalita dagoela pantaila blokeatzeko metodo bat konfiguratuta dagoenean.
- Kamera automatikoki itzaliko da erabiltzen ari ez bazara.
- Baliteke zenbait funtzio erabilgarri ez egotea, operadorearen edo modeloaren arabera.

2 Aurrebistako pantailan, ukitu kamera non fokuratu nahi duzun.

Irudien distira doitzeko, arrastatu hatza marko zirkularraren gainean edo azpian agertzen den doikuntza-barran.

3 Ukitu Atera argazkia ikonoa (○) argazkia ateratzeko.

Kliskatze-modua aldatzeko, arrastatu kliskatze-moduen zerrenda ezkerrera edo eskuinera, edo hatza pasatu ezkerrera edo eskuinera aurrebistaren pantailan.



- Baliteke aurrebistaren pantaila aldatzea, kliskatze-modua zein den eta zer kamera erabiltzen ari zaren.
- Subjektua oso gertu badago, baliteke ongi fokuratu ezin izatea. Atera argazkiak edo bideoak distantzia egokian.
- Argazkiak lausotuta ateratzen badira, garbitu kameraren lentea eta saiatu berriro.
- Egiaztatu lentea garbi dagoela eta kaltetuta ez dagoela. Garbi ez badago, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea bereizmen handia behar duten modu batzuetan.
- Gailuaren kamerak objektibo angeluzabal bat du. Baliteke angelu zabaleko argazki eta bideoetan distortsio txiki bat egotea; horrek ez du esan nahi gailuak funtzionamendu-arazoak dituenik.
- Baliteke kameran lurrina edo kondentsazioa sortzea gailuak bat-bateko tenperatura-aldaketak jasaten baditu, kameraren estalkiaren barruko eta kanpoko airearen arteko tenperatura-aldaketen eraginez. Kamera erabiltzeko asmoa baduzu, saiatu halakorik ez gertatzea. Kamerak lurrina badu, utzi bere kasa lehortzen, giro-tenperaturan, argazkiak atera edo bideoak grabatu aurretik. Bestela, lausotuta atera litezke.

Kamera botoia erabiltzea

- Ukitu eta mantendu Kameraren botoiari bideo bat grabatzeko.
- Kamera botoia Blokeatu ikonora (🔒) arrastatzen baduzu, botoiari eusten egon gabe graba dezakezu bideoa.
- Argazkiak jarraika ateratzeko, kameraren botoia pantailaren ertzera arrastatu eta mantendu. Aurrebistaren pantailan Kontrol azkarrak ikonoa (⋮) → Ezarpenak ikonoa (⚙️) ukitzen baduzu eta, ondoren, **Hatza pasatu obturadore-botoitik → Sortu GIFa**, GIFak sortu ahal izango dituzu.
- Beste kamera-botoi bat gehitzen baduzu, pantailaren edozein tokitara eraman ahal izango duzu, eta argazkiak erosoago atera. Aurrebistaren pantailan, aukeratu Kontrol azkarrak ikonoa (⋮) → Ezarpenak ikonoa (⚙️) → **Kliskatze-metodoak**, eta ukitu **Obturadore-botoi flotatzailea** etengailua, aktibatzeko.

Kliskatze-moduen zerrenda editatzea

Kliskatze-moduen zerrenda editatzeko, ukitu **GEHIAGO** zerrendan, ukitu **Editatu**, eta, gero, arrastatu moduak nahi dituzun tokira.

Zoom funtzioak erabiltzea

Atzeko kamera erabiltzen ari zarela irudia hurbiltzeko edo urruntzeko, hautatu zoomaren ikonoa aurrebistaren pantailan.

Zoomaren ikonoa ukitzean agertzen den zoom-mailen zerrendan ere hauta dezakezu zenbateko zooma nahi duzun.

Zooma zehaztasun handiagoz doitzeko, arrastatu zoomaren ikonoa eta urrundu bi hatz edo atximur egin aurrebistaren pantailan.



Zoom-mailaren zerrenda

Fokuratze automatikoa (AF) eta esposizioa (AE) blokeatzea

Gune jakin bateko fokuratzea eta esposizioa blokea ditzakezu, kamerak ez ditzan automatikoki doitu subjektuetan edo argi-iturrietan aldaketak daudenean.

Ukitu eta mantendu fokuratu nahi duzun eremua. AF/AE markoa azalduko da eremuan, eta fokuratze- eta esposizio-ezarpenak blokeatu egingo dira. Ezarpen hori blokeatuta egongo da argazki bat atera ondoren ere.



Baliteke funtzio hori ez egotea erabilgarri, kliskatze-modua zein den.

Oraingo kliskatze-moduaren aukerak

Aurrebistaren pantailan, erabili aukera hauek. Aukera gehiago erabiltzeko, ukitu Kontrol azkarrak ikonoa (⋮).

- ✖ : Flasha aktibatu edo desaktibatu.
- 12M : Argazkien bereizmena hautatu.
- 📷 : Iragazki bat aplikatu.
- ∞ : Kamera azkarreko bideoen grabazio-denbora aldatu.
- AUTO : Kamera azkarreko bideoetarako fotogramen abiadura aukeratu.
- FHD 30 : Bideoaren bereizmena hautatu.
- 😊 : Edertasun-efektuak aplikatu.
- 🎯 : Neurketa-metodo bat aukeratu. Argiztapen-balioak nola kalkulatu diren erabakitzen du.
Erdian (🎯) aukerak argazkiaren erdialdeko argia erabiltzen du esposizioa kalkulatzeko. **Matrizea** (🔲) aukerak eszena osoaren batezbestekoa ateratzen du. **Gunea** (🔵) aukerak eszenaren erdialdeko gune kontzentratu bateko argia erabiltzen du argazkiaren esposizioa kalkulatzeko.
- 💧 : **JANARIA** moduan, objektu bat enkoadraketaren barruan fokuratzeko eta enkoadraketaren kanpoan geratzen den irudia desfokuratzeko.



Baliteke erabilgarri dauden aukerak aldatzea, modeloaren edo kliskatze-moduaren arabera.

Argazki-modua

Kamerak automatikoki doitzen ditu kliskatze-aukerak, ingurunearen arabera.

Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **ARGAZKIA** eta, ondoren, ukitu Atera argazkia ikonoa (○) argazkia ateratzeko.

Bereizmena aldatzea

Bereizmen handiko argazkiak atera ditzakezu.

Argazkiak ateratzeko aukeretan, ukitu **12M** bereizmena aldatu eta nahi duzuna aukeratzeko, eta atera argazkia.




Baliteke bereizmena aldatzea, modeloaren arabera.

Argazkiaren iradokizunak

Kamerak argazkiaren konposizio egokiena iradokitzen du, subjektuaren kokapena eta angelua detektatuta.

Aurrebistaren pantailan, ukitu Kontrol azkarrak ikonoa (⋮) → Ezarpenak ikonoa (⚙️) eta ukitu **Argazkiaren iradokizunak** etengailua, aktibatzeko.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **ARGAZKIA**.
Aurrebistaren pantailan gida bat bistaratuko da.
- 2 Gida erreferentzia hartuta, jarri kamera subjektuari begira.
Kamerak konposizioa detektatzen du, eta aurrebistaren pantailan gomendatutako konposizioa agertzen da.
- 3 Mugitu gailua gida gomendatutako konposizioarekin bat etor dadin.
Konposizio egokiena lortu denean, gida hori jarriko da.
- 4 Ukitu Atera argazkia ikonoa (○) argazkia ateratzeko.



Selfieak ateratzea

Atera selfieak aurreko kamerarekin.

- 1 Aurrebistaren pantailan, hatza pasatu gorantz edo beherantz, edo ukitu Aldatu aurreko kamerara ikonoa () aurreko kamerara aldatu eta selfieak ateratzeko.
- 2 Jarri aurreko kameraren lentearen aurrean.
Paisaiaren edo pertsonen panoramikoarekin ateratzeko selfiea, ukitu Aldatu angelu handira ikonoa ()
- 3 Ukitu Atera argazkia ikonoa () argazkia ateratzeko.

Dokumentuak eskaneatzea

Dokumentuak eskaneatu ditzakezu.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **ARGAZKIA**.
- 2 Jarri kamera objektuari begira, eta ukitu Eskaneatu dokumentuak ikonoa ()
Dokumentu bat detektatu denean soilik agertuko da Eskaneatu dokumentuak ikonoa ()
- 3 Hautatu nahi duzun eremua, eta ukitu **Gorde**.

Bideo-modua

Kamerak automatikoki doitzen ditu kliskatze-aukerak, ingurunearen arabera.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **BIDEOA**, eta ukitu Hasi grabatzen ikonoa () bideoa grabatzeko.
 - Grabatzen ari zarela aurreko eta atzeko kameraren artean aldatzeko, hatza pasatu gorantz edo beherantz aurrebistaren pantailan, edo ukitu Aldatu aurreko kamerara ikonoa ()
 - Grabatzen ari zarela bideoko irudi bat gordetzeko, ukitu Atera argazkia ikonoa ()
 - 2 Ukitu Amaitu grabaketa ikonoa () bideoaren grabazioa geldiarazteko.
-  Baliteke argi eskaseko inguruneetan zoom optikoak ez funtzionatzeko.

Erretratu-modua

Erretratu-modua erabiltzean, atzealdea lausotuta eta subjektua nabarmenduta duten argazkiak edo bideoak atera ditzakezu.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **ERRETRATUA**.
 - 2 Ukitu Erretratua ikonoa () eta arrastatu desfokuratzearen doikuntza-barra, desfokuratze-maila doitzeko.
 - 3 Aurrebistaren pantailan **Prest** agertzen denean, ukitu Atera argazkia ikonoa () argazki bat ateratzeko.
-  • Erabili funtzio hau argi nahikoa duten lekuetan.
- Baliteke egoera hauetan atzealdeko desfokuratzeak ondo ez funtzionatzea:
- Gailua edo objektua mugitzen ari bada.
 - Subjektua fina edo gardena bada.
 - Subjektuak eta atzealdeak antzeko kolorea baldin badute.
 - Subjektua edo atzealdea lauak badira.

Dibertsio-modua (SM-A165F)

Atera hainbat efektu dituzten argazki eta bideoak.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **DIBERTSIOA**.
- 2 Hautatu efektu bat.
- 3 Ukitu efektuen botoia argazkia ateratzeko.
Bideo bat grabatzeko, ukitu eta mantendu efektuaren botoiari.

Pro modua

Atera argazkiak kliskatze-aukerak eskuz doituta, hala nola esposizio-balioa eta ISO balioa.

Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **GEHIAGO** → **PRO**. Hautatu aukerak eta pertsonalizatu ezarpenak, eta, ondoren, ukitu Atera argazkia ikonoa (📷) argazkia ateratzeko.

Erabilgarri dauden aukerak

Aukera bat ukitzean, aukeren zerrenda agertuko da. Zerrendan, hautatu aukerak eta pertsonalizatu ezarpenak.

- 🔄 : Ezarpenak berrezartzeko.
- **ISO**: ISO balioa hautatzeko. Balio horiek kameraren argi-sentikortasuna zehazten dute. Balio txikiak objektu finkoetarako edo ondo argiztatuetarako erabiltzen dira. Balio handienak azkar mugitzen diren edo argi gutxi duten objektuetarako dira egokiak. Dena den, ISO balio altuak ezartzeak zarata eragin dezake argazkietan.
- **ABIADURA**: Obturadorearen balioa doitzeko. Obturadorearen abiadura mantsoa bada, argi gehiago pasatzen uzten du, eta, beraz, argazkiak argitsuagoak dira. Aukera hau egokia da paisaiei argazkiak ateratzeko, edo gauez ateratzen direnerako. Obturazio-abiadura bizkorra bada, argi gutxiago sartzen da. Oso bizkor mugitzen diren objektuei argazkiak ateratzeko egokia da aukera hau.
- **EV**: Esposizioaren balioa aldatzeko. Kameraren sentsoareak zenbat argi jasotzen duen zehazten du horrek. Argi gutxi dagoen lekuetan, esposizio handiagoa erabili behar da.
- **FOKUA**: Fokuratzeko modua aldatzeko. Arrastatu doikuntza-barra fokuratzeari eskuz doitzeko.
- **WB**: Zurien balantze egoki bat aukeratzeko, irudiek errealitateko kolorearen antzekoa izan dezaten. Kolore-tenperatura ere konfigura dezakezu.

Fokuratzeko-eremua eta esposizio-eremua bereiztea

Fokuratzeko-eremua eta esposizio-eremua bereizi ditzakezu.

Ukitu eta mantendu aurrebistako pantaila. AF/ AE laukia pantailan agertuko da. Arrastatu zirkulua fokuratzeko-eremua eta esposizio-eremua bereizi nahi dituzun tokira arte.

Modu panoramikoa

Modu panoramikoan, zenbait argazki atera ditzakezu, eta, ondoren, eszena zabal bat sortzeko bata bestearekin elkartu.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **GEHIAGO** → **PANORAMA**.
 - 2 Ukitu Atera argazkia ikonoa (○) eta mugitu gailua poliki norabide batean.
Mantendu argazkia kamerako bisorearen markoaren barruan. Aurrebistako irudia gida gisa balio duen markotik kanpo baldin badago edo gailua mugitzen ez baduzu, gailuak automatikoki utziko dio argazkiak ateratzeari.
 - 3 Ukitu Eginda ikonoa (■) argazkiak ateratzeari uzteko.
-  Saiatu ez ateratzen argazkirik atzealdea xehetasunik gabea bada (zeru hutsa edo horma laua).

Janariaren modua

Atera kolore biziagoak dituzte janari-argazkiak.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **GEHIAGO** → **FOOD**.
Pantailan marko bat agertuko da, eta markotik kanpoko eremua lausotu egingo da.
- 2 Markoaren tamaina aldatzeko, mugitu markoaren izkina bat.
Ukitu nahi duzun eremua, edo arrastatu markoa mugitzeko.
- 3 Ukitu Kontrol azkarrak ikonoa (⋮) → Kolorearen tenperatura ikonoa (🔥) eta arrastatu doikuntza-barra kolorearen tenperatura doitzeko.
- 4 Ukitu Atera argazkia ikonoa (○) argazkia ateratzeko.

Gaua modua

Argazkiak atera ditzakezu, argi gutxi dagoenean flasha erabili beharrik gabe. Tripode bat erabiltzen baduzu, emaitza argiagoak eta egonkorragoak lortuko dituzu.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **GEHIAGO** → **NIGHT**.
- 2 Ukitu Atera argazkia ikonoa (○) eta mantendu zure gailua egonkor argazkia ateratzen amaitu arte.

Makro modua


Atera gertu dauden subjektuen argazkiak.

Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **GEHIAGO** → **MACRO**.

Kamera geldoa modua

Grabatu bideo bat kamera geldoan ikusteko. Kamera geldoan zer bideo zati erreproduzitu nahi dituzun zehaztu ditzakezu.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **GEHIAGO** → **KAMERA GELDOA** eta ukitu Hasi grabatzen ikonoa () bideo bat grabatzeko.
- 2 Grabatzen amaitu duzunean, ukitu Amaitu grabaketa ikonoa () grabazioa gelditzeko.
- 3 Aurrebistaren pantailan, ukitu miniatura.
Bideoaren zati bizkorra kamera geldoko sekzio bezala konfiguratuko da, eta bideoa erreproduzitzen hasiko da. Bideoaren arabera, kamera geldoko bi sekzio sor daitezke.
Kamera geldoko sekzioa editatzeko, ukitu Editatu ikonoa () eta arrastatu sekzioa editatzeko barra ezkerrera edo eskuinera.



Kamera lasterraren modua (SM-A166B)

Grabatu eszenak (adibidez hodeiak mugitzen edo pertsonak pasatzen), eta bistaratu bideo gisa, kamera bizkorrean.

- 1 Kliskatze-moduen zerrendan, ukitu **GEHIAGO** → **KAMERA LASTERRA**.
 - 2 Ukitu Abiadura ikonoa () eta hautatu fotograma-abiadura bat.
 - Fotogramen abiadura **AUTO** aukeran konfiguratzuz gero, gailuak automatikoki doitu du abiadura, eszenako abiadura-aldaketen arabera.
 - Izar-arrastoak grabatu nahi badituzu, doitu fotograma-abiadura Gaez hirurehun aldiz bizkorrago ikonoarekin (**+300x**) eta ukitu Izar-arrastoak ikonoa ().
 - 3 Ukitu Hasi grabatzen ikonoa () grabatzen hasteko.
 - 4 Ukitu Amaitu grabaketa ikonoa () grabazioa amaitzeko.
-  Gaueko kamera lasterra erabiltzeko, ukitu Abiadura ikonoa () → Gaez hamabost aldiz bizkorrago ikonoa (**15x**) edo Gaez berrogeita bost aldiz bizkorrago ikonoa (**45x**) kliskatze-aukeretan. Funtzio hau egokia da, adibidez, mugitzen ari diren autoen argazkiak ateratzean argia ere mugitzen ari dela itxuratzeko.

Kameraren ezarpenak pertsonalizatzea

Aurrebistaren pantailan, ukitu Kontrol azkarak ikonoa (⋮) → Ezarpenak ikonoa (⚙️). Baliteke aukera batzuk erabilgarri ez egotea, hautatutako kliskatze-moduaren arabera.

Funtzio adimendunak

- **Eszena-optimizatzailea:** Gailua konfiguratzeko du automatikoki doitu ditzan kolore-ezarpenak eta optimizatutako efektua aplikatu dezan, subjektuaren edo eszenaren arabera.
- **Eskaneatu dokumentuak:** Atzeko kamerak dokumentu edo testu bat detektatzen duenean, Eskaneatu dokumentuak ikonoa (📄) agertuko da.
- **Argazkiaren iradokizunak:** Gailua konfiguratzeko du kamerak konposizio egokiena iradoki dezan argazkirako, subjektuaren kokapena eta angelua detektatuta.
- **Eskaneatu QR kodeak:** Gailua konfiguratzeko du aurrebistako pantailatik eskaneatu ditzan QR kodeak.

Irudiak

- **Hatza pasatu obturadore-botoitik:** Kameraren botoia pantailaren ertzeratu eta mantentzean zer ekintza egitea nahi duzun hautatzeko.
- **Ur-marka:** Argazkiei ur-marka eransteko.
- **Eraginkortasun handiko argazkiak:** Argazkiak HEIF (High Efficiency Image Format) formatuan ateratzeko.

Selfieak

- **Gorde selfieak aurreikusi bezala:** Argazkiak aurrebistaren pantailan agertzen diren bezala gordetzeko, aurreko kamerarekin aterata bezala eta buelta eman gabe.
- **Hatza pasatu gorantz edo beherantz kameraz aldatzeko:** Aktibatu funtzio hau, aurrebista-pantailan hatza gora edo behera irristatuz aldatzeko kameraz.

Bideoak

- **Eraginkortasun handiko bideoak:** Bideoak HEVC (High Efficiency Video Code) formatuan ateratzeko. HEVC bideoak konprimatutako fitxategi gisa gordeko dira, gailuan biltegiratzeko tokia mantentzeko.
 - Baliteke HEVC bideoak beste gailu batzuetan ezin erreproduzitzea edo online ezin partekatzeko.
 - Kliskatze-modu batzuetan ezin da grabatu bideorik HEVC formatuan.
- **Bideoa egonkortzea:** Bibrazioen aurkako funtzioa aktibatuz, bideoa grabatzean kamera mugitzeak eragiten duen efektu lausoa murrizteko edo kentzeko.

Orokorra

- **HDR automatikoa:** Kolore biziko argazkiak ateratzeko eta eremu argitsu nahiz ilunetan xehetasunak mantentzeko.
- **Konposizio-gida:** Bisorean gidak bistaratzeko, subjektuak aukeratzean argazkiaren konposizioa osatzen lagundu dezaten.
- **Kokapen-etiketak:** Argazkiei GPS bidezko kokapenak gehitzeko.
 -  • Baliteke GPSaren seinalearen intentsitatea gutxitzea seinalea oztopatzen den kokalekuetan, hala nola eraikinen artean edo eremu baxuetan, edo eguraldi txarra egiten duenean.
 - Zure kokapena argazkietan ager liteke Internetera igotzen dituzunean. Halakorik ez gertatzeko, desaktibatu kokapen-etiketaren ezarpena.
- **Argazkia ateratzeko metodoak**
 - **Sakatu bolumenaren botoiak honetarako:** Argazkiak atera edo bideoak grabatzeko, zooma handitu edo txikitzeko, edo bolumena kontrolatzeko bolumenaren botoia erabiliz.
 - **Obturadore-botoi flotatzailea:** Botoi mugikor bat gehitzeko, pantailako edozein puntutan argazkiak ateratzeko.
 - **Esku-ahurra erakustea:** Aurreko kamerari esku-ahurra erakutsiz selfieak egin edo grabatzen hasteko.
- **Mantendu beharreko ezarpenak:** Kamera irekitzean erabilitako azken ezarpenak mantentzeko, adibidez, kliskatze-modua.
- **Biltegiratze-kokapena:** Non gorde nahi duzun hautatzea. Funtzio hau SD txartel bat sartzean agertzen da.
- **Snapchaten lenteak erakutsi dibertsio-moduan:** Gailua konfiguratzen du hainbat efektu dituzten argazki eta bideoak egiteko, Snapchat-en lente bereziak erabiliz.

Pribatutasuna

- **Pribatutasun-oharra:** Pribatutasun-oharra ikusteko aukera ematen du.
- **Baimenak:** Kamera aplikazioa erabiltzeko behar diren baimenak ikusteko.
- **Konfigurazioa berrezarri:** Kameraren ezarpenak berrezartzeko.
- **Kamerari buruz:** Kamera aplikazioaren bertsioa eta lege informazioa bistaratzeko.
- **Jarri gurekin harremanetan:** Galderak egin ditzakezu, edo sarrien egiten diren erantzunak ikusi.

 Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.


Galeria

Sarrera

Zure gailuan gordetako argazki eta bideoak ikus ditzakezu. Horrez gain, bildumetan kudeatu ditzakezu argazki eta bideoak, edo istorioak sortu.


Galeria erabiltzea

Ireki **Galeria** aplikazioa.



Irudiak ikustea

Ireki **Galeria** aplikazioa eta hautatu irudi bat. Beste fitxategi batzuk ikusteko, hatza pasatu pantailan ezkerrera edo eskuinera.




Irudi handiak ebakitzea

- 1 Ireki **Galeria** aplikazioa eta hautatu irudi bat.
- 2 Ipini bi hatz gorde nahi duzun eremuaren gainean eta elkarrengandik aldentu. Ondoren, ukitu Ebaketa azkarra ikonoa (✂).
Ebakitako eremua fitxategi berri gisa gordetzen da.

Bideoak ikustea

Ireki **Galeria** aplikazioa, eta hautatu bideo bat erreproduzitzeko. Beste fitxategi batzuk ikusteko, hatza pasatu pantailan ezkerrera edo eskuinera.

Erreproduzitzean aukera gehiago ikusteko, ukitu **Erreproduzitu bideoa**.



Distira doitzeko, arrastatu hatza gorantz edo beherantz erreproduzio-pantailaren ezkerraldean; bolumena doitzeko, berriz, eskuineko aldean.

Aurrera edo atzera bizkor joateko, hatza pasatu ezkerrerantz edo eskuinerantz erreproduzio-pantailan.

Albumak

Ireki **Galeria** aplikazioa, ukitu **Albumak** → Sortu ikonoa (+), eta, gero, hautatu album mota.

- **Albuma:** Bilduma berriak sortzeko eta irudi nahiz bideoak eskuz gehitzeko.
- **Automatikoki eguneratzen den albuma:** Hautatzen dituzun pertsonen irudiak automatikoki biltzen dituzten bildumak sortzeko.
- **Taldea:** Bilduma erlazionatuen multzo bat sortzeko.
- **Album partekatua:** Beste pertsona batzuekin parteka daitezkeen bildumak sortzeko.
- **Familia-album partekatua:** Familiarekin parteka daitezkeen bildumak sortzeko.



Baliteke zenbait funtzio erabilgarri ez egotea, eskualdearen edo modeloaren arabera.

Istorioak

Irudiak eta bideoak egiten edo gordetzen badituzu, gailuak haien kokapen-etiketak eta data irakurriko ditu, irudiak eta bideoak ordenatuko ditu, eta istorioak sortuko.

Ireki **Galeria** aplikazioa, ukitu **Istorioak**, eta, ondoren, hautatu istorio bat. Aukera gehiago ikonoa (⋮) ukitzen baduzu, hainbat aukera ematen dizkizu, hala nola izenburua aldatzea.

Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Sortu istorioa** ukitzen baduzu istorioen zerrendan, eskuz sortu ahal izango dituzu istorioak.

Argazkiak eta bideoak sinkronizatzea

Ireki **Galeria** aplikazioa, ukitu Sinkronizatu OneDriverekin ikonoa (☁) eta jarraitu pantailan agertuko diren argibideei sinkronizazioa amaitzeko. **Galeria** aplikazioa eta hodeia sinkronizatuta daudenean, ikonoa aldatu eta OneDriverekin sinkronizatuta ikonoa (☑) agertuko da.

Sinkronizatu bitartean, ateratako argazkiak eta bideoak ere hodeian gordeko dira. Hodeian gordetako argazkiak eta bideoak **Galerian** ikus ditzakezu, bai eta beste gailu batzuetan ere.



Samsung kontua eta Microsoft-en kontua konektatzen dituzunean, Microsoft OneDrive konfiguratu dezakezu hodeiko biltegi gisa.

Argazkiak edo bideoak ezabatzea

Ireki **Galeria**, ukitu eta mantendu ezabatu nahi duzun bideo, irudi edo albuma, eta ukitu **Ezabatu**.

Zakarrontzia erabiltzea

Ezabatutako irudiak eta bideoak zakarrontzian gordeko dira aldi baterako. Fitxategiak denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren ezabatuko dira.

Zakarrontziko fitxategiak ikusteko, ireki **Galeria** aplikazioa, eta ukitu **Menua** → **Zaborra**. Fitxategiak berrezartzeko, ukitu **Hautatu**, hautatu fitxategiak eta, ondoren, ukitu **Berrezarri**.


Leiho anizkuna

(Hainbat aplikazio batera erabiltzea)


Aldi berean aplikazio bat baino gehiago exekutatzeko, pantaila zatituaren ikuspegian edo pantaila gainerakorraren ikuspegian.



Baliteke aplikazio batzuk funtzio honekin bateragarriak ez izatea.



Zatitu pantaila-ikuspegia



Laster-ikuspegia

Leiho anizkuna irekitzea

- Berriki irekitako aplikazioen botoia

Ukitu berriki irekitako aplikazioen botoia (|||), ukitu aplikazio baten ikonoa, eta, ondoren, ukitu **Ireki bereizitako pantailaren ikuspegian** edo **Ireki ikuspegi gainerakorrean**.

- Pantailan hatza pasatuz

Ireki **Ezarpenak**, ukitu **Funtzio aurreratuak** → **Leiho anizkuna** eta, ondoren, ukitu **Hatza pasatu bereizitako pantailan ikusteko** edo **Hatza pasatu ikuspegi gainerakorrean ikusteko** aktibatzeko.



- Leihoen tamaina doitzeko, mugitu aplikazio-leihoen arteko zirkuluak (• • •).
- Ukitu aplikazio-leihoen artean dauden zirkuluak (• • •), eta ukitu Gehitu aplikazio-bikotea ikonoa (☆). Pantaila bereziaren ikuspegian erabiltzen ari zaren bi aplikazioak aplikazio-bikote gisa gordeko dira.
- Arrastatu Leiho anizkunaren kontrolatzailea (—) beste toki batera aplikazioaren leihoa mugitzeko.
- Leiho anizkunaren kontrolatzailea (—) ukitzean, erabilgarri dauden menuak agertuko dira.


Samsung Internet

Interneten nabiga dezakezu informazioa bilatzeko eta atsegin dituzun webguneak gogoko gisa marka ditzakezu, haietara eroso sartzeko.

- 1 Ireki **Internet** aplikazioa.
- 2 Idatzi web-helbidea edo hitz gako bat, eta ukitu **Joan**.

Tresna-barra agertzen ez bada, hatza pasatu poliki pantailan behera.

Fitxa batetik bestera joateko, ukitu Fitxak ikonoa (📑) edo hatza pasatu ezkerrera edo eskuinera, helbidearen eremuan.



Ezkutuko modua erabiltzea

Ezkutuko modurako pasahitz bat definitzen baduzu, beste batzuek ezingo dituzte ikusi zure bilaketa- eta nabigazio-historia, zure markatzaileak eta gorde dituzun orriak.

- 1 Ukitu Fitxak ikonoa (📑) → **Gaitu Ezkutuko modua**.
- 2 Ukitu **Blokeatu Ezkutuko modua** etengailua, aktibatzeke; ukitu **Hasi**, eta, ondoren, ezarri ezkutuko moduaren pasahitza.
Ezkutuko moduan, gailuak tresna-barren kolorea aldatuko du. Ezkutuko modua desaktibatzeke, ukitu Fitxak ikonoa (📑) → **Desaktibatu Ezkutuko modua**.

Samsung Wallet

Sarrera

Funtzio praktiko ugari ditu Samsung Zorroak. Ordainketa bat egin dezakezu, datu biometrikoak erabiliz zure identitatea egiaztatu, sarrerak edo hegazkin-txartelak kontsultatu, eta askoz gehiago.

Helbide honetan aurkituko duzu funtzio hori onartzen duten txartelei buruzko informazio gehiago:

www.samsung.com/samsung-wallet.

Ireki **Zorroa** aplikazioa, eta hautatu nahi duzun funtzioa.



- Baliteke aplikazio hau ez egotea erabilgarri toki batzuetan.
- Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri toki batzuetan.

Samsung Zorroa konfiguratzeko

Aplikazio hau lehen aldiz edo fabrikako balioak berrezarri ondoren irekitzen duzunean, jarraitu pantailan agertuko diren argibideei gailua konfiguratzeko.

- 1 Ireki **Zorroa** aplikazioa.
- 2 Hasi saioa Samsung kontuan, eta irakurri eta onartu baldintzak.
- 3 Erregistratu zure hatz-aztarna eta PIN bat, ordainketak egiteko garaian erabil ditzazun. PIN hori Samsung Zorroko ekintzak egiaztatzeke erabiliko da (adibidez, ordainketak egiteko eta aplikazioa desblokeatzeko).

Samsung Pay erabiltzea

Erregistratu zure txartelak Samsung Pay-n, ordainketak online eta konexiorik gabe egiteko.



- Samsung Pay-rekin ordaintzeko, baliteke gailuak sare mugikor baterako edo wifirako konexioa behar izatea, eskualdearen arabera.
- Baliteke funtzio hau ez egotea erabilgarri operadore batzuekin edo modelo batzuetan.
- Baliteke hasierako konfigurazioaren prozedura eta txartelaren erregistroa desberdinak izatea, operadorearen edo modeloaren arabera.

Txartelak erregistratzea

Ireki **Zorroa** aplikazioa, eta jarraitu pantailan agertuko diren argibideei txartelaren erregistroa osatzeko.

Ordainketak egitea

1 Arrastatu pantailaren beheko aldean dagoen txartelaren irudia gorantz. Beste aukera bat **Zorroa** aplikazioa irekitzea da. Ondoren, txartelen zerrendan, hatza pasatu eskuinera edo ezkerrera txartelak eta hautatu zein erabili nahi duzun.

2 Eskaneatu zure hatz-aztarna edo idatzi ezarri zenuen PINa.

3 Hurbildu gailuaren atzealdea txartel-irakurgailura.

Txartel-irakurgailuak txarteleko informazioa detektatzen duenean, ordainketa prozesatuko da.



- Baliteke ordainketa batzuk ez prozesatzea, sare-konexioaren arabera.
- Baliteke ordainketak egiaztatzeko metodoa desberdina izatea, txartel-irakurgailuen arabera.

Ordainketak bertan behera uztea

Ordainketak bertan behera utz ditzakezu, ordainketa egindako gunera joanda.

Txartelen zerrendan, hatza pasatu txartelak ezkerrera edo eskuinera, eta hautatu erabili zenuena. Jarraitu pantailan agertuko diren argibideei ordainketa bertan behera uzteko.

Identitatea egiaztatzea

Erregistratu zure datu biometrikoak Samsung Pass-en, eta egiaztatu zure identitatea saioa hasteko pasahitza edo informazio pertsonala behar duten zerbitzuak erabiltzean. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Pass](#) atala.

Sarrerak erabiltzea

Gorde hegazkin-txartelak, zinemarako sarrerak, kirol-ekitaldietakoak eta abar leku bakar batean, ikusteko eta erabiltzeko.

Samsung Osasuna

Samsung Osasunak ongizatea eta sasoia kudeatzen lagunduko dizu. Jarri helburuak zeure buruari, kontrolatu egindako aurrerapena, eta egin ongizatearen eta sasoiaren segimendua. Halaber, pauso-kontaktaren erregistroak Samsung Osasuna aplikazioko beste erabiltzaile batzuenekin konpara ditzakezu, eta osasunari buruzko aholkuak ikusi.

Ireki **Osasuna** aplikazioa. Sartu www.samsung.com/samsung-health webgunean informazio gehiago eskuratzeko.

Samsung Oharrak


Sortu oharrak teklatuarekin idatziz edo pantailan eskuz idatzi nahiz marraztuz. Irudiak edo ahots-grabazioak ere txerta ditzakezu oharretan.



Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Oharrak sortzeko

- 1 Ireki **Oharrak** aplikazioa, ukitu Sortu ikonoa (📝) eta, gero, sortu ohar bat.
Ukitu Eskuz idazteko ikonoa (✍️) edo Testuaren ikonoa (💬) oharrak idazteko modua aldatzeko.



- 2 Oharra sortzen bukatu duzunean, ukitu Atzera egiteko botoia (<), gordetzeko.
Oharra beste fitxategi-formatu batekin gorde nahi baduzu, ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Gorde fitxategia**.

Oharrak ezabatzea

Ukitu eta mantendu ezabatu nahi duzun oharra, eta ukitu **Ezabatu**.

Oharrak sinkronizatzea

Samsung kontu berarekin saioa hasi duzun gailu guztietako oharrak ikusi edo edita ditzakezu.

Ireki **Oharrak** aplikazioa, ukitu Nabigazio-kutxa ikonoa (☰) → Ezarpenak ikonoa (⚙️) eta, ondoren, ukitu **Sinkronizatu Samsung Cloudekin** etengailua, aktibatzeko.

Samsung Bazkideak

Samsung Bazkideak aplikazioak laguntza teknikoko zerbitzuak ematen dizkie bezeroei (besteak beste, gailuen arazoak diagnostikatzea), eta galderak eta errore-txostenak bidaltzeko aukera ematen die erabiltzaileei. Galaxyren erabiltzaile-komunitateko beste pertsona batzuekin informazioa partekatu ahalko duzu, halaber, edo azken albisteak eta aholkuak ikusi. **Samsung Bazkideak** aplikazioak gailua erabiltzen duzun bitartean izan ditzakezun arazoak konpontzen lagundu diezazuke.

Samsung Haurrak

Aplikazio jakin batzuetarako sarbidea mugatu dezakezu umeak sar ez daitezen, eta aplikazioen erabilera-denbora defini dezakezu eta ezarpenak konfiguratu ditzakezu inguru dibertigarri eta seguru bat izan dezaten gailua erabiltzen duten bitartean.

Ireki **Ezarpenak** eta ukitu **Aplikazioak** → **Samsung Haurrak** → **Ireki**. Samsung Haurrak lehen aldiz edo fabrikako balioak berrezarri ondoren irekitzen duzunean, jarraitu pantailan agertuko diren argibideei gailua konfiguratzeko.

Samsung Haurrak pantailan, hautatu erabili nahi duzun aplikazioa.



Pantaila blokeatzeko modu lehenetsia edo sortutako PINa erabiliko dira **Guraso-kontrola** funtzioa aktibatzean edo Samsung Haurrak ixtean.

Guraso-kontrolaren funtzioak erabiltzea

Samsung Haurrak-en ezarpenak konfiguratu ditzakezu, eta erabilera-historia ikusi.

Samsung Haurrak pantailan, ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Guraso-kontrola** eta idatzi desblokeatze-kodea.

Samsung Haurrak ixtea

Samsung Haurrak ixteko, ukitu Atzera egiteko botoia (◀) edo Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Itxi Samsung Haurrak**, eta, ondoren, idatzi desblokeatze-kodea.

Samsung Xede Globalak

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean ezarritako xede globalek gizarte jasangarri bat sortzeko helburua dute. Pobrezia desagerrarazi, desberdintasunei aurre egin eta klima-aldaketa geldiarazi nahi dute.

Samsung Xede Globalak aplikazioaren bidez, garapen jasangarrirako helburu horiei buruzko informazio gehiago jaso dezakezu, eta etorkizun hobearen lortzeko mugimendu horrekin bat egin.

Samsung TV Plus

Hautatu kanalak telebista batean egingo zenukeen moduan, eta eskuratu zenbait eduki doan.

Ireki **TV** aplikazioa.



Baliteke funtzio hau ez egotea erabilgarri, modeloaren eta operadorearen arabera.

Samsung Bilatu

Zure gailua aurkitu dezakezu, sare batera konektatuta egon ez arren. Zure kokapena aurrez hautatutako beste pertsona batzuekin ere parteka dezakezu.

Ireki **Bilatu** aplikazioa.

Samsung Denda

Samsungen mugikorreko erosketa-zerbitzua da **Samsung Denda**. Jaso eskaintzak edo informazioa Samsungen eta haren bazkideen produktu eta zerbitzuei buruz.

Ireki **Samsung Denda** aplikazioa.



Baliteke funtzio hau ez egotea erabilgarri, modeloaren eta operadorearen arabera.

Galaxy Denda

Sartu Samsungen webgunean, eta kontsultatu produktuei buruzko informazioa.

Ireki **Galaxy Denda** aplikazioa.



Baliteke funtzio hau ez egotea erabilgarri, modeloaren eta operadorearen arabera.

Galaxy Jargarriak

Kudeatu zure jargarriak Galaxy Jargarriak aplikazioarekin. Zure telefonoa gailu jaggarrira konektatzen duzunean, gailu jargarriaren konfigurazioa eta aplikazioak pertsonalizatu ahal izango dituzu.

Horretarako, ireki **Jargarriak** aplikazioa.

Ukitu **Gehiago** → **Hasi** zure telefonoa gailu jaggarrira konektatzeko. Jarraitu pantailan agertuko diren argibideei konfigurazioa amaitzeko. Kontsultatu gailu jaggarraren erabiltzaile-eskuliburua, zure gailura konektatzeari eta hura erabiltzeari buruzko informazio gehiago jasotzeko.

Egutegia

Kudeatu zure agenda, datozen gertaerak egutegian sartuta.

Ireki **Egutegia** aplikazioa eta ukitu Gehitu gertaera ikonoa () edo ukitu bi aldiz data bat. Egun horretan gertaera edo zereginen bat gordeta badago, ukitu eguna, eta, gero, Gehitu gertaera ikonoa ()

Gertaerak zure kontuekin sinkronizatzeko

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, ukitu **Kontuak eta segurtasun-kopia** → **Kudeatu kontuak**, eta hautatu sinkronizatu nahi duzun kontua.
- 2 Ukitu **Sinkronizatu kontua** eta ukitu **Egutegia** etengailua, aktibatzeko.

Sinkronizatu nahi dituzun kontuak gehitzeko, ireki **Egutegia** aplikazioa eta ukitu Nabigazio-kutxa ikonoa () → Ezarpenak ikonoa () → **Kudeatu egutegiak** → Aukera gehiago ikonoa () → **Gehitu kontua**. Gero, aukeratu kontu bat, sinkronizatzeko, eta hasi saioa.

Gogorazarpenak

Erregistratu egin beharreko zereginak gogorazpen gisa, eta jaso jakinarazpenak konfiguratzeko dituzun baldintzaren arabera.

Ireki **Egutegia** aplikazioa eta ukitu Nabigazio-kutxa ikonoa () → **Gogorazarpenak** () → Gehitu gogorazpena ikonoa ()



- Jakinarazpen zehatzagoak jasotzeko, konektatu gailua wifi-sare batera edo sare mugikor batera.
- Kokapenean oinarritutako gogorazarpenak erabiltzeko, GPS funtzioak aktibatuta egon behar du. Baliteke kokapenean oinarritutako gogorazarpenak ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Gogorazarpenak erabiltzea

Ireki **Gogorazarpenak** aplikazioa.

- Gogorazarpenak sortzeko, ukitu Gehitu gogorazpena ikonoa ()
- Gogorazarpenak amaitzeko, ukitu Markatu laukia ikonoa () edo hautatu gogorazpen bat eta ukitu **Amaitu**.
- Gogorazarpenak berrezartzeko, ukitu Nabigazio-kutxa ikonoa () → **Amaitutakoak**, hautatu berrezarri nahi duzun gogorazpena eta, ondoren, ukitu **Berrezarri**.
- Gogorazarpenak ezabatzeko, hautatu bat eta ukitu **Ezabatu**.

Ahots-grabagailua

Grabatu edo erreproduzitu ahots-grabazioak.

- 1 Ireki **Ahots-grabagailua** aplikazioa.
- 2 Ukitu Grabatu ikonoa () grabatzen hasteko. Hitz egin mikrofonotik gertu.
 - Ukitu Gelditu ikonoa () grabazioa gelditzeko.
 - Ahots-grabazio bat egitean, ukitu Gehitu laster-marka ikonoa () laster-marka bat txertatzeko.
- 3 Ukitu Amaitu ikonoa () grabazioa amaitzeko.
- 4 Idatzi izen bat fitxategiarentzat, eta ukitu **Gorde**.

Nire fitxategiak

(Fitxategiak kontsultatzea eta kudeatzea)

Sartu gailuan gordetako fitxategietara, kudeatzeko.

Ireki **Nire fitxategiak** aplikazioa.

Beharrik gabeko daturik dagoen ikusi eta gailuan biltegitratzeko tokia egiteko, ukitu **Kudeatu biltegia**.

Fitxategiak edo karpetak bilatzeko, ukitu Bilatu ikonoa (Q).

Erlojua

Alarmak konfiguratzeko, munduko hirietako ordua ikusteko, gertaera bat kronometratzeko edo tenporizadore bat jartzeko.

Ireki **Erlojua** aplikazioa.

Kalkulagailua

Egin oinarrizko kalkulu aritmetiko edo zientifikoak.

Ireki **Kalkulagailua** aplikazioa.

-  : Kalkuluen historia bistaratzeko. Ezabatzeko, ukitu **Garbitu historia**. Ixteko, ukitu Teklatua ikonoa ().
-  : Unitateak bihurtzeko tresna erabiltzeko. Zenbait balio (eremua, luzera edo tenperatura, adibidez) beste unitate batzuetara bihurtu ditzakezu.
-  : Kalkulagailu zientifikoa bistaratzeko.

Jokogunea

Jokoguneak toki bakar batean biltzen ditu **Play Store** eta **Galaxy Store** dendetatik deskargatutako jokoak. Ireki **Jokogunea** aplikazioa, eta hautatu nahi duzun jokoak.



Play Store eta **Galaxy Store** dendetatik deskargatutako jokoak automatikoki bistaratuko dira Jokogunearen pantailan. Jokoak hemen ez badaude, ukitu Zabaldu ikonoa (☰) → Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Gehitu jokoak**.

Jokoak Jokogunetik ezabatzea

Ukitu Zabaldu ikonoa (☰), ukitu eta mantendu joko bat, eta, ondoren, ukitu **Ezabatu Jokogunetik**.

Game Booster (SM-A165F)

(Jokoaren ingurunea konfiguratzeko)

Jokoetan ari zarela, gozatu ingurune hobeaz Game Boosterrekin. Jokatzeko ari zaren bitartean Game Booster erabil dezakezu.

Jokatzeko ari zaren bitartean Game Booster panela irekitzeko, ukitu Game Booster ikonoa (⚙️) pantailaren beheko aldean. Ikonoa ezkutatuta badago, arrastatu hatza gorantz pantailaren beheko aldetik, bistaratzeko.

- : Joko bakoitzerako ezarpenak konfiguratzeko; adibidez, errendimendu-modua aldatzeko.
- ⚙️ : Game Boosterren ezarpenak konfiguratzeko.
- Ukipen-babesa**: Jokatzeko ari zaren bitartean pantaila blokeatzeko. Pantaila desblokeatzeko, arrastatu blokeo-ikonoa edozein norabidetan.
- Pantaila-argazkia**: Pantailari argazkia ateratzeko.
- Grabatu**: Joko-saioa grabatzeko. Grabazioa amaitzeko, ukitu Amaitu ikonoa (■).
- Blokeatu nabigazio-botoiak**: Nabigazio-barrako botoiak ezkutatzeko. Berrir bistaratzeko, ukitu nabigazio-botoiak blokeatzeko ikonoa (🔒) nabigazio-barran.
- Ezkutatu albo-panela**: Jokatu bitartean albo-panelaren heldulekua ezkutatzeko.
- Blokeatu distira automatikoa**: Jokatu bitartean pantailako distiraren doikuntza automatikoa desaktibatzeko.

- **Blokeatu Bixby:** Jokatu bitartean Bixby desaktibatzeke.
- **Editatu:** Aukeren zerrenda editatzeko.
- **Jokoaren optimizazioa:** Uneko errendimendu-modua ikusteko.
- **RAM:** Erabilgarri dagoen memoria ikusteko.



- Baliteke erabilgarri dauden aukerak desberdinak izatea, modeloaren arabera.
- Litekeena da jokoaren errendimenduari muga jartzea gailuaren tenperatura-maila jakin batetik gora igotzen bada hura kontrolatzeko.

Errendimendu-modua aldatzea

Jokoaren errendimendu-modua aldatzeko aukera duzu.

Ukitu Game Booster ikonoa (+) → Ezarpenak ikonoa (⚙️) → **Jokoaren optimizazioa** eta hautatu nahi duzun modua.

- **Errendimendua:** Jokatzen ari zaren bitartean errendimendu ona lehenesten du. Modu hau erabiltzen baduzu, gailua berotu egin daiteke, bateria gehiago kontsumitzen duelako.
- **Orekatua:** Orekatu egiten ditu errendimendua eta bateriaren erabilera-denbora.
- **Bateria aurrezte**a: Jokatzen ari zaren bitartean bateriaren energia aurrezten du.



Baliteke jokoaren arabera aldatzea bateriaren kargaren eraginkortasuna.

Jokatzen ari zarela aplikazioak leiho gainerakorretan irekitzea

Jokatzen ari zarela, aplikazioak leiho gainerakorretan ireki ditzakezu.

Ukitu Game Booster ikonoa (+) → **Aplikazio gainerakorrak**, eta hautatu zerrendako aplikazio bat.

SmartThings

Gailu adimendunak eta gauzen Interneteko produktuak (IoT) kontrolatzea eta kudeatzea.

Ireki **SmartThings** aplikazioa. Informazio gehiago nahi baduzu, ukitu **Menea** → **Erabilera-gida**.



- **Gogokoak:** Maiz erabiltzen diren gailuak, errutinak edo zerbitzuak gehitzeko eta kudeatzeko.
- **Gailuak:** Gailuak gehitzeko edo kudeatzeko.
- **Bizitza:** Erabili hainbat zerbitzu, hala nola gailuaren egoera edo energia-kontsumoa egiaztatzea, eta aurreztu energia adimen artifiziala erabiliz (AI Energy Mode).
- **Errutinak:** Errutinak gehitzeko edo kudeatzeko.
- **Menea:** Informazio erabilgarria, gailu bateragarriak, funtzio jakin batzuk erabiltzeko jarraibideak, eta abar ikusteko.



- Baliteke eskualdearen arabera aldatzea zer gailu konekta daitezkeen. Baliteke konektatutako gailuaren arabera aldatzea funtzio erabilgarriak.
- Samsungen bermeak ez ditu barne hartzen konektatutako gailuen arazoak eta akatsak. Konektatutako gailuek arazoak edo akatsak badituzte, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin.

Edukiak partekatzea

Edukia parteka dezakezu erabilera partekatuko zenbait aukera erabilita. Jarraitu urrats hauei irudiak partekatzeko.

1 Ireki **Galeria** aplikazioa eta hautatu irudi bat.

2 Ukitu Partekatu ikonoa (🔗), eta hautatu partekatzeko erabili nahi duzun metodoa.



Sare mugikorraren bidez fitxategiak partekatzen dituzunean, baliteke kargu gehigarriak sortzea.

Quick Share

Partekatu edukia hurbileko gailuekin edo zure kontaktuekin.

1 Ireki **Galeria** aplikazioa eta hautatu irudi bat.

2 Beste gailuan, ireki **Ezarpenak** eta ukitu **Konektatutako gailuak** → **Quick Share** → **Nork parteka dezake zurekin?** → **Kontaktuak soilik** edo **Guztiak** → **Eginda**.

3 Ukitu Partekatu ikonoa (🔗) → **Quick Share**, eta, ondoren, aukeratu gailu bat, irudia hara transferitzeko.

- Esteka QR kode batekin partekatzeko, ukitu **QR kodea edo esteka** eta eskaneatu.
- Kontaktuekin partekatzeko, ukitu **Ikusi kontaktua**.
- Zifratutako edukia partekatzeko, ukitu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Aktibatu Modu pribatuan partekatzea**. Hartzaileak ezin du eduki partekatua gorde, kopia edo birbidali.

4 Onartu artxiboa transferitzeko eskaria beste gailuan.

Zure telefonoa nork aurkitu dezakeen ezartzea

Zure gailua nork aurkitu edo edukia nork parteka dezakeen konfiguratu dezakezu.

1 Ireki **Ezarpenak** eta ukitu **Konektatutako gailuak** → **Quick Share** → **Nork parteka dezake zurekin?**

2 Hautatu aukera bat.

- **Inor ez:** Inori ez uzteko zure gailua aurkitzen. Samsung kontu berean saioa hasi duten gailuek bakarrik aurkituko dute.
- **Kontaktuak soilik:** Kontaktuetan gordetako pertsonekin bakarrik partekatzeko.
- **Guztiak:** Gertuko edozein telefonok izateko zure gailuarekin edukia partekatzeko baimena.

Musika partekatzea (SM-A165F)

Musika partekatzeko funtzioaren bidez, zure telefonora konektatuta dagoen bluetooth bozgorailua beste batzuekin parteka dezakezu. Era berean, musika bera entzun dezakezu zure Galaxy Buds-etan eta beste pertsona baten Galaxy Buds-etan.

Musika partekatzeko funtzioarekin bateragarriak diren gailuetan bakarrik dago erabilgarri funtzio hori.

Bluetooth bozgorailu bat partekatzea

Zure telefonoan, ireki **Ezarpenak**, ukitu **Konektatutako gailuak** → **Musika partekatzea**, eta, ondoren, ukitu etengailua aktibatzeke.

Jarraitu pantailako argibideei bluetooth bozgorailua partekatzeko.

Musika elkarrekin entzutea Galaxy Buds erabiliz

Musika lagun batekin entzun dezakezu zure telefonotik zure eta zure lagunaren Buds-ak erabilita.

Funtzio hau Galaxy Buds seriearekin bakarrik erabil daiteke.

- 1 Egiaztatu telefonoak eta Buds-pareak konektatuta daudela.
Nola konektatu jakiteko, kontsultatu [Bestelako Bluetooth gailuekin parekatzea](#).
- 2 Zure lagunaren telefonoan, ireki **Ezarpenak**, ukitu **Konektatutako gailuak**, eta, ondoren, ukitu **Musika partekatzea** etengailua, aktibatzeke.
Beste funtzio batzuk ere erabil ditzakezu, adibidez, gailua norekin partekatuko duzun ezar dezakezu, **Musika partekatzea** ukituz.
- 3 Zure telefonoan, ireki ezarpen azkarren panela eta ukitu **Multimedia-irteera**.
- 4 Hautatu lagunaren Buds-ak detektatutako gailuen zerrendan.
- 5 Lagunaren telefonoan, onartu konexio-eskaera.
Musika zure telefonotik erreproduzitzen duzunean, lagunarekin entzun ahal izango duzu Buds-pare biak erabilita.

Smart View

(telebista-pantaila batean erakustea)

Gailuan ikusten den edukia pantaila handi batean ikus dezakezu pantaila erakustea onartzen duen telebista edo monitore batera konektatzen duzunean telefonoa.

1 Ireki ezarpen azkarren panela, eta ukitu **Smart View**.

2 Hautatu zer gailutan nahi duzun erakutsi zure gailuaren pantaila.



Bideo bat Smart View-rekin erreproduzitzen denean, baliteke bereizmena aldatzea, telebista-modeloaren arabera.

Google aplikazioak

Googlek entretenimenduko, sare sozialetako eta negozioetarako aplikazioak eskaintzen ditu. Baliteke Googleko kontu bat behar izatea aplikazio batzuetara sartzeko.

Aplikazioei buruzko informazio gehiago behar izanez gero, joan aplikazio bakoitzaren laguntza-menura.

- **Chrome:** Informazioa bilatu eta webguneetan nabigatzeko.
- **Gmail:** Mezu elektronikoak Google Mail zerbitzuaren bidez bidali edo jasotzeko.
- **Maps:** Mapan zure kokapena aurkitzeko, munduko mapan tokiak aurkitzeko eta zure inguruko zenbait lekuri buruzko kokapen-datuak kontsultatzeko.
- **YT Music:** YouTube Music-ek eskaintzen dizun musikaz eta bideoez gozatzeko. Gailuan gordeak dituzun musika-bildumak ere ikusi eta erreproduzitu ditzakezu.
- **Google TV: Play Store**-ko bideoak (adibidez, filmak edo telebistako saioak) erosi edo alokatzeko.
- **Drive:** Zure edukiak hodeian gordetzeko, haietara edozein lekutatik iristeko eta beste batzuekin partekatzeko.
- **YouTube:** Bideoak ikusi edo sortzeko, eta beste batzuekin partekatzeko.
- **Argazkiak:** Jatorri desberdineko argazki eta bideo guztiak leku bakar batean bilatu, kudeatu eta editatzeko.
- **Google:** Informazioa Interneten edo gailuan aurkitzeko.
- **Meet:** Bideodeia erabiliz beste pertsona batzuekin hitz egiteko, bilerak sortzeko edo haietara batzeko.
- **Mezuak:** Zure gailuan edo ordenagailuan mezuak bidaltzeko eta jasotzeko, eta askotariko edukiak partekatzeko, hala nola irudiak eta bideoak.
- **Gemini:** Geminirekin txateatuz zenbait funtzio erabiltzeko, hala nola informazioa bilatzea, irudi pertsonalizatuak sortzea edo edukia idaztea.



Baliteke zenbait aplikazio erabilgarri ez egotea, operadorearen edo modeloaren arabera.

Ezarpenak

Sarrera

Gailuaren ezarpenak pertsonalizatzea.

Aplikazioen pantailan, sakatu Ezarpenak. Bestela, ireki ezarpen azkarren menua eta sakatu ezarpenen ikonoa (⚙️).

Ezarpenak gako-hitzen bidez bilatzeko, sakatu Bilaketa ikonoa (Q). Gomendatutako funtzio edo gai bat sakatzuz ere bila ditzakezu ezarpenak.

Atal hau Samsung gailuetako ezarpen eta funtzioei buruzko gida komuna da.

Modeloa zein den, edukia desberdina izan daiteke, edo baliteke gailuan ez dauden aukera eta funtzioen deskribapenak jasotzea hemen.



Hasi saioa Galaxy gailuan

Hasi saioa Samsung kontuan eta kudeatu gailua.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Hasi saioa Galaxy gailuan**.

Konexioak

Aukerak

Aldatu ezarpenak hainbat konexiotarako, hala nola wifia eta Bluetooth.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak**.

- **Wifia:** Piztu wifia eta konektatu wifi-sare batera, Internetarako edo bestelako sare-hornitzaile baterako sarbidea lortzeko. Informazio gehiagorako, joan [Wifia](#) atalera.
- **Bluetooth:** Erabili Bluetooth konexioa, Bluetooth duten bestelako gailuekin datuak eta multimedia fitxategiak partekatzeko. Informazio gehiagorako, joan [Bluetooth](#) atalera.
- **Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa:** Irakurri eremu hurbileko komunikazioko etiketak, produktuei buruzko informazioa lortzeko. Halaber, funtzio hau erabil dezakezu ordainketak egiteko eta garraio publikoko edo ekitaldietarako txartelak erosteko, beharrezko aplikazioa deskargatu ondoren. Informazio gehiagorako, joan [Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa](#) atalera.
- **Banda ultrazabala (UWB):** Piztu UWB funtzioa.
- **Hegaldi-modua:** Itzali haririk gabeko funtzio oro gailuan. Sarerik gabeko zerbitzuak soilik erabil ahal izango dituzu.
 - ⚠ Jarraitu beti aire-konpainiak emandako araudiari eta hegazkineko langileen jarraibideei. Gailua erabiltzea baimendua badago, erabili beti hegaldi moduan.
- **SIM kudeatzailea:** Aktibatu zure SIM edo USIM txartelak, eta pertsonalizatu SIM txartelaren ezarpenak. Informazio gehiagorako, joan [SIM kudeatzailea](#) atalera.
- **Sare mugikorrak:** Konfiguratu zure sare mugikorreko ezarpenak.

- **Datuen erabilera:** Egin jarraipena zure datuen erabilerari eta pertsonalizatu erabilera hori murrizteko ezarpenak. Konfiguratu gailua datu mugikorren konexioa automatikoki desaktibatzeke, erabilitako datu mugikorrek zuk zehaztutako mugara heltzen direnean.

Datuak aurrezteko funtzioa piztu dezakezu, bigarren mailan dabiltzan zenbait aplikaziok datuak bidali edo jaso ez ditzaten. Informazio gehiagorako, jo [Datuak aurreztea](#) atalera.

Halaber, aplikazioen ezarpenak alda ditzakezu, soilik wifiarekin edo mugikorreko datuekin, edo biek, erabil daitezen zehazteko. Informazio gehiagorako, joan [Aplikazioetarako sare baimenduak](#) atalera.

- **Sarbide-puntu mugikorra eta sarera ainguratzea:** Erabili mugikorra sarbide-puntu mugikor gisa, telefonoko datu mugikorrek beste gailu batzuekin partekatzeke. Sarbide-puntu mugikorrari buruzko informazio gehiagorako, joan [Sarbide-puntu mugikorra](#) atalera.



Funtzio hori erabiltzeak kargu gehigarriak sor ditzake.

- **Konexio-ezarpen gehiago:** Pertsonalizatu ezarpenak, beste funtzio batzuk kontrolatzeko. Informazio gehiagorako, joan [Konexio-ezarpen gehiago](#) atalera.



Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Wifia

Piztu wifia eta konektatu wifi-sare batera, Internetarako edo bestelako sare-hornitzaile baterako sarbidea lortzeko.

Wifi-sare batera konektatzea

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Wifia**, eta aktibatu funtzioa.

2 Hautatu sare bat wifi-sareen zerrendatik.

Giltzarrapoaren ikonoa duten sareetara konektatzeko, pasahitza sartzea beharrezkoa da.



- Gailua wifi-sarera konektatu ondoren, automatikoki konektatuko da berriro sare horretara erabilgarri dagoen bakoitzean, pasahitza berriro idatzi beharrik gabe. Gailua sarera automatikoki konekta dadin ekiditeko, sakatu ezarpenen ikonoa (⚙️) sarearen ondoan, eta sakatu **Automatikoki berriro konektatu**, baliabidea desaktibatzeke.
- Ezinezkoa bazaizu wifi-sare batera behar bezala konektatzea, berrabiarazi gailuko wifia edo wifiaren routerra.

Wifi-sareen pasahitza partekatzea

Wifi-sare seguru batera konektatutako pertsona bati pasahitza partekatzeko eskaera egin diezaiokezu, pasahitza sartu beharrik gabe gailua sare horretara konektatzeko. Funtzio hau erabili ahal izateko, bi gailuek kontaktuetan gordeta izan behar dute bestea, eta beste gailuko pantailak piztuta egon behar du.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Wifia**, eta aktibatu funtzioa.
- 2 Hautatu sare bat wifi-sareen zerrendatik.
- 3 Sakatu **Eskatu pasahitza**.
- 4 Onartu pasahitza partekatzeko eskaera beste gailuan.
Wifi-sarearen pasahitza gailuan sartuko da, eta sarera konektatuko da.

Wi-Fi Direct

Wi-Fi Direct funtzioari esker, gailuak zuzenean konekta daitezke elkarrekin wifi-sare baten bitartez, sarbide-punturik behar gabe.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Wifia**, eta aktibatu funtzioa.
- 2 Sakatu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Wi-Fi Direct**.
Aurkitutako gailuen zerrenda agertuko da.
Konektatu nahi duzun gailua ageri ez bada, eskatu gailuak Wi-Fi Direct funtzioa piztu dezan.
- 3 Hautatu konexioa egiteko gailua.
Beste gailuak Wi-Fi Direct funtzioa pizteko eskaera onartu ondoren, bi gailuak konektatu egingo dira.
Gailuen arteko konexioa eteteko, hautatu zerrendan gailua deskonektatzeko aukera.

Bluetooth

Erabili Bluetooth konexioa, Bluetooth duten bestelako gailuekin datuak eta multimedia fitxategiak partekatzeko.

Bluetooth erabiltzean kontuan izateko neurriak

- Samsung ez da Bluetooth bidez bidalitako edo jasotako datuak galdu, atzeman edo gaizki erabiltzearen erantzulea.
- Ziurtatu beti konfiantzazko eta behar bezala ziurtatutako gailuekin partekatzen eta jasotzen dituzula datuak. Gailuen artean oztopoak badaude, operazio-distantzia murriztu daiteke.
- Baliteke zenbait gailu, bereziki Bluetooth SIGek probatu edo onartu gabeak, bateraezinak izatea gailuarekin.
- Ez erabili Bluetooth funtzioa legez kanpoko helburuetarako (adibidez, fitxategien kopiak pirateatzea edo helburu komertzialetarako komunikazioak legez kanpo lortzea). Samsung ez da Bluetooth funtzioa legez kanpo erabiltzearen erantzulea.

Bestelako Bluetooth gailuekin parekatzea

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Bluetooth** botoiak, eta aktibatu funtzioa.

Aurkitutako gailuak zerrendan agertuko dira.

- 2 Hautatu zer gailurekin parekatu nahi duzun.

Parekatu nahi duzun gailua zerrendan ageri ez bada, aktibatu gailuan Bluetooth bidezko parekatzea. Kotsultatu beste gailuaren erabiltzaile-gida.



Zure mugikorra ikusgarri egongo da beste gailuentzat Bluetooth ezarpenen pantaila irekita dagoen bitartean.

- 3 Onartu Bluetooth konexioa zure telefonoan, parekatzea baieztatzeko.

Beste gailuak Bluetooth bidezko konexioa onartu ondoren, gailuak konektatu egingo dira.

Gailuak deskonektatzeko, sakatu Ezarpenak ikonoa (⚙️) gailuaren izenaren ondoan, eta sakatu **Desparekatu**.

Datuak bidaltzea eta jasotzea

Aplikazio askok Bluetooth bidez datuak transferitzeko aukera eskaintzen dute. Bluetooth funtzioa duten bestelako gailuekin hainbat datu mota parteka ditzakezu, hala nola kontaktuak edo multimedia-fitxategiak. Jarraian, beste gailu bati irudi bat bidaltzeko jarraibideak dituzu, adibide gisa.

- 1 Ireki **Galeria** aplikazioa eta hautatu irudi bat.
- 2 Sakatu Partekatu ikonoa (🔗) → **Bluetooth** eta hautatu zein gailuri bidali nahi diozun irudia. Konektatu nahi duzun gailua zerrendan ageri ez bada, eskatu gailuak ikusgarritasuna aktiba dezan.
- 3 Onartu Bluetooth konexiorako eskaera beste gailuan.

Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa

Mugikorrarekin, eremu hurbileko komunikazioko etiketak irakur ditzakezu, produktuei buruzko informazioa lortzeko. Halaber, funtzio hau erabil dezakezu ordainketak egiteko eta garraio publikoko edo ekitaldietarako txartelak erosteko, beharrezko aplikazioa deskargatu ondoren.

- ⚠ Gailuak eremu hurbileko komunikazioko antena bat darama barnean. Erabili gailua arretaz, eremu hurbileko komunikazioko antena ez kaltetzeko.

Eremu hurbileko komunikazioko etiketatik informazioa irakurtzea

Erabili eremu hurbileko komunikazioaren funtzioa eremu hurbileko komunikazioko etiketatik produktuen informazioa irakurtzeko.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** eta aktibatu **Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa**.
- 2 Hurbildu eremu hurbileko komunikazioko etiketa bati gailuak atzealdean daraman eremu hurbileko komunikazioko antena. Etiketaren informazioa agertuko da gailuan.

- 📄 Ziurtatu gailuaren pantaila piztuta eta desblokeatuta dagoela. Bestela, gailuak ezin izango du eremu hurbileko komunikazioko etiketarik irakurri edo daturik jaso.

Eremu hurbileko komunikazioaren funtzioarekin ordainketak egitea

Eremu hurbileko komunikazioaren funtzioa ordainketak egiteko erabili aurretik, mugikorreko ordainketa-zerbitzuan erregistratu behar duzu. Erregistratzeko edo zerbitzuari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** eta aktibatu **Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa**.

2 Jarri gailuaren atzealdeko eremu hurbileko komunikazioko antena eremu hurbileko komunikazioko txartel-irakurgailuan.

Ordainketarako aplikazio bat lehenesteko, sakatu **Konexioak** → **Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa** → **Diru-zorroko aplikazio lehenetsia** eta hautatu aplikazio bat.



- Baliteke ordainketa-zerbitzuen zerrendan ordainketarako aplikazio guztiak ez agertzea.
- Ordainketarako aplikazioa eguneratzen baduzu edo berria instalatzen baduzu, lehen erabiltzen zenituen ordainketa-zerbitzuek ez dute behar bezala funtzionatu. Hala bada, ezarpenen pantailan, hautatu **Konexioak** → **Eremu hurbileko komunikazioa eta ukipenik gabeko ordainketa** → **Diru-zorroko aplikazio lehenetsia** edo **Ordainketaz bestelako eremu hurbileko komunikazioko zerbitzuak**, eta jarraian hautatu beste aplikazio bat, eguneratutakoaren edo berriki instalatutakoaren orde. Bestela, desautatu aukeratutako aplikazioa.

Datuak aurrezte

Murritzatu datuen erabilera, bigarren mailan dabilten zenbait aplikaziok datuak bidali edo jaso ez ditzaten.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Datuen erabilera** → **Datuak aurrezte** eta aktibatu funtzioa.

Datuak aurrezteko funtzioa piztuta dagoenean, Datuak aurrezte ikonoa (🔒) egoera-barran agertuko da.



Datuak murrizketarik gabe erabil ditzaketen aplikazioak aukeratzeko, sakatu **Datuak beti erabil ditzaketen aplikazioak** eta hautatu bertan aplikazioak.

Aplikazioetarako sare baimenduak

Aplikazioek soilik wifi-zerbitzua edo datu mugikorrak erabiltzea hauta dezakezu, bai eta bi funtzioak erabiltzea ere.

Adibidez, gailuan hauta dezakezu zenbait aplikaziok datu mugikorrak bakarrik erabiltzea, aplikazioren bat seguru gorde nahi baduzu, edo aplikazio bateko streaming-zerbitzua eteteko arriskua badago. Wifiaren funtzioa itzaltzen ez baduzu ere, aplikazioak datu mugikorrak erabiliz jarriko dira abian.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Datuen erabilera** → **Aplikazioetarako sare baimenduak**. Hautatu aplikazio bat zerrendatik, eta hautatu sareko aukeretako bat.



Datu mugikorrak erabiltzeak kargu gehigarriak sor ditzake.

Sarbide-puntu mugikorra

Erabili mugikorra sarbide-puntu mugikor gisa, zure telefonoko datu mugikorrak beste gailu batzuekin partekatzeko.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Sarbide-puntu mugikorra eta sarera ainguratzea** → **Sarbide-puntu mugikorra**.

2 Aktibatu funtzioa.

Sarearen izena, pasahitza eta abar alda ditzakezu.

Sarbide-puntuaren ikonoa () egoera-barran agertuko da.

3 Beste gailuaren pantailan, bilatu eta hautatu zure mugikorra wifi-sareen zerrendan.

Bestela, sakatu **QR kodea** sarbide-puntu mugikorraren pantailan eta eskaneatu QR kodea beste gailuarekin.



- Sarbide-puntu mugikorra agertzen ez bada, gailuko ezarpenetan, ezarri **Banda 2.4 GHz**-etara, sakatu **Aurreratua**, eta jarraian aktibatu **Ezkutatutako sarea**.
- **Sarbide-puntu automatikoa** funtzioa piztuz gero, gailuko datu mugikorrak parteka ditzakezu, zure Samsung kontuan saioa hasitako bestelako gailuekin.

Konexio-ezarpen gehiago

Pertsonalizatu ezarpenak, bestelako konexio-funtzioak kontrolatzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Konexio-ezarpen gehiago**.

- **Inguruko gailuak eskaneatzea**: Bilatu zure mugikorrean zein beste gailu dituzun inguruan, haiekin konektatzeko.
- **Inprimaketa**: Konfiguratu gailuan instalatutako inprimagailu-pluginen ezarpenak. Erabilgarri dauden inprimagailuak bila ditzakezu, edo bat eskuz gehitu, fitxategiak inprimatzeko. Informazio gehiagorako, joan [Inprimaketa](#) atalera.
- **VPN**: Instalatu sare pribatu birtualak (VPN) gailuan, ikastetxe edo enpresa baten sare pribatura konektatzeko.
- **DNS pribatua**: Segurtasun indarturako, erabili DNS pribatua gailuan.
- **Ethernet**: Ethernet-egokigailu bat konektatzen duzunean, kable bidezko sarea erabil dezakezu, bai eta sareen ezarpenak konfiguratu ere.
- **Sistemaren ezarpenak automatikoki eguneratzea**: Baimendu ezarpenak automatikoki aldatzea, sare-konexioen funtzioek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

Inprimaketa

Konfiguratu gailuan instalatutako inprimagailu-pluginen ezarpenak. Gailua eta inprimagailua wifi edo Wi-Fi Direct bidez konekta ditzakezu, irudiak edo dokumentuak inprimatzeko.



Baliteke zenbait inprimagailu ez izatea bateragarriak gailuarekin.

Inprimaketa-pluginak gehitzea

Gehitu inprimaketa-pluginak gailuarekin konektatu nahi dituzun inprimagailuentzat.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Konexio ezarpen gehiago** → **Inprimaketa** → **Deskargatu plugina**.
- 2 Hautatu inprimagailu-plugina eta instalatu.
- 3 Hautatu instalatutako inprimagailu-plugina.
Gailuak automatikoki bilatuko ditu wifi-sare berera konektatutako inprimagailuak.
- 4 Hautatu zein inprimagailu gehitu nahi duzun.



Inprimagailuak eskuz gehitzeko, sakatu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Gehitu inprimagailua**.

Edukia inprimatzea

Edukia bistaratuta duzunean, hala nola irudiak edo dokumentuak, joan aukeren zerrendara, sakatu **Inprimatu** → zabalgarriaren ikonoa (▼) → **Inprimagailu guztiak...**, eta jarraian hautatu inprimagailua.



Edukiaren arabera, baliteke inprimatzeko metodoa aldatzea.

Konektatutako gailuak

Aldatu gailuen konexiorako ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konektatutako gailuak**.

- **Quick Share:** Aldatu Quick Share funtzioaren ezarpenak. Informazio gehiagorako, joan [Quick Share](#) atalera.
- **Music Share:** Aldatu Music Share funtzioaren ezarpenak. Informazio gehiagorako, joan [Musika partekatzea \(SM-A165F\)](#) atalera.
- **Buds entzungailuak automatikoki trukatzeari:** Aldatu Galaxy Buds entzungailuen konexioa bestelako gailu batetik zure mugikorrera, dei bat egin edo jasotzen duzunean, multimedia erreproduzitzen duzunean eta abar. Funtzio hau erabiltzeko, beharrezkoa da beste gailutik ere Samsung kontuan saioa hasita izatea eta Galaxy Budsak erabiltzen aritzea.
- **Deiak eta mezuak beste gailuetan:** Konektatu zure tableta eta mugikorra, zure telefono zenbakiarekin tabletatik deiak egiteko eta mezuak bidaltzeko. Beharrezkoa da tabletan zein mugikorrean Samsung kontua erregistratzea eta saioa hasita izatea. Baliteke deien eta mezuen zenbait funtzio erabilgarri ez egotea.
- **Jarraitu beste gailuetan:** Erabili zure mugikorreko aplikazioak eta funtzioak Samsung kontura lotutako beste gailuetan.
- **Multikontrola:** Erabili Samsung ordenagailu bateko sagua eta teklatura zure mugikorrean, funtzioa erabil badezake.
- **Smart View:** Gailuan ikusten den edukia pantaila handi batean ikus dezakezu pantaila erakustea onartzen duen telebista edo monitore batera konektatzen duzunean telefonoa. Informazio gehiagorako, joan [Smart View](#) atalera.
- **Galaxy Jargarriak:** Zure telefonoa gailu jargarriara konektatzen duzunean, gailu jargarriaren konfigurazioa eta aplikazioak pertsonalizatu ahal izango dituzu. Informazio gehiagorako, joan [Galaxy Jargarriak](#) atalera.
- **SmartThings:** Gailu adimendunak eta gauzen Interneteko produktuak (IoT) kontrolatzea eta kudeatzea. Informazio gehiagorako, joan [SmartThings](#) atalera.
- **Android Auto:** Konektatu gailua ibilgailu batera, eta kontrolatu gailuko zenbait funtzio ibilgailuko pantailatik.



Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Moduak eta errutinak

Moduak erabiltzea

Gehitu modu bat zure jardueraren edo kokapenaren arabera. Gailuko ezarpenak aldatu egingo dira, jarduera edo egoerarekin bat etortzeko. Modua ezarpen azkarren paneletik piztu edo itzal dezakezu.

Moduak gehitzea

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Moduak eta errutinak** → **Moduak**.
- 2 Hautatu nahi duzun modua, edo sakatu **Gehitu modua** zeure modu propioak gehitzeko.

Moduak abian jartzea

Moduak automatikoki jarriko dira abian, horiek aktibatzeko baldintzak detektatutakoan. Hala nahi izanez gero, eskuz jar ditzakezu abian, botoia nahi duzunean sakatuta.

Moduak eskuz abian jartzeko, hautatu nahi duzun modua eta sakatu **Piztu**.

Abian dagoen modu bat itzaltzeko, hautatu modua eta sakatu **Itzali**.

Bestela, ireki ezarpen azkarren panela, sakatu **Moduak**, eta hautatu modu bat, pizteko. Modua itzaltzeko, sakatu modua ezarpen azkarren panelean.

Errutinak erabiltzea

Automatizatu zure eguneroko zeregin errepikakorak. Adibidez, zure kokapenaren arabera soinu-ezarpenak automatikoki alda ditzakezu, gailuko ezarpenak jokorako optimiza ditzakezu, eta abar.

Errutinak gehitzea

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Moduak eta errutinak** → **Errutinak**.
- 2 Sakatu Sortu ikonoa (+) eta gehitu zure errutina propioak, edo sakatu **Deskubritu** eta hautatu nahi duzun errutina.
Errutina eskuz jarri nahi baduzu abian, sakatu **Eskuz abiarazi**. Errutina abian jartzeko baldintzak ezarri gabe daudenean bakarrik agertuko da aukera hori.

Errutinak abian jartzea

Errutinak automatikoki jarriko dira abian, horiek aktibatzeke baldintzak detektatutakoan. Zenbait errutinentzat **Eskuz abiarazi** baldintza ezarri baduzu, eskuz jar ditzakezu abian, nahi duzunean botoia sakatuz.

Errutinak eskuz abian jartzeko, sakatu Hasi ikonoa (▶) abiarazi nahi duzun errutinaren ondoan. Widget bat erabili nahi baduzu, hautatu errutina bat **Eskuzko errutinak** atalean, eta sakatu **Gehiago → Widget gisa ezarri → Gehitu**. Errutina widget gisa gehituko da gailuaren hasierako pantailan, eta widgeta sakatutakoan, errutina abian jarriko duzu.

Errutinak eteteko, sakatu Errutina-zerrenda ikonoa (⏏), hautatu errutina **Abian** atalean, eta ondoren sakatu **Gelditu**, edo sakatu errutinaren widgeta hasierako pantailan.

Soinuak eta bibrazioa

Aukerak

Aldatu gailuko hainbat soinuren ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Soinuak eta bibrazioa**.

- **Soinua / Bibrazioa / Isila:** Jarri gailua soinu-moduan, bibrazio-moduan edo modu isilean.
- **Bibrazioa hots egitean:** Jarri gailua bibrazioan eta jo dei-hotsa, deiak sartzen direnean.
- **Aldi baterako isildu:** Ezarri modu isila gailuan, aldi jakin baterako.
- **Dei-hotsa:** Aldatu dei-hotsa.
- **Jakinarazpenen hotsa:** Aldatu jakinarazpenen hotsa.
- **Sistemaren soinua:** Aldatu zenbait ekintzaren soinua, hala nola gailua kargatzen jartzekoa.
- **Bolumena:** Egokitu gailuaren bolumena.
- **Deien bibrazioa:** Aldatu deien bibrazioaren ezarpenak.
- **Jakinarazpenen bibrazioa:** Aldatu jakinarazpenen bibrazioaren ezarpenak.
- **Sistemaren bibrazioa:** Hautatu zein ekintzetan bibratuko duen gailuak, eta egokitu bibrazioaren indarra.

- **Bibrazioaren indarra:** Egokitu jakinarazpenetarako bibrazioaren indarra.
- **Soinuaren kalitatea eta efektuak:** Konfiguratu gailuaren soinuaren kalitatea eta efektuak. Informazio gehiagorako, joan [Soinuaren kalitatea eta efektuak](#) atalera.
- **Aplikazioetako soinua bereiz erreproduzitzea:** Erreproduzitu gailuko aplikazio jakin baten soinua beste soinu-gailu batean. Informazio gehiagorako, joan [Aplikazioetako soinua bereiz erreproduzitzea](#) atalera.



Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Soinuaren kalitatea eta efektuak

Konfiguratu gailuaren soinuaren kalitatea eta efektuak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Soinuak eta bibrazioa** → **Soinuaren kalitatea eta efektuak**.

- **Dolby Atmos:** Hautatu soinu inguratzaile optimizatua hainbat audio motatarako, hala nola filmetarako, musikarako eta ahotserako. Dolby Atmosekin, soinua zure inguruan dabilela sentituko duzu.
- **Ekualizatzailea:** Aldatu soinuaren profila eta gozatu soinu optimizatuaz.
- **Soinu ozenak normalizatzea:** Murritzitu edukiaren bolumen-aldeak. Gailuak automatikoki igoko du bolumen txikiko edukiaren bolumena.
- **Aplikazioetako soinuaren ezarpenak:** Egiaztatu eta kudeatu multimedia aplikazio bakoitzerako gorde duzun soinu-konfigurazio optimizatua. Aplikazio bakoitzaren soinu ezarpenak egokitzeko, aplikazioa abian dela, ireki ezarpen azkarren panela, ukitu eta mantendu bolumena doitzeko barra, eta gero aldatu ezarpenak. Aplikazioa abian jartzen duzun hurrengoan, ezarpen berberak aplikatuko dira.
- **Soinua egokitzea:** Hautatu gehien egokitzen zaizun soinua.



Modeloaren arabera, beharrezkoa izango da entzungailuak konektatzea zenbait funtzio erabiltzeko.

Aplikazioetako soinua bereiz erreproduzitzea

Erreproduzitu gailuko aplikazio jakin baten multimedia soinua Bluetooth bidez konektatutako bozgorailu edo entzungailu batean.

Adibidez, Nabigazioa aplikazioko soinua entzun dezakezu gailuko bozgorailutik, eta bitartean Musika aplikazioko soinua ibilgailuko Bluetooth bozgorailutik.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Soinuak eta bibrazioa** → **Aplikazioetako soinua bereiz erreproduzitzea** eta aktibatu funtzioa.
- 2 Hautatu zer aplikazioko multimedia soinua entzungo den beste gailuan eta sakatu Atzera botoia (<).
- 3 Hautatu zer gailutan erreproduzituko den hautatutako aplikazioaren multimedia-soinua.

Jakinarazpenak

Aldatu jakinarazpenen ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Jakinarazpenak**.

- **Aplikazioen jakinarazpenak:** Hautatu zein aplikazioaren jakinarazpenak jaso nahi dituzun.
- **Blokeatutako pantailako jakinarazpenak:** Hautatu nola agertuko diren jakinarazpenak blokeatutako pantailan.
- **Egoera-barra:** Hautatu nola bistaratuko diren jakinarazpenen ikonoak eta bateriari geratzen zaion ehunekoa egoera-barran bistaratu edo ez.
- **Jakinarazpenen estilo gainerakorra:** Hautatu jakinarazpenen laster-estiloa eta aldatu ezarpenak.
- **Ez molestatu:** Isildu gailuko soinu oro, baimendutako salbuespenak izan ezik.
- **Ezarpen aurreratuak:** Konfiguratu jakinarazpenen ezarpen aurreratuak.

Pantaila

Aukerak

Aldatu gailua bistartzeko modua eta hasierako pantailaren ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Pantaila**.

- **Argia / Iluna:** Modu iluna piztu edo itzali.
- **Modu ilunaren ezarpenak:** Gailua gauean edo leku ilunen batean erabili behar baduzu, aplikatu gai iluna eta gutxiagotu ikusmen nekatua. Modu iluna aplikatzeko ordutegi bat programa dezakezu.
 Baliteke gai iluna ezin aplikatzea aplikazio batzuetan.
- **Distira:** Egokitu pantailaren distira.
- **Distira moldakorra:** Agindu gailuari zure distira-ezarpenak gogoratzeko, eta aplikatu ezarpenak automatikoki antzeko argitasun-baldintzetan.
- **Mugimendu-leuntasuna:** Aldatu pantailaren freskatze-tasa. Freskatze-tasa altua bada, pantaila leunago joango da. Informazio gehiagorako, joan [Mugimendu-leuntasuna](#) atalera.
- **Ikusmena babestea:** Mugatu pantailak igortzen duen argi urdina, eta gutxiagotu ikusmen nekatua. Funtzio hau aplikatzeko ordutegia ezar dezakezu.
- **Pantaila-modua:** Aldatu pantaila-modua, pantaila bistartzeko kolorea eta kontrastea doitzeko. Informazio gehiagorako, joan [Pantaila-modua aldatzea edo bistartzeko kolorea egokitzea](#) atalera.
- **Letraren tamaina eta estiloa:** Aldatu letraren tamaina eta estiloa.
- **Pantailako zooma:** Handitu edo txikitu pantailako informazioa.
- **Kameraren irekidura:** Ezkutatu aurreko kamera pantailatik gailuan.
- **Pantailaren itxaronaldia:** Zehaztu zenbat denbora itxaron behar duen gailuak pantailaren argia itzali aurretik.
- **Modu erraza:** Aldatu modu errazera, ikonoak handiago bistartzeko eta hasierako pantailaren diseinua sinpleagoa izateko.
- **Albo-panelak:** Aldatu albo-panelaren ezarpenak.
- **Nabigazio-barra:** Aldatu nabigazio-barraren ezarpenak. Informazio gehiagorako, joan [Nabigazio-barra \(ukipen-botoiak\)](#) atalera.

- **Nahigabe ukitzearen babesa:** Agindu gailuari ez dezan pantaila ukitu dela antzeman, leku ilun batean badago, hala nola poltsikoan edo poltsa batean.
- **Ukipenaren sentiberatasuna:** Igo pantailaren ukipen-sentiberatasuna, pantaila babesteko geruzak erabiltzeko.
- **Karga-informazioa erakustea:** Bistaratu gailuan karga-informazioa, hala nola bateriak duen ehunekoa, pantaila itzalita dagoenean.
- **Pantaila-babeslea:** Bistaratu pantaila-babeslea, gailua kargatzen ari denean.



Baliteke funtzio batzuk ez egotea erabilgarri, modeloaren arabera.

Mugimendu-leuntasuna

Freskatze-tasak adierazten du segundoero zenbat aldiz freskatzen den pantaila. Erabili freskatze-tasa altua pantailak aldatzean argiak dar-dar egiten badu. Pantaila leunago mugituko da. Ohiko freskatze-tasa hautatuz gero, bateriak gehiago iraungo du.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pantaila → Mugikortasun-leuntasuna**.

2 Hautatu freskatze-tasa.

- **Altua:** Freskatze-tasa altua hautatuz gero, animazioak eta pantaila leunago mugituko dira.
- **Estandarra:** Erabili freskatze-tasa estandarra egoera arruntetan, bateria gordetzeko.

Pantaila-modua aldatzea edo bistaratzeko kolorea egokitzea

Aldatu pantaila-modua edo egokitu kolorea zure nahierara.

Pantaila-modua aldatzea

Ezarpenen pantailan, sakatu **Pantaila** → **Pantaila-modua** eta hautatu nahi duzun modua.

- **Bizia:** Aukera horrek zure pantailaren kolore-gama, asetasuna eta zorroztasuna optimizatzen ditu. Pantailako kolorearen oreka kolorearen balioaren arabera ere doitu daiteke.
- **Naturala:** Aukera horrek pantaila tonu naturalagora egokitzen du.



- Pantailaren kolorea modu **bizian** bakarrik alda daiteke.
- Baliteke modu **bizia** bateragarria ez izatea hirugarrenen aplikazioekin.

Pantailaren kolore-oreka guztiz optimizatzea

Optimizatu pantailaren kolorea, kolorearen tonuak zure nahierara egokituz.

Ezarpenen pantailan, hautatu **Pantaila** → **Pantaila-modua** → **Bizia** eta egokitu kolorearen ezarpenak **Zurien oreka** ataleko barrarekin.

Kolorea egokitzeko barra **Hotza** aldera eramanez gero, pantailaren tonu urdina indartuko da. Barra **Beroa** aldera eramanez gero, tonu gorria indartuko da.

Pantaila-tonua kolore-balioaren arabera egokitzea

Areagotu edo minimizatu zenbait kolore-tonu, balio gorria, berdea edo urdina banaka doitzuz.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pantaila** → **Pantaila-modua** → **Bizia**.
- 2 Sakatu **Ezarpen aurreratuak**.
- 3 Egokitu **R** (gorria), **G** (berdea) edo **B** (urdina) barra zure nahierara. Pantailako tonua egokitu egingo da. Bizitasun maila egokitzeko, mugitu **Bizitasuna** barra.

Bateria

Begiratu zenbat bateria gelditzen den eta zenbat denboraz erabili ahal izango duzun gailua. Gailuak bateria gutxi badu, bateria mantentzeko, piztu bateria aurrezteko modua.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Bateria**.

- **Bateria aurreztea:** Piztu bateria aurrezteko funtzioa bateriaren erabilera luzatzeko.
- **Bigarren mailako erabilera mugatzea:** Mugatu normalean erabiltzen ez dituzun aplikazioen bateria-erabilera.
- **Bateria babestea:** Agindu gailuari bateria kargatzeari uzteko bateria erabat beteta dagoenean edo mugatu gehienezko karga aldeztetik ezarritako mailara.
- **Gaur:** Begiratu bateriaren maila eta erabilera-historia.
- **Karga-ezarpenak:** Konfiguratu karga-ezarpenak.
- **Pantaila automatikoki ahuldu:** Ahuldu pantailaren argia bateriaren ehunekoa maila jakin batetik behera jaisten denean.
- **Erakutsi bateriaren ehunekoa:** Bistaratu bateriaren ehunekoa egoera-barran.
- **Bateriaren informazioa:** Begiratu bateriari buruzko informazioa.



- Geratzen den erabilera-denborak erakusten du zenbat denbora geratzen den bateria agortzeko. Geratzen den erabilera-denbora aldatu egin daiteke gailuaren konfigurazioaren eta funtzionamenduaren arabera.
- Baliteke energia aurrezteko modua erabiltzen duten aplikazio batzuen jakinarazpenak ez jasotzea.
- Begiratu atal honetan bateriari buruzko honako informazio hau. Eskura dagoen informazioa aldatu egin daiteke eskualdearen edo zerbitzu-emailaren arabera.
 - Bateriaren fabrikazio-data
 - Lehen erabileraren data
 - Karga osoko/deskargako zikloen kopurua (edukiera izendatuaren arabera)
 - Osasun-egoera neurtua

Horma-papera eta estiloa

Aldatu horma-paperaren ezarpenak hasierako pantailarako eta blokeatutako pantailarako.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Horma-papera eta estiloa**.

Gaiak

Aplikatu hainbat gai gailuari hasierako pantailako ikusizko elementuak, blokeatutako pantaila eta ikonoak aldatzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Gaiak**.

Hasierako pantaila

Konfiguratu hasierako pantailako ezarpenak, hala nola pantailaren diseinua.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Hasierako pantaila**.

Blokeatutako pantaila

Aukerak

Aldatu blokeatutako pantailaren ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Blokeatutako pantaila**.

- **Pantaila-blokeoa eta biometria:** Aldatu pantaila blokeatzeko metodoa.
- **Desblokeoa luzatzea:** Agindu gailuari automatikoki desblokeatzeko, kokapen edo gailu fidagarriak detektatzean. Informazio gehiagorako, joan [Desblokeoa luzatzea](#) atalera.
- **Blokeatze seguruko ezarpenak:** Aldatu pantaila-blokeoaren ezarpenak hautatutako blokeo-metodora.
- **Now barra:** Hautatu zer item agertuko diren blokeatutako pantailan.
- **Ukitu eta mantendu editatzeko:** Agindu gailuari ediziorako aukerak bistartzeko blokeatutako pantaila ukitu eta mantentzen duzunean.
- **Roaming erlojua:** Aldatu erlojua eta ikusi blokeatutako pantailan bertako ordua zein etxekoa, etxetik kanpo zabiltzanean.
- **Harremanetarako informazioa:** Bistaratu blokeatutako pantailan harremanetarako informazioa, hala nola zure helbide elektronikoa.
- **Bistaratu desblokeatzeko trantsizio-efektua:** Bistaratu desblokeatzeko trantsizio-efektua datu biometrikoekin pantaila desblokeatzean.
- **Blokeatutako pantailari buruz:** Ikusi blokeatutako pantailaren bertsioa eta legezko informazioa.



- Telefono-konpainiaren edo modeloaren arabera, baliteke zenbait funtzio ez egotea eskuragarri.
- Eskura dauden aukerak aldatu egin daitezke hautatutako pantaila blokeatzeko metodoaren arabera.

Desblokeoa luzatzea

Gailua automatikoki desblokeatu eta desblokeatuta mantendu, kokapen edo gailu fidagarriak detektatzean. Adibidez, etxea kokapen fidagarritzat gorde baduzu, etxera heltzean gailuak kokapena detektatu eta automatikoki desblokeatuko da.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Blokeatutako pantaila** → **Desblokeoa luzatzea** eta jarraitu pantailako jarraibideei funtzioa ezartzeko.



- Funtzio hau erabilgarri izango duzu pantaila blokeatzeko metodo bat hautatu ondoren.
- Gailua lau orduz erabiltzen ez baduzu, edo gailua pizten duzunean, pantaila desblokeatzeko hautatutako patroia, PINa edo pasahitza sartu beharko duzu.

Segurtasuna eta pribatutasuna

Aukerak

Egiaztatu gailuaren segurtasun eta pribatutasun egoera eta aldatu ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna**.

- **Blokeatutako pantaila:** Aldatu blokeatutako pantailaren ezarpenak.
- **Kontuaren segurtasuna:** Aldatu zure kontuen ezarpenak.
- **Galdutako gailua babestea:** Piztu edo itzali Bilatu nire mugikorra funtzioa. Sartu smarththingsfind.samsung.com webgunean galdutako edo ostutako mugikorra jarraitzeko eta kontrolatzeko. Soinean eramateko gailuen kokapena ere bila dezakezu, mugikor honi konektatuta badaude.
- **Aplikazioen segurtasuna:** Eskaneatu aplikazioak eta babestu gailua software maltzurretatik.
- **Eguneratzeak:** Egiaztatu gailuaren softwarearen bertsioa eta bilatu eguneratzeak.
- **Pantaila-blokeoa eta biometria:** Aldatu blokeatutako pantailaren eta datu biometrikoen ezarpenak. Informazio gehiagorako, joan [Aurpegia ezagutzea](#) eta [Hatz-marka ezagutzea](#) ataletara.
- **Blokeatzaile automatikoa:** Blokeatu mehatxuak eta bestelako jardura susmagarriak, eta babestu gailua.
- **Gailuen segurtasun-egoera:** Egiaztatu zure Samsung kontura lotutako gailuen segurtasun-egoera.
- **Segurtasun-ezarpen gehiago:** Konfiguratu segurtasun-ezarpen gehigarriak. Informazio gehiagorako, joan [Wifi segurua](#), [Karpeta segurua](#) eta [Samsung Pass](#) ataletara.

- **Azken 24 orduetan erabilitako baimenak:** Kontsultatu aplikazio edo funtzio baten erabilera-baimenen historia.
- **Interneteko pribatutasunaren babesak:** Begiratu Interneteko pribatutasunaren babesaren historia eta aldatu ezarpenak. Funtzio hori gehitzeko, **Samsung Internet** aplikazioa erabili behar duzu.
- **Kontrolak eta alertak:** Kontrolatu funtzioetarako sarbidea (tartean, mikrofonorako eta arbelerako sarbidea).
- **Pribatutasun-ezarpen gehiago:** Konfiguratu pribatutasun-ezarpen gehigarriak.



Telefono-konpainiaren edo modeloaren arabera, baliteke zenbait funtzio ez egotea eskuragarri.

Aurpegia ezagutzea

Gailuak zure aurpegia ezagutzean pantaila desblokeatzea hauta dezakezu.



- Zure aurpegia pantaila blokeatzeko metodo gisa erabiltzen baduzu, ezin izango duzu aurpegia erabili gailua piztu ondoren lehen aldiz pantaila desblokeatzeko. Gailua erabiltzeko, aurpegia erregistratzeko erabili zenuen patroia, PINa edo pasahitza erabili beharko duzu lehenik, pantaila desblokeatzeko. Ez ahaztu zure patroia, PINa edo pasahitza.
- Pantaila blokeatzeko metodoa **Hatza pasatu** edo **Bat ere ez** aukeretara aldatzen baduzu, seguruak ez direnez, zure datu biometriko guztiak ezabatu egingo dira.

! Aurpegia ezagutzeko funtzioa erabiltzerakoan kontuan izateko neurriak

Gailua desblokeatzeko aurpegia ezagutzea erabili aurretik, gogoan izan honako kontu hauek:

- Baliteke zure antza duen norbaitek edo zerbaitek gailua desblokeatu ahal izatea.
- Aurpegia ezagutzea ez da patroia, PINa edo pasahitza erabiltzea bezain segurua.

Aurpegia hobeto ezagutzeko

Aurpegia ezagutzeko funtzioa erabiltzean, kontuan izan honako puntu hauek:

- Kontuan izan zer baldintzetan ari zaren aurpegia erregistratzen, hala nola betaurrekoak, kapelak edo musukoak jantzita eramatea, bizarra izatea, edo oso makillatuta egotea
- Aurpegia erregistratzean, ziurtatu ondo argizatutako leku batean zaudela eta kameraren lentea garbi dagoela
- Eraitza hobeak lortzeko, ziurtatu zure aurpegia ez dela lausotuta ikusten

Aurpegia erregistratzea

Aurpegia hobeto erregistratzeko, erregistratu zure aurpegia barrualdean eta eguzki-argi zuzenetik kanpo.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Pantaila-blokeoa eta biometria** → **Aurpegia ezagutzea**.

2 Hautatu pantaila blokeatzeko metodoa.

3 Irakurri pantailan agertzen diren jarraibideak eta sakatu **Aurrera**.

4 Sakatu **Erregistratu** eta kokatu zure aurpegia pantailan ageri den markoaren barruan.
Kamerak zure aurpegia eskaneatuko du.



- Pantaila zure aurpegiarekin desblokeatzeko arazoak badituzu, sakatu **Ezabatu aurpegiaren datuak** erregistratutako aurpegia ezabatzeko, eta berriro erregistratu zure aurpegia.
- Aurpegia ezagutzea hobetzeko, sakatu **Gehitu ordezkotxura aurpegia ezagutzea areagotzeko** eta gehitu ordezkotxura bat.

Pantaila zure aurpegiarekin desblokeatzea

Pantaila desblokeatzeko, zure aurpegia erabil dezakezu, patroia, PIN edo pasahitzaren ordezkotxura.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Pantaila-blokeoa eta biometria**.

2 Desblokeatu pantaila aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoarekin.

3 Sakatu **Aurpegia ezagutzea** eta sakatu **Aurpegiaren bidez desblokeatu**, funtzioa pizteko.

4 Pantaila blokeatuta dagoenean, begiratu pantailari.

Gailuak zure aurpegia ezagutzean, pantaila desblokeatu ahal izango duzu, pantaila blokeatzeko bestelako metodorik erabili behar gabe. Gailuak ez badu zure aurpegia ezagutzen, erabili aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoa.

Erregistratutako aurpegiaren datuak ezabatzea

Aurretiaz erregistratu duzun aurpegiaren datuak ezaba ditzakezu.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Pantaila-blokeoa eta biometria**.

2 Desblokeatu pantaila aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoarekin.

3 Sakatu **Aurpegia ezabatzea** → **Ezabatu aurpegiko datuak** → **Ezabatu**.

Erregistratutako aurpegia ezabatutakoan, horri lotutako gainerako funtzioak ere desaktibatu egingo dira.

Hatz-marka ezagutzea

Hatz-marka ezagutzeko funtzioa erabiltzeko, zure hatz-markaren informazioa erregistratu eta gailuan gorde behar duzu.



- Baliteke funtzio hau ez egotea erabilgarri operadore batzuekin edo modelo batzuetan.
- Hatz-marka ezagutzeko funtzioak hatz-marka bakoitzaren funtzio bereziak erabiltzen ditu, gailuaren segurtasuna indartzeko. Oso ezohikoa da hatz-marken sentsoareak bi hatz-marka desberdin nahastea. Hala ere, hatz-aztarna bereziak oso antzekoak diren kasu bakanetan, baliteke sentsoareak berdinak direla pentsatzea.
- Hatz-marka pantaila blokeatzeko metodo gisa erabiltzen baduzu, ezin izango duzu hatz-marka erabili gailua piztu ondoren lehen aldiz pantaila desblokeatzeko. Gailua erabiltzeko, hatz-marka erregistratzeko erabili zenuen patroia, PINa edo pasahitza erabili beharko duzu lehenik, pantaila desblokeatzeko. Ez ahaztu zure patroia, PINa edo pasahitza.
- Gailuak hatz-marka ezagutzen ez badu, desblokeatu gailua hatz-marka erregistratzeko erabili zenuen patroia, PIN edo pasahitzarekin, eta jarraian berriro erregistratu zure hatz-markak. Patroia, PINa edo pasahitza ahaztuz gero, ezin izango duzu gailua erabili, berrezarri ezean. Samsungek ez du bere gain hartzen desblokeatzeko kode ahaztuek eragindako datu-galeren edo eragozpenen erantzukizuna.
- Pantaila blokeatzeko metodoa **Hatza pasatu** edo **Bat ere ez** aukeretara aldatzen baduzu, seguruak ez direnez, zure datu biometriko guztiak ezabatu egingo dira.

Hatz-marka hobeto ezagutzeko

Zure hatz-markak gailuan eskaneatzen dituzunean, kontuan izan honako baldintza hauek funtzioan eragina izan dezaketela:

- Baliteke gailuak ezin ezagutzea zimurrak edo orbanak dituzten hatz-markak.
- Baliteke gailuak ezin ezagutzea hatz txiki edo estuetako hatz-markak.
- Funtzioaren errendimendua hobetzeko, gailuan zereginak egiteko gehien erabiltzen dituzun hatz-markak erregistratu.
- Alboko botoiak hatz-marka ezagutzeko sentsoarea du. Ziurtatu hatz-marken sentsoarea ez dagoela urratuta edo hondatuta metalezko objektuen ondorioz, hala nola txanpon, giltza eta lepokoen ondorioz.

- Hatz-marken sentsorea osagarriekin estaltzeak, hala nola eranskailuekin, ondo ezagututako hatz-marken tasa murriz dezake.
- Ziurtatu hatz-marken sentsorea eta zure hatzak garbi eta lehor daudela.
- Hatza tolesten baduzu edo hatzaren punta erabiltzen baduzu, baliteke gailuak ez ezagutzea zure hatz-markak. Guztiz estali hatzarekin hatz-marken sentsorea.
- Ingurune lehorretan, elektrizitate estatikoa pila daiteke gailuan. Ahal dela, ez erabili funtzio hau ingurune lehorretan; bestela, funtzioa erabili aurretik, kendu gailuaren elektrizitate estatikoa, objektu metaliko bat ukituz.

Hatz-markak erregistratzea

Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna → Pantaila-blokeoa eta biometria → Hatz-markak** eta jarraitu pantailako jarraibideei, zure hatz-marka erregistratzeko. Hatz-marka erregistratu ondoren, ondo erregistratu ote den eta zer izen duen begiratu dezakezu; horretarako, sakatu **Kontsultatu gehitutako hatz-markak**.

Pantaila zure hatz-markekin desblokeatzea

Pantaila desblokeatzeko, zure hatz-marka erabil dezakezu, patroji, PIN edo pasahitzaren ordez.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna → Pantaila-blokeoa eta biometria**.
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoarekin.
- 3 Sakatu **Hatz-markak** eta aktibatu **Hatz-markaren bidez desblokeatu** funtzioa.
- 4 Pantaila blokeatuta dagoenean, jarri zure hatza hatz-marken sentsorearen gainean, eta eskaneatu hatz-marka.

Pantaila itzalita dagoela hatz-marka ezagutzea

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna → Pantaila-blokeoa eta biometria**.
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoarekin.
- 3 Sakatu **Hatz-markak** eta aktibatu **Hatz-marka une oro ezagutu** funtzioa.

Erregistratutako hatz-markak ezabatzea

Erregistratutako hatz-markak ezaba ditzakezu.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Pantaila-blokeoa eta biometria**.
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoarekin.
- 3 Sakatu **Hatz-markak**, hautatu zein ezabatu nahi duzun, eta sakatu **Ezabatu**.

Wifi segurua

Wifi seguruaren funtzioa wifi bidezko sare-konexioa babesten duen zerbitzua da. Datuak zifratzen ditu wifi-sareen bidez, eta aplikazio eta webgune aztarnariak desaktibatzen ditu, wifi-sareak segurtasunez erabili ahal ditzazun. Adibidez, toki publikoetan, hala nola kafetegietan edo aireportuetan, wifi-sare ez-seguru bat erabiltzean, wifi segurua automatikoki pizten da inork ezin dezan zure saio-hasieretako informazioa hakeatu edo aplikazioetan edo webguneetan zure jarduera monitorizatu.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Segurtasun-ezarpen gehiago** → **Wifi segurua**, eta jarraitu pantailako jarraibideei funtzioa aktibatzeko. **Babes-jarduera** sakatuz gero, wifi seguruak zure sarea nola eta noiz babestu duen ikus dezakezu.

Wifi segurua piztuta dagoenean, VPN ikonoa (🔒) egoera-barran agertuko da.



- Funtzio hori erabiliz gero, baliteke wifi-sarearen abiadura motelagoa izatea.
- Wifi-sarearen, telefono-konpainiaren edo modeloaren arabera, baliteke funtzio hau ez egotea eskuragarri.

Wifi segurua erabiliz zer aplikazio babestuko diren hautatzea

Hautatu zer aplikazio babestu nahi dituzun wifi seguruarekin, zure datuak babesteko, hala nola zure pasahitza edo aplikazioen erabilera, bestelakoek eskura ez ditzaten.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Segurtasun-ezarpen gehiago** → **Wifi segurua** → Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak** → **Babestutako aplikazioak** eta sakatu wifi segurua erabiliz babestu nahi dituzun aplikazioen etengailuak.



- Baliteke aplikazio batzuk funtzio honekin bateragarriak ez izatea.

Babes-plana erostea

Wifi-sareak babesteko doako plan bat duzu hilero. Ordainpeko babes-planak ere eros ditzakezu, eta banda-zabaleraren mugarik gabeko babesa izan denbora mugatuan.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Segurtasun-ezarpen gehiago** → **Wifi segurua**.
- 2 Sakatu **Babes-plana** → **Hobekuntzak** eta hautatu zer plan nahi duzun.
-  Zenbait babes-planek aukera ematen dizute babes-plana Samsung kontura lotutako beste gailu batera aldatzeko.
- 3 Jarraitu pantailako jarraibideei erosketa burutzeko.

Karpeta segurua

Karpeta seguruak zure eduki pribatua eta aplikazioak babesten ditu, hala nola argazkiak eta kontaktuak, beste batzuk lor ez ditzaten. Gailua desblokeatuta dagoenean ere, eduki pribatua eta aplikazioak babes ditzakezu.

-  Karpeta segurua biltegiratze eremu bereizia eta ziurtatua da. Karpeta seguruan gordetako datuak ezin dira bestelako gailuetara bidali homologatu gabeko partekatze-metodoen bidez, hala nola USB edo Wi-Fi Direct bidez. Sistema eragilea pertsonalizatzen edo softwarea aldatzen saiatuz gero, karpeta segurua automatikoki blokeatuko da eta ezin izango da bertara sartu. Karpeta seguruan datuak gorde aurretik, ziurtatu datuen kopia bat beste leku seguru batean gorde duzula.

Karpeta segurua antolatzea

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Segurtasun-ezarpen gehiago** → **Karpeta segurua**.

2 Jarraitu pantailako jarraibideei karpeta sortzeko.

Leiho gainerakor bat agertu eta karpeta seguruaren gakoa Samsungeko kontuarekin berrezarri nahi duzun galdetzen dizunean, sakatu **Baimendu**. Gakoa ahaztu baduzu, Samsung kontua erabil dezakezu berrezartzeko. Funtzio hori aktibatzen ez baduzu, gakoa ahaztu ondoren ezin izango duzu berrezarri.

Ezarpenak prest daudenean, karpeta seguruaren pantaila agertuko da, eta karpeta seguruaren aplikazioko ikonoa () aplikazioen pantailan gehituko da.



- **Karpeta seguru**a aplikazioa blokeatuta dagoenean, aurretik ezarritako blokeo-metodoa erabili beharko duzu desblokeatzeko.
- Karpeta seguruaren izena edo ikonoa aldatzeko, sakatu Aukera gehiago ikonoa () → **Pertsonalizatu**.

Karpeta seguruari automatikoki blokeatzeko baldintza ezartzea

1 Ireki **Karpeta seguru**a aplikazioa eta sakatu Aukera gehiago ikonoa () → **Ezarpenak** → **Karpeta seguru**a automatikoki blokeatu.

2 Hautatu blokeatzeko aukera bat.



Karpeta seguru eskuz blokeatzeko, sakatu Aukera gehiago ikonoa () → **Blokeatu eta irten**.

Edukia karpeta segurura eramatea

Eraman edukia, hala nola irudiak eta bideoak, karpeta segurura. Hona hemen irudi bat berezko biltegitazetik karpeta segurura eramateko adibidea.

1 Ireki **Karpeta seguru**a aplikazioa eta sakatu Aukera gehiago ikonoa () → **Gehitu fitxategiak**.

2 Sakatu **Irudiak**, markatu zer irudi eramán nahi dituzun, eta ondoren sakatu **Eginda**.

3 Sakatu **Eraman**.

Hautatutako itemak jatorrizko karpetatik ezabatu eta karpeta segurura eramango dira. Itemak kopiatzeko, sakatu **Kopiatu**.



Edukiaren arabera, baliteke edukia mugitzeko metodoa aldatzea.

Edukia karpeta segurutik mugitzea

Mugitu edukia karpeta segurutik dagokion aplikaziora, berezko biltegitratzean. Hona hemen irudi bat karpeta segurutik berezko biltegitratzera eramateko adibidea.

- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa eta sakatu **Galeria**.
- 2 Hautatu irudi bat eta sakatu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Karpeta segurutik atera**.
Hautatutako itemak **Galeria** aplikaziora joango dira, berezko biltegitratzean.

Aplikazioak gehitzea

Gehitu aplikazio bat karpeta seguruan, bertan erabiltzeko.

- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa eta sakatu Gehitu aplikazioak ikonoa (+).
- 2 Markatu gailuan instalatutako aplikazio bat edo gehiago eta sakatu **Gehitu**.

Karpeta segurutik aplikazioak kentzea

Aplikazio bat ezabatzeko, aplikazioa ukitu eta mantendu, eta sakatu **Desinstalatu**.

Kontuak gehitzea

Gehitu Samsung eta Google kontuak, edo bestelako kontuak, karpeta seguruko aplikazioekin sinkronizatzeko.

- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa eta sakatu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak** → **Kudeatu kontuak** → **Gehitu kontua**.
- 2 Hautatu kontu-zerbitzu bat.
- 3 Jarraitu pantailako jarraibideei kontua ezartzeko.

Karpeta segurua ezkutatzea

Aplikazioen pantailan karpeta segururako lasterbidea ezkuta dezakezu.

Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa, sakatu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak**, eta jarraian desaktibatu **Gehitu karpeta segurua aplikazioen pantailan** funtzioa.

Karpeta segurua berriro agertzea nahi baduzu, ireki **Ezarpenak**, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Segurtasun-ezarpen gehiago** → **Karpeta segurua**, desblokeatu pantaila aurrez ezarritako pantaila blokeatzeko metodoarekin eta, ondoren, aktibatu **Gehitu karpeta segurua aplikazioen pantailan** funtzioa.

Karpeta segurua desinstalatzea

Karpeta segurua eta bertan gordetako edukia eta aplikazioak ezaba ditzakezu.

Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa eta sakatu Aukera gehiago ikonoa (⋮) → **Ezarpenak** → **Ezarpen gehiago** → **Desinstalatu**.

Karpeta segurua desinstalatu aurretik edukiaren babeskopia egiteko, markatu **Eraman multimedia-fitxategiak karpeta segurutik kanpo** eta sakatu **Desinstalatu**. Karpeta segurutik egindako babeskopiara sartzeko, ireki **Nire fitxategiak** aplikazioa eta sakatu **Barne-biltegiratzea** → **Deskargatu** → **Karpeta segurua**.



Samsung Oharrak aplikazioan gordetako oharrak ez dira babeskopian jasoko.

Samsung Pass

Samsung Pass-ekin, egiaztatu zure nortasuna logina edo informazio pertsonala behar duten zerbitzuak erabiltzean.

Samsung Pass erregistratzea

Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta pribatutasuna** → **Segurtasun-ezarpen gehiago** → **Pasahitzak, sarbide-gakoak eta automatikoki betetzea** → **Samsung Pass**. Jarraitu pantailako jarraibideei karpeta sortzeko.

Zure informazioa Samsung Passen gordetzea

Aplikazioetan edo webguneetan saioa hasteko informazioa edo informazio pertsonala Samsung Passen gordez gero, automatikoki bete dezakezu informazioa.



Informazioa eskuz gorde edo Samsung Passen gordetako informazioa begiratu eta kudeatu dezakezu.

Saio-hasierako informazioa gordetzea

Aplikazioan edo webgunean, sartu zure identifikatzailea eta pasahitza saioa hasteko, eta jarraian sakatu saioa hasteko botoia. Leiho gainerakor bat agertuko zaizu, saioa hasteko informazioa gorde nahi duzun galdetuz; sakatu **Gorde**.

Informazio pertsonala gordetzea

Samsung Passen pantaila nagusian, hautatu aukera bat **Informazio pribatua** atalean, sartu informazioa, eta jarraian sakatu **Gorde**.

Informazioa automatikoki sartzea

Samsung Passen gordetako informazioa automatikoki sar dezakezu, hala nola saioa hasteko informazioa edo informazio pertsonala, helbidea edo ordainketa-txartelaren informazioa barne.



- Baliteke zenbait funtzio ez egotea eskuragarri zenbait aplikazio edo webguneetan.
- Webguneak automatikoki betetzeko funtzioa **Samsung Internet** aplikazioaren bidez sartutako webguneetan bakarrik dago eskuragarri.

Sarbide-gakoak erabiliz hastea saioa

Saio-hasierak sarbide-gakoekin egitea ahalbidetzen duten aplikazio edo webguneetan, Samsung Passen gordetako sarbide-gakoa erabil dezakezu saioa hasteko, saioa hasteko informazioa sartu beharrik gabe.

- 1 Sortu sarbide-gakoa erabiltzen ari zaren aplikazioan edo webgunean.
Sarbide-gakoa sortzeko metodoa desberdina izan daiteke aplikazioaren edo webgunearen arabera.
- 2 Laster-leiho bat agertuko da, sarbide-gakoa gorde nahi duzun galdetuz; hautatu Samsung Pass eta jarraitu pantailako jarraibideei sarbide-gakoa gordetzeko.
Orain Samsung Passen gordetako sarbide-gakoarekin saioa hasi ahal izango duzu.

Kokapena

Aldatu kokapenari buruzko informazioa baimentzeko ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Kokapena**.

- **Aplikazioen baimenak:** Begiratu gailuko kokapena lortzeko baimena duten aplikazioen zerrenda, eta editatu baimenen ezarpenak.
- **Kokapen-zerbitzuak:** Agindu gailuari wifi edo Bluetooth funtzioa erabiltzeko, zure kokapen-informazioa zehatzagoa izateko, baita funtzioa itzalita dagoenean ere. Gainera, gailua zer kokapen-zerbitzu erabiltzen ari den begiratu dezakezu.
- **Azken sarbideak:** Kotsultatu zein aplikaziok eskatu duten zure oraingo kokapenari buruzko informazioa.

Segurtasuna eta larrialdiak

Kudeatu zure informazio medikoa eta larrialdietarako kontaktuak. Larrialdiei lotutako funtzioen ezarpenak era alda ditzakezu, hala nola haririk gabeko larrialdi-alertak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Segurtasuna eta larrialdiak**.

- **Informazio medikoa:** Sartu zure informazio medikoa.
- **Larrialdietarako kontaktuak:** Gehitu larrialdietarako zure kontaktuak.
- **Larrialdietako sorospena:** Egin larrialdi-deia aurretik ezarritako zenbakiari, alboko botoia hainbat aldiz sakatutakoan, gailuaren ezarpenen pantailan zehaztutako moduan.
- **Larrialdietan informazioa partekatzea:** Agindu gailuari larrialdietarako kontaktuei informazioa bidaltzeko, hala nola kokapena edo gailuari bateria gutxi geratzen zaiola jakinarazteko alertak, denbora jakin batez.
- **Isildu jakinarazpenak gidatu bitartean:** Piztu ez molestatzeko funtzioa automatikoki, gidatzen ari zaren bitartean.
- **Larrialdietarako kokapen-zerbitzua:** Piztu larrialdietarako kokapen-zerbitzua (ELS).
- **Haririk gabeko larrialdi-alertak:** Aldatu haririk gabeko larrialdi-alerten ezarpenak.
- **Lurrikara-alertak:** Piztu lurrikarei buruzko alertak bidaltzeko funtzioa.
- **Aztarnari ezezagunen alertak:** Jakinarazpen bat jasoko duzu zurekin batera aztarnari ezezagun bat bidaiatzen ari dela detektatzean.



Baliteke zenbait funtzio erabilgarri ez egotea, eskualdearen edo modeloaren arabera.

Kontuak eta babeskopiak

Aukerak

Sinkronizatu, egin babeskopia, edo berreskuratu gailuko datuak, Samsung Cloud erabiliz. Kontuetan saioa hasi ere egin dezakezu, hala nola Samsung edo Google kontuan, edo bestelako gailuei edo gailuetatik datuak bidali, Smart Switch bidez.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Kontuak eta babeskopiak**.

- **Kudeatu kontuak:** Gehitu Samsung eta Google kontuak, edo bestelako kontuak, horiekin datuak sinkronizatzeko.
- **Samsung Cloud:** Egin zure datuen eta ezarpenen babeskopia, eta berreskuratu aurreko gailuaren datuak eta ezarpenak, dagoeneko gailu hori ez izanda ere. Informazio gehiagorako, joan [Samsung Cloud](#) atalera.
- **Google Drive:** Babestu zure informazio pertsonala, aplikazioetako datuak eta ezarpenak gailuan. Informazio sentikorraren babeskopia egin dezakezu. Beharrezkoa da Google kontuan saioa hastea datuen babeskopia egiteko.
- **Smart Switch:** Ireki Smart Switch eta ekarri zure aurreko gailuaren datuak mugikor berrira. Informazio gehiagorako, joan [Aurreko gailutik datuak transferitzea \(Smart Switch\)](#) atalera.



Aldiro-aldiri gorde zure datuen babeskopia leku seguru batean, hala nola Samsung Clouden edo ordenagailu batean; horrela, fabrika-datuak nahi gabe berrezarri badira eta datuak kaltetu edo galdu badira, berreskuratu ahal izango dituzu.

Samsung Cloud

Gorde gailuko datuen babeskopia Samsung Clouden, eta berreskuratu geroago.

Datuen babeskopia egitea

Samsung Clouden, gailuko datuen babeskopia gorde dezakezu.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Kontuak eta babeskopiak** eta sakatu **Egin datuen babeskopia** aukera **Samsung Cloud** atalean.
- 2 Sakatu babeskopian gorde nahi dituzun itemen ondoko etengailuak eta sakatu **Orain egin babeskopia**.

3 Sakatu **Eginda**.



- Daturen batzuk ez dira babeskopian gordeko. Zehazki zer datu gordeko diren jakiteko, ezarpenen pantailan, sakatu **Kontuak eta babeskopiak** eta sakatu **Egin datuen babeskopia** aukera **Samsung Cloud** atalean.
- Bestelako gailuetan egindako babeskopiak Samsung Clouden ikusteko ezarpenen pantailan, sakatu **Kontuak eta babeskopiak** → **Berreskuratu datuak**, eta jarraian hautatu gailua.

Datuak berreskuratzea

Samsung Clouden gordetako datuak gailuan berreskura ditzakezu.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Kontuak eta babeskopiak**.
- 2 Sakatu **Berreskuratu datuak** eta hautatu gailua.
- 3 Markatu zer item berreskuratu nahi dituzun eta sakatu **Berreskuratu**.

Google

Konfiguratu Googlek eskainitako zenbait funtzioaren ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Google**.

Funtzio aurreratuak

Aukerak

Piztu funtzio aurreratuak eta aldatu kontrolatzen dituzten ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Funtzio aurreratuak**.

- **Labs:** Erabili gailuaren funtzio berriak.
- **Alboko botoia:** Aukeratu zer aplikazio edo funtzio jarri abian alboko botoia erabiliz. Informazio gehiagorako, joan [Alboko botoiaren funtzioak](#) atalera.
- **Leiho anizkuna:** Konfiguratu nola jarri abian leiho anizkuna. Leiho anizkunaren ezarpenak ere konfiguratu ditzakezu. Informazio gehiagorako, joan [Leiho anizkuna](#) atalera.
- **Mugimendu eta keinuak:** Piztu mugimenduaren funtzioa eta konfiguratu ezarpenak. Informazio gehiagorako, joan [Mugimendu eta keinuak](#) atalera.
- **Esku bakarreko modua:** Piztu gailua esku bakarrarekin erabiltzeko modua, gailua esku bakarrarekin erabiltzea erosoago izateko.
- **Pantaila-argazkiak:** Aldatu pantaila-argazkien ezarpenak.
- **Game Booster ezarpenak:** Game Boosterren ezarpenak konfiguratzeko.
- **Galaxy Abatar:** Sortu abatarrak zure nahierara, eta dibertitu abatarrak hainbat funtziotan erabiliz. Informazio gehiagorako, joan [Galaxy Abatar](#) atalera.
- **Mezularitza duala:** Instalatu bigarren aplikazioa eta erabili bi kontu desberdin mezularitza-aplikazio berean. Informazio gehiagorako, joan [Mezularitza duala](#) atalera.



Telefono-konpainiaren edo modeloaren arabera, baliteke zenbait funtzio ez egotea eskuragarri.

Mugimendu eta keinuak

Piztu mugimenduaren funtzioa eta konfiguratu ezarpenak.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Funtzio aurreratuak** → **Mugimendu eta keinuak**.

- **Altxatu aktibatzeke:** Agindu gailuari pantaila pizteko, gailua hartzen duzunean.
- **Bi kolpe eman pantaila pizteke:** Agindu gailuari pantaila pizteko, pantaila itzalita dagoela bertan bi kolpetxo ematean.
- **Bi kolpe eman pantaila itzaltzeko:** Agindu gailuari pantaila itzaltzeko, hasierako pantailaren gunee huts batean edo blokeatutako pantailan bi kolpetxo ematean.
- **Jakinarazpenak bidali mugikorra hartzean:** Agindu gailuari alertak bidaltzeko dei galduren bat edo mezu berririk baduzu, mugikorra eskutan hartzen duzunean.



Pantaila piztuta badago edo gailua ez badago azalera lau batean, baliteke funtzio horrek ez funtzionatzea.

- **Buelta eman mututzeko / Keinuekin mututu:** Agindu gailuari zenbait soinu mututzeko, mugimenduak edo keinuak erabiliz.
- **Mugitu esku-ahurra pantaila-argazkia ateratzeko:** Agindu gailuari argazki-pantaila ateratzeko, eskua pantailaren aurrean ezkerrean edo eskuinera mugitzean. Ateratako argazkiak **Galeria** aplikazioan kontsulta ditzakezu. Zenbait aplikazio edo funtzio erabiltzean ezin da pantaila-argazkirik atera.



Mugikorra gehiegi astinduz gero, edo kolperik jasotzen badu, baliteke sentsoreak erabiltzen dituzten funtzioek funtzioaren bat nahi gabe aktibatzea.

Galaxy Abatar

Sortu abatarrak zure nahierara, eta dibertitu abatarrak hainbat funtziotan erabiliz.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Funtzio aurreratuak** → **Galaxy Abatar**. Aplikazioaren ikonoa aplikazioen pantailan gehitu baduzu, ireki **Galaxy Abatar** aplikazioa.

Galaxy Abatarra sortzea

Jarri abian Galaxy Abatar, sakatu Sortu ikonoa () eta ondoren jarraitu pantailako jarraibideei, abatarra sortzeko.

Galaxy Abatarraren eranskailuak erabiltzea

Abatarrak sortzen dituzunean, abatar horien aurpegiera eta ekintzekin, eranskailuak sortuko dira automatikoki. Abatarraren eranskailuak erabil ditzakezu mezuak bidaltzean edo sare sozialetan.

Jarri abian Galaxy Abatar aplikazioa eta sakatu **Abatarren eranskailuak**. Zure eranskailuak sortzeko, sakatu Egin eranskailu pertsonalizatuak ikonoa () eranskailuen zerrendaren goiko aldean.

Mezularitza duala

Instalatu bigarren aplikazioa eta erabili bi kontu desberdin mezularitza-aplikazio berean.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Funtzio aurreratuak** → **Mezularitza duala**.
Funtzioa erabil dezaketen aplikazioak agertuko dira.
 - 2 Sakatu aplikazio baten etengailua, bigarren aplikazioa instalatzeko.
Bigarren aplikazioa instalatuko da. Bigarren aplikazioaren ikonoarekin batera () agertuko da.
-  • Aplikazioaren arabera, baliteke mezularitza dualaren funtzioa ez egotea eskuragarri.
 - Baliteke aplikazio arruntaren zenbait funtzio mugatuta egotea bigarren aplikazioan.

Bigarren aplikazioa desinstalatzeko

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Funtzio aurreratuak** → **Mezularitza duala**.
 - 2 Sakatu desinstalatu nahi duzun aplikazioaren etengailua eta sakatu **Desinstalatu**.
Bigarren aplikazioari lotutako datu guztiak ezabatuko dira.
-  Aplikazio nagusia desinstalatz gero, bigarrena ere ezabatuko da.

Ongizate digitala eta guraso-kontrola

Kontsultatu gailuko erabileraren historia eta erabili zenbait funtzio, gailuak zure bizitza oztopa ez dezan. Zure seme-alabentzako guraso-kontrolak ere ezar ditzakezu, haien erabilera digitala kudeatzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Ongizate digitala eta guraso-kontrola**.

- **Gehien erabilitako aplikazio-kategoriak:** Kontsultatu egun batean gehien erabilitako aplikazio-kategoriak.
- **Pantaila-erabileraren helburua:** Zehaztu gailua egunean zenbat erabiltzen duzun mugatzeko helburuak.
- **Aplikazio-tenporizadoreak:** Ezarri tenporizadoreak eta mugatu zenbat erabil dezakezun aplikazio bakoitza egunean. Mugara iritsitakoan, aplikazioa itxi egingo da, eta ezin izango duzu erabili.
- **Gidatu bitarteko monitoreak:** Piztu gidatu bitarteko monitoreak, gidatzen duzun bitartean gailua zenbat erabiltzen duzun kontrolatzeko.
- **Ibili bitarteko monitoreak:** Piztu ibili bitarteko monitoreak, ibiltzen ari zaren bitartean gailua zenbat erabiltzen duzun kontrolatzeko.
- **Bolumen-monitoreak:** Aktibatu bolumen-monitoreak zure entzumena babesteko.
- **Guraso-kontrola:** Kudeatu zure haurrek gailua zenbat erabiltzen duten.

Gailua zaintzea

Gailua zaintzeko funtzioak gailuaren bateriaren egoerari, biltegiatzeari, memoriari eta sistemaren segurtasunari buruzko ikuspegi orokorra ematen du. Gailua optimizatu ere egin dezakezu.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Gailua zaintzea**.

- **Orain optimizatu:** Itxi bigarren mailan jarduten duten edo bateria kopuru anormala darabilten aplikazioak, eta eskaneatu etendako aplikaziorik edo malwarerik ote dagoen, gailua optimizatzeko.
- **Bateria:** Begiratu zenbat bateria gelditzen den eta zenbat denboraz erabili ahal izango duzun gailua. Gailuak bateria gutxi badu, bateria mantentzeko, piztu bateria aurrezteko modua. Informazio gehiagorako, joan [Bateria](#) atalera.

- **Biltegitratzea:** Kotsultatu erabilitako biltegitratzea eta biltegitratze eskuragarria, eta libratu biltegitratze-ahalmena, beharrezkoak ez diren fitxategiak ezabatuz, hala nola zakarrontzikoak, erabili gabeak edo bikoiztutakoak, horiek begiratu ondoren.



- Barne-biltegitratzearen benetako edukiera zehaztutakoa baino txikiagoa da, sistema eragileak eta berezko aplikazioek biltegitratzearen zati bat hartzen dutelako. Baliteke biltegitratze-ahalmena aldatzea gailua eguneratutakoan.
- Barne-biltegitratzearen ahalmena egiazta dezakezu Zehaztapenak atalean, Samsungen webgunean.
- **Memoria:** Kotsultatu memoriaren erabilera edo sakatu **Garbitu orain**, bigarren mailako aplikazioak eten eta memoria gehiago libratzeko.
- **Aplikazioen babesa:** Eskaneatu gailua malwarea eta beste jarduera susmagarri batzuk detektatu eta salbu egoteko.
- **Errendimenduaren profila:** Aldatu errendimenduaren profila, gailuaren prozesatze-abiadura, bateria-bizitza eta hozte-eraginkortasuna kontuan hartuta.
- **Optimizazio automatikoa:** Automatikoki optimizatu gailua bigarren mailako aplikazioak itxiz edo memoria garbituz, gailua egoera onenean mantentzeko.
Sakatu **Automatikoki berrabiarazi**, gailua automatikoki berrabiarazteko, errendimendu-arazoak detektatzen direnean edo zuk ezarritako unean.
- **Softwarea eguneratzea:** Eguneratu gailuaren softwarea, FOTA (firmware over-the-air) zerbitzuaren bidez. Softwarearen eguneratzeak ere programa ditzakezu.
- **Diagnostikoak:** Probatu gailua Samsung Bazkideak aplikazioa erabiliz.
- **Mantentze-modua:** Aktibatu mantentze-modua zure pribatutasuna mantentzeko, beste norbait gailua erabiltzen ari denean, konponketak egiteko bidaltzen duzunean bezala.

Aplikazioak

Kudeatu gailuko aplikazioak eta aldatu haien ezarpenak. Aplikazioen erabilerari buruzko informazioa kotsultatu, jakinarazpenen edo baimenen ezarpenak aldatu eta beharrezkoak ez diren aplikazioak desinstalatu edo blokea ditzakezu.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Aplikazioak**.

Kudeaketa orokorra

Pertsonalizatu gailuko sistemaren ezarpenak edo berrezarri gailua.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Kudeaketa orokorra**.

- **Hizkuntza:** Hautatu gailuaren hizkuntzak. Informazio gehiagorako, joan [Gailuko hizkuntzak gehitzea](#) atalera.
- **Aplikazioen hizkuntzak:** Hautatu zein hizkuntza erabili nahi duzun aplikazio bakoitzean.
- **Hizkuntza-paketeak:** Kudeatu edo deskargatu hizkuntza-paketeak, ahots bidezko ekarpenerako, testutik ahotsera igarotzeko funtziorako eta itzulpenetarako.
- **Data eta ordua:** Sartu ezarpenetara eta aldatu konfigurazioa gailuak ordua eta data nola erakusten dituen kontrolatzeko.



Bateria erabat deskargatuta badago, ordua eta data berrezarri egingo dira.

- **Samsung Teklatuaren ezarpenak:** Aldatu Samsung Teklatuaren ezarpenak.
- **Teklatuen zerrenda eta lehenetsia:** Hautatu zein teklatu erabiliko den lehenespenez, eta aldatu teklatuaren ezarpenak.
- **Teklatu fisikoa:** Aldatu ezarpenak kanpoko teklatua gehitzeko.
- **Sagua eta ukipen-panela:** Aldatu ezarpenak kanpoko sagua edo ukipen-panela gehitzeko.
- **Berrezarri:** Berrezarri gailuko ezarpenak edo berrezarri fabrika-datuak.
- **Zerbitzu pertsonalizatua:** Jaso zerbitzu pertsonalizatua, zure interesen eta gailuaren erabileraren arabera.
- **Jarri gurekin harremanetan:** Egin galderak edo begiratu maiz egindako galderak.

Gailuko hizkuntzak gehitzea

Gailuan hizkuntzak gehitu ditzakezu.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Kudeaketa orokorra** → **Hizkuntza** → **Gehitu hizkuntza**.
- 2 Hautatu zer hizkuntza gehitu nahi duzun.
- 3 Hautatutako hizkuntza lehenetsizat aukeratzeko, sakatu **Lehenetsizat ezarri**. Oraingo hizkuntza-ezarpenak mantentzeko, sakatu **Mantendu oraingoak**.
Hautatutako hizkuntza zure hizkuntzen zerrendara gehituko da. Hizkuntza lehenetsia aldatu baduzu, hautatutako hizkuntza zerrendaren goiko postuan gehituko da.

Hizkuntzen zerrendan hizkuntza lehenetsia aldatzeko, hautatu zer hizkuntza nahi duzun eta sakatu **Ezarri**. Aplikazioaren bat ez bada erabilgarria hizkuntza lehenetsian, zerrendako hurrengo hizkuntza erabilgarria esleituko zaio.

Irisgarritasuna

Konfiguratu zenbait ezarpen, gailuko irisgarritasuna hobetzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Irisgarritasuna**.

- **Zuretzat gomendatua:** Begiratu zer erabilerraztasun-funtzio ari zaren erabiltzen orain, eta kontsultatu gomendatutako bestelako funtzioak.
- **Ikusmena hobetzea:** Pertsonalizatu ezarpenak ikusmen-urritasuna duten erabiltzaileen irisgarritasuna hobetzeko.
- **TalkBack ahots-laguntzailea:** Piztu TalkBack, ahots bidezko laguntza jasotzeko. Funtzio hori erabiltzen ikasteko, sakatu **Ezarpenak** → **TalkBack tutoriala**.
- **Entzumena hobetzea:** Pertsonalizatu ezarpenak entzumen-urritasuna duten erabiltzaileen irisgarritasuna hobetzeko.
- **Interakzioa eta trebetasuna:** Pertsonalizatu ezarpenak mugikortasun-urritasuna duten erabiltzaileen irisgarritasuna hobetzeko.
- **Ezarpen aurreratuak:** Konfiguratu ezarpenak zuzeneko sarbiderako eta jakinarazpen-funtzioetarako.
- **Instalatutako aplikazioak:** Ikusi gailuan instalatutako irisgarritasun-zerbitzuak.
- **Irisgarritasunari buruz:** Kontsultatu irisgarritasunari buruzko informazioa.
- **Jarri gurekin harremanetan:** Egin galderak edo begiratu maiz egindako galderak.

Softwarea eguneratzea

Eguneratu gailuaren softwarea, FOTA (firmware over-the-air) zerbitzuaren bidez. Softwarearen eguneratzeak ere programa ditzakezu.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Softwarea eguneratzea**.

- **Deskargatu eta instalatu:** Kontsultatu eta instalatu eguneratzeak eskuz.
- **Automatikoki deskargatu:** Hautatu noiz deskargatu softwarearen eguneraketak automatikoki.
- **Azken eguneraketa:** Kontsultatu softwarearen azken eguneraketari buruzko informazioa.



Larrialdiko softwarearen eguneratzeak argitaratzen badira gailuaren segurtasuna bermatzeko eta segurtasun-mehatxu mota berriak blokeatzeko, automatikoki instalatuko dira, zure adostasunik gabe.

Segurtasun-eguneraketei buruzko informazioa

Segurtasun-eguneratzeak egiten dira gailuaren segurtasuna indartzeko eta zure informazio pertsonala babesteko. Zure modelorako segurtasun-eguneraketei buruzko informazioa lortzeko, joan security.samsungmobile.com webgunera.



Webgunea hizkuntza jakin batzuetan bakarrik dago erabilgarri.

Urruneko kudeaketa

Gailuarekin zalantzaren bat edo arazo teknikoren bat baduzu, laguntza lor dezakezu urruneko laguntza zerbitzuaren bidez.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Urruneko kudeaketa**.

Telefonoari buruz

Sartu gailuaren informazioan.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Telefonoari buruz**.

Gailuari izena aldatzeko, sakatu **Izena aldatu**.

- **Egoerari buruzko informazioa:** Ikusi gailuari buruzko askotariko informazioa, hala nola SIM txartelaren egoera, wifiaren MAC helbidea eta serie-zenbakia.
- **Lege-informazioa:** Eskuratu gailuari buruzko lege-informazioa, hala nola segurtasun-informazioa eta kode irekiko baimena.
- **Softwarearen informazioa:** Eskuratu gailuko softwarearen informazioa, hala nola sistema eragilearen bertsioa eta firmware bertsioa.
- **Bateriaren informazioa:** Begiratu bateriari buruzko informazioa.



Begiratu atal honetan bateriari buruzko honako informazio hau. Eskura dagoen informazioa aldatu egin daiteke eskualdearen edo zerbitzu-emailaren arabera.

- Bateriaren fabrikazio-data
- Lehen erabileraren data
- Karga osoko/deskargako zikloen kopurua (edukiera izendatuaren arabera)
- Osasun-egoera neurtua

Erabilera-oharrak



Kontuan hartu beharrekoak gailua erabiltzeko

Mesedez, segurtasuna eta erabilera zuzena bermatzeko irakur ezazu gida hau gailua erabiltzeko.

- Deskribatutakoa gailuko ezarpen lehenetsietan oinarrituta dago.
- Eduki batzuk desberdinak izan daitezke gailurako eremu, zerbitzu-hornitzaile, modeloaren espezifikazio edo softwarearen arabera.
- Baliteke gailuak wifi-sarerako edo sare mugikorrerako konexioa behar izatea aplikazio edo aukera batzuk erabiltzerakoan.
- Zenbait edukitarako (kalitate handiko edukietarako) PUZ eta memoria asko erabili behar da; horrek eragina izango du gailuaren errendimendu orokorrean. Edukiarekin lotutako aplikazioak behar bezala ez funtzionatzea gerta daiteke, gailuaren espezifikazio eta erabiltzen den inguruaren arabera.
- Samsung ez da beste hornitzaileen aplikazioek eragindako errendimendu-arazoen erantzule.
- Samsung ez da editatutako erregistro-ezarpenek edo moldatutako software sistema eragileek eragindako errendimendu-arazo edo ez-bateragarritasunen erantzule. Sistema eragilea pertsonalizatzen saiatzeak eragin dezake gailu edo aplikazioen funtzionamendu desegokia.
- Gailu honekin ematen diren softwarea, soinu-iturriak, irudi-hondoak, irudiak eta gailu honekin datozen bestelako eduki multimediek erabilera mugaturako lizentzia dute. Material horiek helburu komertzial edo bestelakoetarako erabiltzea egile-eskubide legeen urraketa bat da. Erabiltzaileak dira eduki multimedien legez kanpoko erabileren erantzule bakarrak.
- Zure datu-tarifaren arabera kargu gehigarriak izan ditzakezu datu-zerbitzuengatik, hala nola mezuak bidaltzeagatik, edukiak kargatu eta deskargatzeagatik edo kokapen-zerbitzuak erabiltzeagatik. Datu-transferentzia handientzat gomendatzen da wifi-konexioa erabiltzea.
- Gailuarekin datozen aplikazio lehenetsiak eguneratzeen menpe daude eta baliteke aldeztu aurretik jakinarazi gabe gehiago ez onartzea.
- Gailuaren sistema eragilea aldatzeak edo iturri ez-ofizialetatik ateratako software bat instalatzeak gailuaren funtzionamendu desegokia eta datuen galera edo kaltea eragin ditzake. Ekintza horiek urratzen dute zure Samsungeko lizentzia-kontratua eta zure bermea baliogabetzen dute.

- Eguzki-argi indartsuaren azpian bada ere, pantaila argi eta garbi ikus dezakezu inguruaren arabera kontrastea automatikoki doitu. Gailuaren izaera dela eta, grafiko finkoak denbora luzez jarrita edukitzeak irudiondokoak (pantaila erretzea) edo mamu-irudiak eragin ditzake.
 - Aholkatzen da pantaila osoan edo haren zati batean denbora luzez grafiko finkorik ez erabiltzea eta pantaila itzaltzea gailua erabiltzen ez denean.
 - Doitu dezakezu pantaila erabiltzen ari ez zarenean automatikoki itzal dadin. Ireki **Ezarpenak**, hautatu **Pantaila** → **Pantailaren denbora-muga**, eta ondoren zehaztu gailuak pantaila itzali aurretik zenbat denbora itxaro behar duen.
 - Pantailak inguruaren arabera automatikoki bere distira molda dezan, ireki **Ezarpenak**, hautatu **Pantaila**, eta aktibatu **Distira moldakorra**.
- Eremu edo modeloaren arabera, zenbait gailuk AEBko Komunikazioetako Batzorde Federalaren (FCC) onespena jaso behar dute.

Gailuak FCCaren onespena badu, gailuaren FCC identifikazioa egiazta dezakezu. FCC identifikaziora sartzeko, ireki **Ezarpenak** eta hautatu **Telefonoari buruz** → **Egoeraren informazioa**. Gailuak FCC identifikaziorik ez badauka, esan nahi du ez dagoela baimenduta saltzeko AEBn edo AEBko lurretan eta AEBra eraman daitekeela soilik jabearen erabilera pertsonalerako.
- Gailuak onartzen dituen banda-zabalerak eremu edo konpainiaren arabera alda daitezke.
- 5G sarerako konexioa alda daiteke modelo, herrialde, sare-hornitzaile eta erabiltzailearen egoeraren arabera.
- Gailuak imanak dauzka. Ez jarri ondoan gailua eta kreditu-txartelak, inplante medikoak edo imanek eragiten dieten bestelako gailuak. Mediku-gailuen kasuan, gutxienez 15 cm-ko tarte utzi. Uste baduzu gailua gailu medikoarekin interferentzia egiten ari dela, utzi gailua erabiltzeari eta zoaz medikuarengana edo galdetu gailu medikoaren fabrikatzaileari.
- “Erabilera-gida” terminoa gida honetan “erabilera-eskuliburu” bezala idatzita dago gida azkarrean, modeloaren arabera.

Instrukzio-ikonoak



Abisua: zure buruari edo besteei kalte egin diezaieketen egoerak



Erne: gailuari edo beste ekipamenduei kalte egin diezaieketen egoerak



Oharra: oharpenak, erabilera-aholkuak edo informazio gehigarria

Oharrak paketeen edukietan eta osagarrietan

Paketeko edukien berri izateko, jo gida azkarrera.

- Gailuarekin datozen itemak eta eskuragarri dauden osagarriak alda daitezke eremu edo konpainiaren arabera.
- Gailuarekin batera datozen itemak gailu honetarako diseinatu dira eta baliteke beste gailu batekin bateragarriak ez izatea.
- Itxurak eta zehapenak aldaketak izan ditzakete aldeztu aurretik jakinarazi gabe.
- Osagarri gehiago eros ditzakezu zure inguruko Samsung txikizkarian. Erosi baino lehen, ziurtatu gailuarekin bateragarriak direla.
- Samsungek onartutako osagarriak erabiltzea gomendatzen da. Ontzat eman gabeko osagarriak erabiltzeak arazoak erabileran edo errendimenduan eragin ditzake, eta horiek ez ditu bermeak estaltzen.
- Osagarri guztien eskuragarritasuna erabat alda daiteke fabrikatzaileen arabera. Eskuragarri dauden osagarriei buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo Samsungeko webgunera.
- Irteera digitala onartzen duten entzungailuak (USB-C motakoak) gailuarekin erabil daitezke. Hala ere, baliteke gailua bateragarria ez izatea audio irteera metodo desberdina erabiltzen duten edo fabrikatzaile desberdin batekoak diren entzungailuekin.
- Gailuak dakarren USB kableak 3A-rainoko karga onartzen du. Kargagailua ez dator gailuarekin.
- Ingurumen-arrazoiengatik paketeen ez dago kargagailurik. Gailua karga daiteke USB egokigailu gehienekin eta USB-C motako entxufe batekin.

Gailuaren gehiegizko berotze egoerak eta irtenbideak

Gailua kargatzerako orduan gehiegi berotzen denean

Kargatzerakoan gailua eta kargagailua berotu daitezke. Haririk gabeko edo modu azkarrean kargatzerakoan, gailua ukitzean beroagoa izan daiteke. Horrek ez du eraginik gailuaren balio-bizitzan edo errendimenduan eta gailuaren ohiko-funtzionamenduan dago. Bateria gehiegi berotzen bada, karga-abiadura moteldu daiteke edo kargatzeari utz diezaioke.

Hurrengo egin ezazu gailua berotzen denean:

- Deskonektatu kargagailua gailutik eta itxi martxan dauden aplikazioak. Itxaron gailua hoztu arte eta hasi berriz gailua kargatzen.
- Gailuaren beheko aldea gehiegi berotzen bada, kaltetutako USB kable batengatik izan daiteke. USB kablea berri batengatik aldatu. Samsungek onartutako USB kable bat erabiltzea gomendatzen da.
- Haririk gabeko kargagailu bat erabiltzerakoan, ez jarri kanpoko materialik, adibidez objektu metalikoak, imanak eta txartel magnetikoak gailua eta haririk gabeko kargagailuaren artean.



Haririk gabeko karga edo karga azkarra ezin dira gailu guztietan erabili.

Gailua gehiegi berotzen bada erabiltzerakoan

Energia gehiago eskatzen duten aplikazio edo funtzioak erabiltzerakoan edo horiek denbora luzez erabiltzerakoan, gailua berotu daiteke bateria kontsumo handiarengatik. Itxi martxan dauden aplikazioak eta ez erabili gailua tarte batez.

Ikusi noiz gehiegi berotu daitekeen gailua hurrengo adibideekin.

- Erosi edo datuak berreskuratu ondoren sistema abiarazten denean
- Fitxategi handiak deskargatzen direnean

- Energia gehiago eskatzen duten aplikazioak erabiltzerakoan edo aplikazioak tarte luzez erabiltzerakoan
 - Kalitate handiko jokoetan denbora luzez jolasterakoan
 - Denbora luzez bideoak grabatzerakoan
 - Distira-maila handienarekin bideoak zuzenean igortzen direnean
 - Telebistara konektatzen duzunean
- Hainbat gauza aldi berean egiterakoan (edo atzeko planoan hainbat aplikazio martxan izaterakoan)
 - Leiho anizkuna erabiltzerakoan
 - Bideoak grabatzen diren bitartean aplikazioak eguneratu edo deskargatzen direnean
 - Bideodei baten erdian fitxategi handiak deskargatzen direnean
 - Nabigazio-aplikazioa erabiltzerakoan bideoak grabatzen direnean
- Datu kantitate handiak kontsumitzerakoan hodeiarekin, posta elektronikoarekin eta bestelako kontuekin sinkronizatzeko
- Gailua eguzki argi zuzenaren azpian egonda nabigazio-aplikazio bat erabiltzen denean
- Sarbide-puntu mugikorra eta sarera ainguratzea aukerak erabiltzerakoan
- Gailua seinalerik gabeko edo seinale ahuleko eremuetan erabiltzerakoan
- Bateria kaltetutako USB kable batekin kargatzen denean
- Gailuaren erabilera anitzeko konektorea hondatuta dagoenean edo kanpoko materialekin kontaktuan dagoenean, hala nola likidoekin, hautsarekin, metalezko hautsarekin eta arkatx-minarekin
- Roaming-a erabiltzerakoan

Hurrengoa egin ezazu gailua berotzen denean:

- Gailua azken softwarearekin eguneratua mantentzeko ezazu.
- Martxan dauden aplikazioen arteko gatazkek eragin dezakete gailua berotzea. Gailua berriz abiarazi.
- Desaktibatu wifi, GPS eta Bluetooth funtzioak erabiltzen ez dituzunetan.
- Itxi bateriaren kontsumoa igotzen duten aplikazioak edo erabiltzen ez direnean ere atzeko planoan martxan dauden horiek.
- Ezabatu behar ez dituzun fitxategiak edo erabiltzen ez dituzun aplikazioak.
- Pantailaren argitasuna jaitsi.
- Gailua gehiegi berotzen bada edo bero badago tarte luze batez, ez erabili tarte batez. Gailua gehiegi berotzen jarraitzen badu, eraman Samsungen zerbitzu teknikora edo zerbitzu tekniko baimendu batera.

Gailua gehiegi ez berotzeko hartu beharreko neurriak

Deseroso sentitzen hasten bazara gailua gehiegi berotzen delako, utzi gailua erabiltzeari.

Gailua berotzen denean, funtzioak eta errendimendua muga daitezke edo gailua itzal daiteke hoztu ahal izateko. Aukera hori soilik modelo batzuetan dago erabilgarri.

- Gailua gehiegi berotzen bada, pantailaren argitasuna, pantailaren freskatze-maiztasuna eta funtzionamendu-abiadura mugatuko dira gailuaren tenperatura jaisteko. Bateriaren kargatze-adierazlearen ikonoa agertu arren, kargatzeko prozesua motela izan daiteke. Kargatzea eteten bada gailuaren tenperatura igotzen delako, bateriaren adierazleak kliska egingo du.
- Gailua tenperatura zehatz batera heltzen bada, gailuaren matxura, azaleko narritadura eta kaltea, eta bateria-isuria saihesteko mezu bat agertuko da. Gailua hoztu arte martxan dauden aplikazioak itxiko dira eta deiak eta bestelako funtzio guztiak mugatuko dira, larrialdi-deiak izan ezik.
- Bigarren mezu bat agertzen bada gailuaren tenperatura berriz ere igo delako, gailua itzaliko da. Ez erabili gailua haren tenperatura funtzionatzeko gomendatutako tartean egon arte. Bigarren mezua larrialdi-dei baten erdian agertzen bada, deia ez da behartutako amaiera baten bidez etengo.



Funtzionatzeko gomendatutako tenperatura-tartea

Gailuaren funtzionamendu-tenperatura gomendatua 0 °C eta 35 °C artean da. Gailua gomendatutako tenperatura-tartetik kanpo erabiltzen bada, kalteak egon daitezke gailuan edo bateriaren balio-bizitza murriztu daiteke.

Ingurune eragilerako neurriak

Baliteke gailua berotzea ingurunearen baldintzengatik. Erne ibili ekiditeko bateriaren balio-bizitza laburtzea, gailua kaltetzea edo sute bat sortzea.

- Ez gorde gailua tenperatura oso altu edo oso baxuetan.
- Ez eduki gailua eguzki-argiaren eraginpean denbora luzez.
- Ez erabili edo gorde gailua denbora luzez bero handia egiten duen eremuetan, adibidez kotxearen barruan udan.
- Ez jarri gailua gehiegi berotu daitezkeen tokietan, hala nola berogailu elektriko baten gainean.
- Ez gorde gailua berogailu, mikrouhin-labe, kozinatze tresneria bero edo presio handiko ontzien ondoan edo barruan.
- Ez erabili estalkia kenduta edo hondatuta duen kablerik, eta ez erabili hondatuta dagoen edo gaizki funtzionatzen duen kargagailurik.

Produktu honen itxarote-egoeraren energia-kontsumoaren inguruko informazioa aurkitu

- Bisitatu www.samsung.com/global/ecodesign_energy.
- Bilatu produktuaren modelo-zenbakia erabiliz.



Eremuaren, telefono-konpainiaren edo modeloaren arabera, baliteke funtzio hau ez egotea eskuragarri.

Eranskina



Arazoak detektatu eta konpondu

Samsungen zerbitzu tekniko edo zerbitzu tekniko baimendu batekin harremanetan jarri baino lehen, mesedez saia zaitez hemengo aholkuak aplikatzen. Baliteke egoera batzuk gailuarekin bat ez etortzea. Halaber, Samsung Bazkideak erabil dezakezu gailua erabiltzerakoan topa ditzakezun arazoei irtenbidea aurkitzeko.

Gailua pizterakoan edo hura erabiltzerakoan, eskatuko dizu hurrengo kodeak sartzea:

- Pasahitza: Gailua blokeatzeko funtzioa piztuta badago, gailuarentzat jarritako pasahitza sartu beharko duzu.
- PIN kodea: Gailua lehenengo aldiz erabiltzerakoan edo PIN kodea eskatzea aktibatuta dagoenean, zure SIM edo USIM txartelean zehaztutako kodea sartu beharko duzu. Aukera hori desaktiba dezakezu SIM txartela blokeatzeko menuan.
- PUK kodea: Zure SIM edo USIM txartela blokeatuta badago, PIN kodea hainbatetan gaizki ipini izanagatik izan daiteke. Fabrikatzaileak emandako PUK kodea sartu beharko duzu.
- PIN2: PIN2-a eskatzen duen menu batera sartzerakoan, SIM edo USIM txarteleko PIN2-a sartu behar duzu. Informazio gehiago eskuratzeko, zure konpainiarekin harremanetan jarri.

Gailuak sareko edo zerbitzuko errore-mezuak erakusten ditu

- Seinale ahuleko edo harrera eskaseko eremuetan zaudenean, estaldura gal dezakezu. Mugitu beste eremu batera eta saiatu berriro. Mugitzerakoan errore-mezuak jaso ditzakezu behin eta berriz.
- Harpidetzarik gabe ezin dituzu aukera batzuk erabili. Informazio gehiago eskuratzeko, zure konpainiarekin harremanetan jarri.

Gailua ez da pizten

Bateria erabat deskargatuta dagoenean, gailua ez da piztuko. Bateria osoki kargatu gailua piztu baino lehen.

Ukipen-ezagutzak mantso edo gaizki funtzionatzen du

- Agian ukipen-ezagutzak ez du behar bezala funtzionatuko egoera hauetan:
 - Pantailari gehitzen badizkiozu pantaila-babeslea edota bestelako osagarriak
 - Eskularruak badaramazkizu, zure eskuak garbi ez badaude pantaila ukitzean edo pantaila hatz-mami edo objektu zorrotzekin ukitzen baduzu
 - Egoera hezeetan edo uraren eraginpean egotean
- Berriz abiarazi gailua behin-behineko softwareko arazoak konpontzeko.
- Ziurtatu gailuko softwarea azken bertsiora eguneratuta dagoela.
- Pantaila urratuta edo kaltetuta badago, eraman Samsungen zerbitzu teknikora edo zerbitzu tekniko baimendu batera.

Gailua blokeatzen da edo arazo larri bat dauka

Saiatu hurrengo konponbideak. Arazoa oraindik ere konpontzen ez bada, eraman Samsungen zerbitzu teknikora edo zerbitzu tekniko baimendu batera.

Gailua berriz abiarazi

Gailua blokeatuta edo erantzunik eman gabe gelditzen bada, baliteke aplikazioak itxi edo gailua itzali eta piztu behar izatea.

Berriz abiaraztea behartu

Gailua izoztuta gelditzen bada eta erantzuten ez badu, alboko botoia eta bolumena jaisteko botoia sakatuta mantendu aldi berean 7 segundo baino gehiagoz hura berriz abiarazteko.

Gailuan fabrika-datuak berrezarri

Metodo horiekin arazoa konpontzen ez bada, saiatu fabrika-datuak berrezartzen.

Ireki **Ezarpenak** eta aukeratu **Kudeaketa orokorra** → **Berrezarri** → **Fabrika-datuak berrezarri** → **Berrezarri** → **Dena ezabatu**. Fabrika-datuak berrezarri baino lehen, gogoratu, egin gailuan bildutako datu garrantzitsu guztien babeskopia.

Deiak ez dira konektatzen

- Ziurtatu telefono-sare egokira zaudela konektatuta.
- Ziurtatu ez duzula deiak debekatzeko aukera ezarri markatzen ari zaren zenbakirako.
- Ziurtatu ez duzula deiak debekatzeko aukera ezarri sarrerako telefono zenbakirako.

Besteek ezin zaituzte entzun dei batean hitz egiterakoan

- Ziurtatu ez zaudela gailuko mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik gertu dagoela.
- Entzungailuak erabiltzen ari bazara, ziurtatu ongi konektatuta daudela.

Soinu oihartzunak deietan

Bolumena doitu bolumenaren botoiaren bidez edo beste toki batera mugitu.

Telefono-sarea edo Internet sarri deskonektatzen dira edo audioaren kalitatea baxua da

- Ziurtatu ez zaudela gailuaren barneko antena blokeatzen.
- Seinale ahuleko edo harrera eskaseko eremuetan zaudenean, estaldura gal dezakezu. Konektibitate-arazoak izan ditzakezu konpainiako oinarritzko estazioaren arazoengatik. Mugitu beste eremu batera eta saiatu berriro.
- Gailua mugitzen ari zaren bitartean erabiltzean, haririk gabeko sare-zerbitzuak desgaituta egon daitezke arazoengatik operadorearen sarearekin.

Bateria ez da ongi kargatzen (Samsungek onartutako kargagailuak)

- Ziurtatu kargagailua ongi konektatuta dagoela.
- Samsungen zerbitzu tekniko edo zerbitzu tekniko baimendu bat bisitatu eta bateria aldatu. Eraman erabiltzen ari zaren kargagailua eta USB kablea zerbitzu laguntza hobe jasotzeko.

Bateria erosi nuenean baino azkarrago agortzen da

- Gailua edo bateria tenperatura oso altu edo baxuetan edukitzen badituzu, karga erabilgarria murriztu daiteke.
- Bateria-kontsumoa handituko da aukera edo aplikazio batzuk erabiltzerakoan, adibidez GPSa, jokoak edo Internet.
- Bateria kontsumigarria da eta karga erabilgarria laburragoa izango da denborarekin.

Errore-mezuak agertzen dira kamera irekitzerakoan

Gailuak biltegiratze eta bateria nahikoak izan behar ditu kameraren aplikazioa ibil dadin. Errore-mezuak jasotzen badituzu kamera irekitzerakoan, saiatu hurrengoarekin:

- Bateria kargatu.
- Libratu biltegiratze zati bat fitxategiak ordenagailu batera pasatuz edo gailuan fitxategiak ezabatuz.
- Gailua berriz abiarazi.

Aholku hauek aplikatu ostean kameraren aplikazioak arazoak ematen badizkizu, harremanetan jarri Samsungen zerbitzu teknikoarekin edo zerbitzu tekniko baimendu batekin.

Argazkien kalitatea aurreikusitakoa baino pobreagoa da

- Zure argazkien kalitatea aldakorra izan daiteke ingurunearen eta erabilitako tekniken arabera.
- Toki ilunetan, gauez edo barrualdean argazkiak hartzen badituzu, irudian zarata isla daiteke edo argazkiak desfokuratu daitezke.

Errore-mezuak agertzen dira multimedia-edukiak irekitzerakoan

Errore-mezuak jasotzen badituzu edo multimedia-edukiak ezin badira erreproduzitu gailuan irekitzerakoan, saiatu hurrengoa:

- Libratu biltegiratze zati bat fitxategiak ordenagailu batera pasatuz edo gailuan fitxategiak ezabatuz.
- Ziurtatu musika-fitxategia ez dagoela Eskubide Digitalen Kudeaketa (DRM) bidez babestuta. Fitxategia DRM bidez babestuta badago, ziurtatu fitxategia erreproduzitzeko beharrezkoa den lizentzia edo gakoa daukazula.

- Ziurtatu gailuak onartzen dituela fitxategien formatuak. Formaturen bat ezin badu onartu, adibidez DivX or AC3, hura irekitzeko aplikazio bat instalatu. Gailuak onartzen dituen fitxategi-formatuak ezagutzeko, bisitatu Samsungeko webgunea.
- Gailuak hark hartutako argazkiak eta bideoak onartzen ditu. Baliteke beste gailu batzuekin hartutako argazkiak eta bideoak gailuarekin ireki ezin izatea.
- Gailuak zure konpainiak edo hornitzaileak baimendutako multimedia-fitxategiak onartzen ditu. Baliteke Internetetik ateratako edukiak gailuan behar bezala ez funtzionatzea, hala nola dei-seinaleak, bideoak edo irudi-hondoak.

Bluetootha ez dabil ongi

Beste Bluetooth gailu bat ezin baduzu aurkitu edo konexioan edota errendimenduan arazoak badaude, saiatu hurrengoa:

- Ziurtatu konektatu nahi duzun gailua eskaneatzeko edo konektatzeko prest dagoela.
- Ziurtatu zure telefonoa eta beste Bluetooth gailua Bluetootharen gehieneko irismen-eremuan daudela (10 m).
- Zure telefonoan ireki **Ezarpenak**, aukeratu **Konexioak**, eta aktibatu berriz **Bluetooth** funtzioa.
- Zure telefonoan ireki **Ezarpenak**, aukeratu **Kudeaketa orokorra** → **Berrezarri** → **Berrezarri wifi- eta Bluetooth-funtzioak** → **Berrezarri ezarpenak** sare-ezarpenak berrezartzeko. Berriz ezartzerakoan erregistratutako informazioa gal dezakezu.

Arazoa aholku hauekin konpontzen ez bada, eraman Samsungen zerbitzu teknikora edo zerbitzu tekniko baimendu batera.

Gailua ordenagailura konektatzea ez da konexioa lortzea

- Ziurtatu erabiltzen ari zaren USB kablea gailuarekin bateragarria dela.
- Ziurtatu ordenagailuan kontrolatzaile egokia eguneratuta eta instalatuta duzula.

Gailuak ezin du zure uneko kokapena aurkitu

GPS seinaleak traba daitezke zenbait tokitan, adibidez barrualdean. Konfiguratu gailua horrelako egoeretan zure kokapena wifi edo sare mugikor baten bidez aurki dezan.

Gailuan biltegitratutako datuak galdu dira

Gailuan biltegitratutako datu garrantzitsu guztien babeskopiak egin. Bestela, ezingo dituzu datuak berreskuratu gailua kaltetzen edo galtzen bada. Samsung ez da gailuan gordetako datuen galeraren erantzule.

Gailuaren kanpoaldeko zorroan hutsune bat dago

- Hutsune hau beharrezko fabrikazio-funtzio bat da eta baliteke piezak pixka bat kulunkatzea edo dardaratzea.
- Denborarekin, piezen arteko marruskadurak direla-eta hutsunea apur bat handitu daiteke.

Ez dago espazio nahikorik gailuaren biltegitratzean

Ezabatu beharrezkoak ez diren datuak, cachea adibidez, gailuko zainketa-aukera erabiliz edo erabiltzen ez diren aplikazioak eskuz ezabatu biltegitratzeko tokia libratzeko.

Orri nagusiaren botoia ez da agertzen

“Etxea” botoia biltzen duen nabigazio-barra desagertu daiteke aplikazio edo aukera batzuk erabiltzerakoan. Nabigazio-barrara sartzeko, arrastatu gorantz pantailako beheko aldetik.

Bateria kendu

- **Bateria kentzeko, harremanetan jarri zerbitzu tekniko baimendu batekin. Bateria kentzeko jarraibideak eskuratzeko, bisitatu www.samsung.com/global/ecodesign_energy.**
- Zure segurtasuna bermatzeko, **ez saiatu bateria bakarrik kentzen**. Bateria ez bada behar den bezala kentzen, bateria eta gailua kaltetu daitezke, pertsonak zauritu daitezke eta gailua ez-segurua bilaka daiteke.
- Samsungek ez du bere gain hartzen abisu eta argibide hauek zehatz-mehatz ez jarraitzeagatik sortutako kalte edo galeren erantzukizuna (kontratukoak edo kalte-ordainak, arduragabekeria barne), Samsungen arduragabekeriengatik eragindako heriotza edo lesio pertsonalak izan ezik.

Egile-eskubideak

Copyright © 2025 Samsung Electronics Co., Ltd.

Nazioarteko egile-eskubideen legeen babespean dago gida hau.

Gida honen ezein zati ezin da birstortu, banatu, itzuli edo transmititu, ezein modutan eta ezein bitartekoren bidez, ez elektronikoki ez mekanikoki, eta ezin da, halaber, ez fotokopiatu, grabatu edo gorde informazioa biltegiratu eta berreskuratzeko ezein sistematan.

Marka erregistratu

- Samsung eta Samsungen logoa Samsung Electronics Co., Ltd.-ren marka erregistratuak dira.
- Bluetooth® Bluetooth SIG, Inc. worldwide-ren marka erregistratua da.
- Wi-Fi®, Wi-Fi Direct™, Wi-Fi CERTIFIED™ eta Wi-Fi logoa Wi-Fi Alliance-ren marka erregistratuak dira.
- Dolby Laboratories-en lizentziarekin fabrikatzen dira. Dolby, Dolby Atmos eta D bikoitzaren sinboloa Dolby Laboratories-en marka erregistratuak dira.
- Gainerako marka erregistratuak eta egile-eskubideak dagokien jabeenak dira.